

Ekainaren 10eko 45/1997 FORU DEKRETUA, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Dekretu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru dekretuaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

I. KAPITULUA: AMORTIZAZIOAK	6
1. artikulua. Ibilgetuaren ondare elementuak eta inbertsio inmobiliarioak amortizatzea.....	6
2. artikulua. Amortizazio planak	9
3. artikulua. Amortizazio askatasuna.....	10
II. KAPITULUA: INGURUMEN ALORREKO JARDUKETEI DAGOZKIEN GASTUEN PLANAK	10
4. artikulua. Ingurumen alorreko jarduketei dagozkien gastuen planak.	10
III. KAPITULUA: FONDO PROPIOETAKO PARTAIDETZAREN BALOREEN EROSKETA	11
5. artikulua. Informatzeko obligazioak.....	11
III.BIS KAPITULUA. (INDARGABETUA).....	12
IV. KAPITULUA: MERKATUKO BALIO NORMALAREN ZEHAZTAPENA ETA DOKUMENTAZIO OBLIGAZIOAK, ERAGIKETA LOTUETAN ETA PARADISU FISKALETAN EGOILIAR DIREN PERTSONA EDO ENTITATEKIN EGINDAKO ERAGIKETETA	12
1. sekzioa. <i>Eragiketa lotuen merkatuko balio normala zehaztea.</i>	12
6. artikulua. Konparagarritasun azterketa.....	13
7. artikulua. Pertsona edo entitate lotuek kostuak banatzeko elkarrekin izenpetutako akordioen betekizunak.	14
8. artikulua. Eragiketa lotuen hitzartutako balioaren eta merkatuko balio normalaren arteko aldeak.	15
2. sekzioa. <i>Dokumentazio obligazioak, pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketetan eta egoitza paradisu fiskaletan duten pertsona edo entitateekin egiten diren eragiketetan.</i>	15
9. artikulua.- Dokumentazio obligazioak, pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketetan.....	15
10. artikulua. Zergapekoaren taldeari buruz aurkeztu beharreko dokumentazioa.	18
11. artikulua. Zergapekoaren dokumentazio obligazioa.	19
12. artikulua.- Paradisu fiskaletan egoiliar diren lotu gabeko pertsona edo entitateekin egindako eragiketak dokumentatzeko obligazioa.	20
3. sekzioa. <i>Eragiketa lotuen merkatuko balio normala egiaztatzea.</i>	21
13. artikulua. Eragiketa lotuen merkatuko balio normala egiaztatzea.	22
V. KAPITULUA: PERTSONA EDO ENTITATE LOTUEN ARTEKO ERAGIKETEN AURRETIAZKO BALORAZIOKO AKORDIOAK	24
1. sekzioa. <i>Zergapekoek eskatuta eragiketa lotuei buruzko akordiorako prozedura.</i>	24
14. artikulua. Aurretiazko jarduketak.	24
15. artikulua. Prozedura hastea.	24
16. artikulua. Dokumentazioaren araubidea.	25
17. artikulua. Akordioa tramitatzea, amaitzea eta ondorioa izatea.	26
18. artikulua. Pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketak baloratzeko akordioa aplikatzeari buruzko informazioa.	27
19. artikulua. Aurretiazko balorazioko akordioa aldatzea.	27
20. artikulua. Aurretiazko balorazioko akordioa luzatzea.	29
2. sekzioa. <i>Eragiketa lotuei buruzko akordioa beste administrazio batzuekin adosteko prozedura.</i> ..	29
21. artikulua. Aplikaziozko arauak.....	29
22. artikulua. Prozedura hastea.	30
23. artikulua. Tramitatzea eta ebatzea.	30
24. artikulua. Organo eskudunak.....	30
VI. KAPITULUA: SARRERA ETA GASTUAK DENBORAREN ARABERA EGOZTEA: SORTZAPENARENA EZ DIREN IRIZPIDEAK ONARTZEA	31
25. artikulua. Sortzapenarena ez diren irizpideak onartzea.	31

26. artikulua. Egozpenaren irizpide fiskalak amortizazioei dagokienez.....	31
VII. KAPITULUA: APARTEKO MOZKINAK BERRINBERTITZEA	31
27. artikulua. Aparteko mozkinak berrinbertitzea	31
28. artikulua. Errentak oinarri ezargarrian sartzea berrinbertsioa jaso duten elementuak eskualdatzen direnean.	32
29. artikulua. Berrinbertsioko plan bereziak.	32
30. artikulua. Aparteko mozkinak berrinbertitzean bete beharreko obligazio formalak.	33
VIII. KAPITULUA: KUOTAREN KENKARIAK	34
31. artikulua. Inbertsio produktiboetarako erreserba gauzatzea.	34
32. artikulua. Ikerketako, garapeneko eta berrikuntza teknologiko nahiz ez-teknologikoko jarduerengatik araututako kenkariak aplikatzeko txosten arrazoitua.	34
33. artikulua. Txostenaren ondorioak eta Zerga Administrazioaren ahalmenak.....	35
34. artikulua. Ikertzaileen Gizarte Segurantzarako kotizazioengatik hobarien aldeko aukera.....	35
35. artikulua. Kenkaria garapen iraunkorra, ingurumenaren zaintza eta hobekuntza zein energia iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzera zuzentzen diren proiektuekin loturiko inbertsio eta gastuengatik.	36
36. artikulua. Kenkaria lanbide heziketako gastuengatik.	38
37. artikulua. Kenkaria enpresen gizarte aurreikuspeneko tresna gisa jarduten diren gizarte aurreikuspeneko sistemei enpresek egiten dizkieten kontribuzioengatik.	38
37.bis. artikulua. Kenkaria enplegua sortzeagatik.	39
IX. KAPITULUA: ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK	40
38. artikulua. Enpresa txiki eta ertainen kontzeptua.....	40
39. artikulua. Enpresa txiki eta ertainen ibilgetu material berriaren elementuak amortizatzea.....	41
40. artikulua. (indargabetua)	41
41. artikulua. (Indargabetua)	41
X. KAPITULUA: APLIKATZEA ATZERRIKO BALIOEN EDUKITZAKO ENTITATEEN ARAUBIDE BEREZIA ETA BAT-EGITEEI, ZATIKETEI, AKTIBOEN EKARPEnei, BALORE TRUKAKETARI, AKTIBO ETA PASIBO OSOAREN LAGAPENARI ETA EUROPAR SOZietate BATEN EDO EUROPAR SOZietate KOOPERATIBO BATEN SOZietate HELBIDEA EUROPAR BATASUNeko ESTATU BATETIK BESTERA ALDATZEARI BURUZKO ARAUBIDE BEREZIA	41
42. artikulua. Atzerriko baloreen entitate edukitzaileen erregimena. Erregimena aukeratzen dela eta hari uko egiten zaiola jakinaraztea.	41
43. artikulua. Bat-egiteei, zatiketei, aktiboen ekarpenei, balore trukaketari, aktibo eta pasibo osoaren lagapenari eta europar sozietate baten edo europar sozietate kooperatibo baten sozietate helbidea Europar Batasuneko estatu batetik bestera aldatzeari buruzko araubidea.	42
XI. KAPITULUA: ENPRESAK SUSTATZEKO SOZietateAK	44
44. artikulua. Enpresak sustatzeko sozietateen erregimen berezia aplikatzeko eskatzea.	44
45. artikulua. Enpresak sustatzeko sozietateen erregimena aplikatzeko eskubidea galtzea.	44
XII. KAPITULUA: INTERES EKONOMIKOKO TALDE ESPAINIAR ETA EUROPARREN, ENPRESEN ALDI BATERAKO BATASUNEN, ONDARE SOZietateEN, KONTSolidAZIO FISKALAREN ETA ZATI BATEAN SALBUETSITAKO ENTITATEEN ARAUBIDE BEREZIAK	45
46. artikulua. Interes ekonomikoko talde espainiar eta europarren betebeharrak, eta enpresen aldi baterako batasunenak.	45
46.bis artikulua. Ondare sozietateen betebeharrak.	46
47. artikulua. Kontsolidazio fiskaleko erregimen berezia aplikatzea.	47
47.bis artikulua. Alderdi politikoen beraien ustapien ekonomikoak, Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita daudenak.	47
XII.BIS KAPITULUA. ERRENTAMENDU FINANTZARIOKO KONTRATU BATZUEN ZERGA ERREGIMENA APLIKATZEA.....	49
47.ter artikulua. Errentamendu finantzarioko kontratuak. Ondasunaren kostua berreskuratzeagatik ordaindutako kopuruak noizdanik diren kenkaridun zehaztea.....	49
XIII. KAPITULUA: ESKAERAK TRAMITATU ETA ONARTZEKO PROZEDURA OROKORRA	50
48. artikulua. Eskaerak tramitatu eta onartzeko prozedura orokorra.	50
XIV. KAPITULUA: ZERGAREN KUDEAKETA.....	51
49. artikulua. Entitateen aurkibidea.....	51
50. artikulua. Entitateen aurkibidean alta berritzea eta albo-oharra kantzeltatzea.	51
51. artikulua. Kolaboratzeko betebeharra.....	51
52. artikulua. Ofiziozko itzulketa.	51
XV. KAPITULUA: ATXIKITZEKO ETA KONTURA ORDAINITZEKO OBLIGAZIOA.....	51
53. artikulua. Atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errentak. Aplikazio eremua.....	51
54. artikulua. Atxiki edo kontura sartzeko obligazioaren salbuespenak.....	52
55. artikulua. Atxikitzea edo konturako sarrera egitera behartuta dauden subjektuak.	57
56. artikulua. Aktibo finantzarioen kalifikazioa eta aktibo finantzarioak eskualdatu, berreskuratu eta amortizatzeako betebeharrak fiskalak.....	59
57. artikulua. Atxiki edo kontura sartzeko obligazioaren kalkulurako oinarria.....	61

58. artikulua. Atxikitze eta kontura ordaintzeko obligazioa sortzea.	62
59. artikulua. Atxikipenaren edo konturako sarreraren portzentajea.	62
60. artikulua. Atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa.	63
61. artikulua. Atxikitzailearen eta kontura sartzera behartutakoaren betebeharrak.	63
62. artikulua. Ez egoiliarrei ondasun higiezinak erosteagatik egin beharreko atxikipenak.	64
XVI. KAPITULUA: ZERGA ORDAINTEKO OBLIGAZIO ERREALA (INDARGABETUA).....	64
XEDAPEN GEHIGARRIAK	64
Lehen. Atxikipena edo konturako sarrera egitea Sozietateen gaineko Zergako karga tasa orokorraren mendean ez dauden kapital aldakorreko inbertsio sozietateek egin dituzten ekarpen itzulketa bidezko kapital murrizpenetan eta jaulkipen primen banaketetan.	64
Bigarrena. Higiezin inbertsio kolektiboko erakundeen araubidea.	65
XEDAPEN IRAGANKORRAK.....	66
Lehen. Elementu erabiliak amortizatzea.	66
Bigarrena. Lanaldiaren banaketaren suposamenduan jasota dauden pizgarriak aplikatzeko dokumentazioa aurkezteko epea.	66
Hirugarrena. (Indargabetua).....	66
Laugarrena. (Indargabetua).....	66
Bosgarrena. Enpresak sustatzeko sozietateen erregimen berezia aplikatzeko eskaera aurkezteko epea.	66
Seigarrena. Plan berezi jakin batzuk onartu eta sortzapenarena ez diren egozpen tenporaleko irizpideak ontzat emateko eskaerak aurkezteko epea.	67
Zazpigarrena. Berrinbertsio plan bereziak.	67
Zortzigarrena. 1984ko uztailaren 7a baino lehen jaulki eta zirkulazioan jarritako aktibo finantzarioen etekin inplizituak.....	67
Bederatzigarrena. Elkarri lotuta dauden pertsona edo entitateen arteko eragiketak aurrez baloratzeko proposamenak.	67
Hamargarrena. Zerga onuren erregimen iragankorra hainbat finantza eragiketatan.....	68
Hamaikagarren xedapen iragankorra. Kontabilitate Plan Orokorra lehen aldiz aplikatzeagatik beharrezko diren kontabilitate doiketen zerga erregimena.	71
Hamabigarren xedapen iragankorra. Ondare elementuen balio zuzenketa jakin batzuen erregimen iragankorra.	73
Hamahirugarren xedapen iragankorra. Aparteko konponketengatik eta ustiapen ekonomikoak utzi izanaren gastuengatik egindako horniduren erregimen iragankorra.	73
Hamalaugarren xedapen iragankorra. Aseguru entitateen kontabilitate arau berriak lehen aldiz aplikatzeagatik beharrezko diren kontabilitate doiketen zerga erregimena.	74
AMAIERAKO XEDAPENA.....	74
Lehen. Indarrean sartzea.	75
Bigarrena. Foru diputatuaren ahalmenak.	75

Uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, berarekin ekarri du Gipuzkoako zergen alorrean aurrerapauso handia ematea araugintza ahalmenaren garapenari dagokionez. Aurrerapauso horrek, hain zuzen, Konstituzioan eta Euskal Herriko Autonomi Estatutuan aitortutako foru lurraldeen eskubide historikoetatik eratorria den Ekonomia Itunaren erregimena indartu du.

Sozietateen gaineko Zergaren Arauari dagokionean, aipatu beharrekoa da, besteak beste, helburu integratzailea ere baduela: batetik, entitate juridikoen zerga araudi osoa hartzen du, salbu herri onurakotzat hartutako fundazio eta elkartearen araudia, borondatezko gizarte aurreikuspenarako entitateena eta kooperatibena; eta, bestetik, lehengo erregimenaren aldean oraingoak aldaketa nabarmena ekarri du berarekin.

Dena den, uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak jasotako erregelamenduzko garapena egin behar da. Foru Araua garatzea ezinbestekoa da entitate juridikoen zerga araudia erabat osatu ahal izateko.

Asmo horrekin, foru dekretu honek arautzen ditu 7/1996 Foru Arauan espresuki erregelamendu bidez garatu behar direla jasotzen dituen gaiak. Beraz, beste zerga figura batzuen araudian bezalaxe, erregelamendu honek bakar-bakarrik jasotzen ditu Foru Arauan geroago garatuak izateko alde zurretik gaitu diren arauak. Horrelaxe gertatu da, batez ere, aipatu foru arauak jasotako xehetasun edo gaiei buruzko eskaera eta prozeduren alorrean. Bereiziki aipatu beharrekoa da azken horietan Administrazioaren jarduketaren printzipio nagusiak sartu izana eta, zehazkiago, administrazio guztien prozedura administratiboa, hain zuzen ere azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasota dagoena.

Foru dekretu honen edukari dagokionean, honelaxe osatuta dagoela adierazi behar da: hamahiru kapitulu, 56 artikulua, bi xedapen gehigarri, zortzi xedapen iragankor eta amaierako bi xedapen.

Foru Dekretuan egindako erregulazioan lehen zati bat bereiz daiteke: aurreneko zazpi kapituluak. Zergaren oinarri ezargarriari eta likidagarriari buruzko alderdi desberdinak jorratzen dira kapitulu horietan.

Hori horrela, I. kapituluak garapen erregelak sartuta daude, ondare elementuen amortizazioek oinarri ezargarria zehazteko orduan dakarten ondorioari buruz.

II. kapituluak garatzen da ondare elementuen aparteko konponketei eta aldi baterako ustiapen ekonomikoak lagatzeagatik sortutako gastuei aurre egiteko dotazio planak, Sozietateen Zergaren Foru Arauak 13. artikuluen 2 apartatuko d) letran jasotakoak, ebatzi ahal izateko prozedura.

III. kapituluak, berriz, Zergaren Foru Arauaren 16. artikuluen 1 apartatuan egindako aurreikuspena garatzen da, eragiketa lotuen kasuan merkatuko ohiko balioaren arabera balorazioa egiteko prozedurari buruz.

IV. kapituluak, bestetik, zenbait eskaera edo proposamen ebazteko prozedura bateratua jasotzen da, hala nola: pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketak alde zurretik baloratzeko proposamenak; ikerkuntza eta garapen jardueretarako entitate lotu batek egindako kontribuzio gastuen kenkaria egiteko proposamenak; entitate lotuen artean kudeaketarako laguntza zerbitzuen gastuen kenkaria egiteko proposamenak; eta Zergaren Foru Arauak 21. artikuluan xedatutakoaren arabera subkapitalizazio koefiziente bat aplikatzeko proposamenak.

V. kapituluak, ordea, Zergaren Foru Arauak 20. artikuluen 2 apartatuan jasotako erregelamenduzko garapena jasotzen da, sortzapenaz bestelako sarrera eta gastuak denboran zehar egozteko irizpideen efikazia fiskalari buruz.

VI. kapituluak, Zergaren Foru Arauak 22. artikuluen 2 apartatuan berrinbertsioko plan bereziak onartzeko prozedurari buruz jasotako aurreikuspena garatzeaz gain, aparteko irabaziak oinarri ezargarrian gerora sartzeko arau batzuk ematen dira.

Oinarri ezargarria eta likidagarria zehazteko kapituluekin amaitzeko, VII. kapituluak finkatzen da nola eskatu behar den oinarri ezargarrian enpresa berrien kenkaria egiteko, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 26. artikuluan jasotakoaren arabera.

Argitu behar da Foru Dekretuko XIII. kapituluak eskaera eta proposamenak tramitatu eta onartzeko prozedura orokor bat jasota dagoela. Hain zuzen, prozedura hori behin eta berriz aipatzen da Sozietateen gaineko Zergaren Foru

Arauak eta hori garatzen duen foru dekretu honek jasotako eskaera eta proposamenak ebazteko prozedurak arautzen duten kapituluetan. Horrek berarekin dakar XIII. kapituluan jasotako prozedurara jo beharra Zergaren Foru Arauak eskaerak tramitatu eta ebazteko prozedura batera bidaltzen duenean, gai bakoitza arautu edo garatzen duen kapituluan gai horri buruz ezarritako prozedurazko berezitasunak espezialitateak eragotzi gabe.

Foru dekretu honen edukia gehiago aztertuz gero esan behar da VIII. kapituluan garatzen direla Zergaren Foru Arauan jasotako kenkari batzuen aplikazioaren xehetasun batzuk.

IX.etik XII. kapitulura bitartean, Zergaren Foru Arauaren VIII. tituluan jasotako erregimen bereziei buruzko alderdiak garatzen dira. Zehazkiago, hemen garatutako erregimen bereziak hauexei buruzkoak dira:

- enpresa txikiak eta ertainak
- zuzendaritza, koordinazio eta finantzaketa zentroak
- enpresak sustatzeko sozietateak
- gardentasun fiskala, sozietate taldeak eta
- enpresen bategite eta bereizteak, aktiboen ekarpenak, baloreen trukeak eta aktibo eta pasibo osoaren lagapenak.

XIV. kapituluan, berriz, Zergaren Foru Arauak 120.2 eta 129.5 artikuluetan jasotakoa garatzen da, entitateen aurkibideari eta ofiziozko itzulketari buruz.

Azkenik, XV. kapituluan, Zergaren Foru Arauak 130. artikuluan jasotako erregulazioa garatuta dago, atxikitzeko eta kontura ordaintzeko betebeharrari buruz.

Bestalde, xedapen gehigarrietan jasota daude Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordaindu behar duten jarduera enpresarial edo profesionaletan etekina zehazteko arauak, zehazkiago honako hauek: ondare gehikuntzen kalkulua, aparteko irabazien berrinbertsioa nahiz diru sarrera eta gastuen egozpen tenporalak.

Xedapen iragankorreiei buruz azpimarratu behar da horietako gehienetan epe batzuk jasota daudela Sozietateen Zergaren Foru Arauan sartutako plan edo proposamenak eskatzeko, aipatu foru araua indarrean jarri denetik aurrera plan edo proposamen horiek aplikatu edo onartzeko eta, halaber, aipatu foru araua aplikagarria den ekitaldietarako.

Azkenik, amaierako xedapenean Erregelamendua noiz jarriko den indarrean finkatzen da. Gainera ere, xedapen horretan ezarritakoaren arabera, Erregelamenduan jasotako arauak Sozietateen gaineko Zergaren Foru Araua aplikagarri duten zergaldietan aplikatuko dira, salbu atxikipenei eta konturako ordainketei buruzko gaietan. Halaber, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuari ahalmen jakin batzuk ematen zaizkio Sozietateen gaineko Zergaren kudeaketari dagokionez.

Horiek horrela, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuaren proposamenez, Diputatu Kontseiluak 1997ko .ekainaren 10eko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT:

I. kapitulua: Amortizazioak

1. artikulua.¹ Ibilgetuaren ondare elementuak eta inbertsio inmobiliarioak amortizatzea.

1. Zergaren foru arauak 11. artikuluko 2. apartatuaren a) letran aipatutako amortizazio koefiziente eta metodoak aplikatzeko, ondoko kasuetan hartuko da efektibotzat ibilgetu materialaren eta inbertsio inmobiliarioen balio-galera:

a) Zergaren foru araua aldatzen duen abenduaren 30eko Zerga alorreko Presazko 3/2005 Foru Dekretu Arauak xedapen iragankor bakarrean azaldutako amortizazio koefizienteak aplikatzearen emaitza.

b) Amortizatzeko dagoen balioaren gainean portzentaje konstantea aplikatzearen emaitza.

Portzentaje konstantea kalkulatzeko, aurreko a) letrako amortizazio taulan aipatutako amortizazio alditik aurrera lortu den amortizazio lineala ponderatu behar da ondoko koefiziente hauekin:

a') 1,5, elementuaren amortizazio-aldia bost urtetik beherakoa bada.

b') 2, elementuaren amortizazio-aldia bost urtekoa edo handiagoa eta zortzitik beherakoa bada.

c') 2,5, elementuaren amortizazio-aldia zortzi urtekoa edo handiagoa bada.

Ekitaldia itxi aurretik amortizatzeko dagoen saldoa kuota lineal baten zenbatekoa baino txikiagoa denean, saldo hori ekitaldi horretan amortizatu ahal izango da.

Lehendik erabilia erosi diren eraikin, altzari, tresneria eta ondasunekin ezingo da erabili portzentaje konstante bidezko amortizazioa.

c) Zenbaki digituen metodoa erabiltzearen emaitza.

Digituen batura aurreko a) letrako amortizazio taulako amortizazio aldiaren arabera zehaztuko da.

Lehendik erabilia erosi diren eraikin, altzari, tresneria eta ondasunekin ezingo da erabili zenbaki digituen bidezko amortizazioa.

¹ Artikulu hau Abenduaren 23ko 85/2008 Foru Dekretuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua amortizazioen, enplegu sorrerako kenkariaren eta kontabilitate plan berriak lehen aldiz aplikatzeko doiketen zerga erregimenaren alorrean aldatzen du, Aldaketa abenduaren 31an jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2008-12-31ko GAO).

Metodo hau erabiltzeak ez du ekarriko amortizazio kuotak gero eta handiagoak izatea.

2. Zergaren foru arauaren 11. artikuluko 3. apartatuan aipatutako amortizazioari buruzko erregela bereziak hauexek dira:

a) Lehendik erabilia erosi diren ibilgetu materialaren elementuak direnean - eraikinak izan ezik-, zergetan kendu daitekeen amortizazioa kalkulatzeko, gehieneko koefizienteak aurreko 1. apartatuko a) letrako amortizazio taulako koefizienteen bikoitzaren mugaraino erabili behar dira, bai eta gehieneko aldia erdiraino murriztu ere; murrizpena goitik egin behar da: Urte osoak zenbatuko dira.

b) Ibilgetu materialaren elementu bat egunero ohiko lan txanda batean baino gehiagotan erabiltzen denean, gutxieneko amortizazio koefizientei ondoko kopurua gehitu ahal izango zaie: Aurreko 1 apartatuko a) letrako amortizazio taulan lortutako gehieneko eta gutxieneko koefizienteen arteko diferentzia eta ohiz lan egindako eguneko orduak zortzi ordukin zatituz ateratzen den zatidura elkarrekin biderkatuz lortutako kopurua. Horrela ateratzen den emaitza kasu honetan onartu daitekeen gehieneko amortizazio koefizientea izango da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ezingo da erabili eraikinetan, garraioaren elementuetan, merkataritzako altzari eta instalazioetan nahiz informatikako ekipoen.

c) Arauzko xedapenen bidez balio eguneratua daukaten aktibo ez-korronteko elementuen amortizazioa haietan jasotako irizpideei jarraiki arautuko da.

3. Erosketa prezioa edo produkzio kostua amortizatu ahal izango da hondar-balioa kanpoan utzita, halakorik bada. Eraikuntzak direnean, lurzoruaren balioari dagokion erosketa prezioaren zatia ezin izango da amortizatu, birgaikuntza kostuak izan ezik, hala badagokio. Lurzoruaren balioa ez bada ezagutzen, erosketa prezioa erosketaren urteko lurzoruaren eta eraikuntzaren balio katastralen artean hainbanatuz kalkulatu da.

4. Amortizazioa elementuz elementu egingo da. Aitzitik, ondare elementu baten zatiak modu independentean amortiza daitezke, baldin eta zati bakoitzak kostu esanguratsua badu elementuaren kostu osoari dagokionez, eta zatiaren erabilgarritasun aldia eta elementuaren gainerako zatiarena desberdinak badira.

Antzeko izaera duten edo erabilera maila antzekoa duten elementuak direnean, amortizazioa elementuen multzo osoaren gainean egin daiteke, betiere jakin badaiteke ondare elementu bakoitzari dagokion amortizazio metatuaren zatia zein den.

Instalazio teknikoak amortizazio elementu bakarra izan daitezke.

5. Ondare elementuak erabilgarritasun aldiaren barruan amortizatu beharko dira. Halakotzat hartuko da, amortizazio metodoaren arabera, elementuen balioa erabat ordainduta geratu behar den aldia, hondarrezko balioa kanpoan utzita. Konponketa handiek dakartzaten kostuak konponketa egin arte igarotzen den denboraldian amortizatuko dira.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, itzuli beharreko aktiboak izanik, haien erabilgarritasun aldia emakida aldia baino luzeagoa delako, amortizazio kengarriaren urteko gehieneko muga kalkulatzeko orduan, emakida aldia hartuko da kontuan. Errentamendu operatiboetan, erabileran laga den edo errentatu den aktibotik bereizi ezin daitezkeen errentariaren inbertsioen kasuan, amortizazio kengarriaren urteko gehieneko muga kalkulatzeko orduan, errentamendu edo lagapen kontratuaren iraupena hartuko da kontuan, berriztapen aldia barne, hala badagokio, azken hori erabilgarritasun aldia baino laburragoa denean.

Amortizazioa egiterakoan artikuluko honen 1. apartatuko a) letran jasotako taulako koefizienteak erabiltzen direnean, erabilgarritasun aldia ez da handiagoa izango taula horretan finkatutako gehieneko amortizazio aldia baino.

6. Ibilgetu materialaren eta inbertsio inmobiliarioen ondare elementuen berrikuntzak, zabalkuntzak edo hobekuntzak ibilgetu edo inbertsio horretan sartzen direnean, haien zenbatekoa amortizatuta geratu da ondare elementuen erabilgarritasun aldia osatzeko geratzen diren zergaldietan zehar. Horretarako, zergaldi bakoitzari ondorengo emaitza egotziko zaio: Ondare elementuan zergaldi bakoitzean kontabilizatutako amortizazioa, balio galera efektiboarekin bat datorren neurrian, berrikuntza, zabalkuntza edo hobekuntza eragiketak egin diren zergaldiaren hasieran ondare elementu horrek zeukan kontabilitate balioarekin zatituz lortutako portzentajea aipatu zenbatekoari aplikatuz ateratzen den emaitza.

Berrikuntza, zabalkuntza edo hobekuntza izan duten ondare elementuak, era berean, eragiketa horiek egin aurretik erabilitako metodoaren arabera amortizatzen jarraituko dira.

Aurreko paragrafoan aipatutako eragiketak direla-eta aktiboaren erabilgarritasun aldia luzatzen denean, erabilgarritasun aldi berria kontuan hartu beharko da ondare elementuaren amortizazioa eta berrikuntza, zabalkuntza edo hobekuntza-zenbatekoaren amortizazioa egiteko.

Kontabilitate birbalorazioak gertatzen direnean apartatu honetan xedatutakoa aplikatuko da, baldin eta haien zenbatekoa kontabilitate emaitzan sartzera derrigortzen duten lege edo erregelamenduen arabera egin badira.

7. Ondare elementu berari ezingo zaizkio aplikatu aldi berean eta jarraian amortizazio metodo desberdinak.

8. Artikulu honen 1 apartatuko c) letran jasotako amortizazio metodoa aukeratzen denean, arau hauek erabiliko dira:

a) Digituen batura ondare elementua amortizatu behar den urteei emandako balio numerikoak batuz lortuko da.

Horretarako, ondare elementuaren amortizazio aldiaren berdina den balio numerikoa emango da, urtetan adierazita, funtzionamenduan jarri eta urtebetera. Ondorengo urteetarako, berriz, elkarren segidan unitatez unitate murrizten doazen balio numerikoak emango dira, amortizazioaren azken urtera iritsi arte. Azken horrek unitatearen balio numerikoa izango du.

Amortizazio alditzat har daiteke gehieneko amortizazio alditik artikuluko honen 1. apartatuko a) letran aipatutako amortizazio taularen arabera gehieneko

amortizazio koefizientetik eratortzen den amortizazio aldira doazen aldietako edozein, biak barne.

b) Zatiketa hau egingo da: Eskuraketa prezioa edo ekoizpen kostua zati aurreko letran ezarritakoaren arabera kalkulaturako digitu-batura. Emaitzako kopurua digituko kuota izango da.

c) Digitu bakoitzeko kuota zergaldiari dagokion balio numerikoarekin biderkatuko da.

9. Erregularizazio edo egunerapenari buruzko xedapenetan jasotakoaren arabera eguneratu diren elementuen amortizazioari buruzko arauak, 1996ko urtarrilaren 1a baino lehen onartuak, elementu horien erabilgarritasun aldia amaitu bitartean aplikatzen jarraituko dira.

Modu berean jokatu da abenduaren 26ko 76/1980 Legearen babesean birbaltzatutako ondare elementuekin.

10. Entitateak bat egin, erabat edo zati batean bereizi, kapital ekarpena egin eta aktibo eta pasiboa osorik lagatzen denean, lehendik zeukan amortizazio erregimena gorde beharko da ondare elementu bakoitzerako, salbu subjektu pasiboak horiekin amortizazio sistema propioa erabili nahi badu. Azken horretarako, amortizazio plana aurkeztu beharko du ondorengo 2. artikuluan jasotakoari jarraikiz.

2. artikulua. Amortizazio planak.

1. Sujetu pasiboek amortizazio plan bat onar dezan eskatu ahal izango diote Zerga Administrazioari, foru dekretu honek 48. artikuluan jasotako prozedura orokorrean jasotakoaren arabera, artikulua honetan finkatutako berezitasunak kontuan hartuz.

2. Sujetuak datu hauek sartu beharko ditu eskaeran:

a) Amortizazioko plan berezian sartu nahi diren ondare elementuen azalpena. Zer jarduerari dauden lotuta eta non dauden kokatuta adieraziko da.

b) Sujetuak proposatutako amortizazio metodoa. Metodo horren arabera amortizazioak denboran zehar nola banatuko diren adieraziko da.

c) Sujetuak proposatutako amortizazio metodoaren justifikazioa.

d) Ondare elementuen erosketa prezioa edo produkzio kostua.

e) Ondare elementuak funtzionatzeko moduan jartzeko eguna.

Oraindik eraikitzen ari diren ondare elementuak badira, bere ustez funtzionatzeko moduan noiz jarriko den adieraziko da.

3. Eskaera ondare elementuen eraikuntzaldiaren barruan aurkeztuko da edo, bestela, funtzionatzeko moduan jarri ondorengo hiru hilabeteen barruan.

4. Sujetuak eskatuta, berari onartutako amortizazio planak aldatu ahal izango dira, aurreko apartatuetan jasotako arauak betez. Aldaketak ondorioa izango duen zergaldiaren lehen hiru hilabeteetan aurkeztu beharko da eskaera hori.

3. artikulua. Amortizazio askatasuna.

1. Amortizazio askatasuna aplikagarria zaien ondare elementuak funtzionamenduan jartzen diren egunetik aurrera eta horien erabilgarritasun aldian zehar gauzatu ahal izango da. Erabilgarritasunaldi moduan ulertuko da aurreko 1. artikulua 2 apartatua hala definitu dena.

2. Ibilgetuaren elementuen erosketa eguna edozein izanik ere, Zergaren Foru Arauak 11.4.a) artikuluan araututako amortizazio askatasuna gauzatu ahal izango da.

3. Zergaren Foru Arauak 11. artikulua 4 apartatuko g) eta h) letretan aipatutako amortizazio askatasunaren aplikazioa foru dekretu honek 48. artikuluan jasotako prozedura orokorraren arabera eskatu beharko da, ondoko berezitasunak kontuan hartuz:

A) Sujetu pasiboak eskaera bat aurkeztuko dio Zerga Administrazioari, datu hauek sartuz:

a) Ondare elementuen azalpena, zein jarduerari dauden atxikita eta non dauden kokatuta.

b) Enpresaren jardueraren eragin kutsagarria murrizteari eta zuzentzeari atxiki izanaren justifikazioa, lehenago aipatutako g) letretan jasota dauden elementuak direnean.

c) Euskal Autonomi Elkarteko organismoen ebazpena, lurzoru kutsatuak garbitzeko proiektu bat onartuz. Lehenago aipatutako h) letretan jasota dauden elementuak proiektuarekin zuzenean lotu izanaren justifikazioa.

d) Ondare elementuen erosketa prezioa edo produkzio kostua.

e) Ondare elementuak lehenago aipatutako g) eta h) letretan jasota dauden jarduerari atxiki zaizkien eguna.

B) Eskaera ondare elementuen eraikuntzaldiaren barruan aurkeztuko da edo, bestela, aipatu jarduerari atxiki ondorengo hiru hilabeteen barruan.

4. Zergaren Foru Arauak 45. artikulua 2 apartatuko 1 zenbakian aipatutako amortizazio askatasuna aplikatzeko, foru dekretu honek 36. artikuluan jasotakoa beteko da.

II. kapitula: Ingurumen alorreko jarduketei dagozkien gastuen planak²

4. artikulua. Ingurumen alorreko jarduketei dagozkien gastuen planak.

² Kapitulua hau Uztailaren 28ko 26/2009 Foru Dekretuaren 1. artikulua aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen du. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Aldaketa hau 2009ko urtarilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2009-08-11ko GAO).

1. Subjektu pasiboek Zerga Administrazioari eskatu diezaioke zergaren foru arauak 13.2 artikuluan jasotako ingurumen jarduketetako gastuen plan bat onar dezala.

Erregelamendu honek 48. artikuluan jasotako prozedura orokorrari jarraituz eskatu behar da onarpena, betiere ondorengo apartatuetan araututako berezitasunak kontuan hartuta.

2. Hona hemen eskaerak jaso beharreko datuak:

a) Subjektu pasiboak ingurumenaren gaineko kalteak prebenitu edo konpontzeko beretzat hartutako obligazioen edo konpromisoen deskripzioa.

b) Jarduketaren beharraren deskripzio teknikoa eta justifikazioa.

c) Ingurumen alorreko jarduketako gastuen gutxi gorabeherako zenbatekoa, eta horren justifikazioa.

c) Ingurumen jarduketako gastuen gutxi gorabeherako zenbatekoa denboraren arabera egozteko irizpidea, eta horren justifikazioa.

e) Ingurumen alorreko jarduketa hasteko data.

3. Eskaera aurkeztu behar da ingurumen alorreko jarduketa egiteko obligazioa edo konpromisoa sortu ondorengo hiru hilabeteetan barruan.

4. Subjektu pasiboak eskatuta aldatu daitezke ingurumen alorreko jarduketetako gastuen plan onartuak, betiere artikulua honetako aurreko apartatuetan jasotako arauak beteta. Eskaera hori aurkeztu behar da aldaketak ondorioa izan behar duen zergaldiko lehen hiru hilabeteen barruan.

III. kapituluak: Fondo propioetako partaidetzaren baloreen erorsketa³

5. artikulua. Informatzeko obligazioak.

Zergaren foru arauak 12. artikuluan 8. apartatuan jasotakoaren ondorioetarako, subjektu pasiboek ondorengo informazioa aurkeztu beharko dute, apartatu horretan jasotako kenkaria egiten duten ekitaldietako Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioekin batera:

a) Zuzenean partaidetutako entitateari dagokionez:

1.- Identifikazioa eta partaidetza portzentajea.

2.- Jardueren deskripzioa.

³ III. Kapitulua hau Uztailaren 28ko 26/2009 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen du. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Aldaketa hau 2009ko urtarilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2008-12-31ko GAO).

3.- Partaidetzen erosketa prezioa eta data, bai eta haien kontabilitate ondare garbiaren balioa ere, urteko kontu homogeneizatuen bidez zehaztuta.

4.- Justifikatzea bai balorazio eta denbora homogeneizaziorako irizpideak eta bai entitate partaidetuaren ondasun eta eskubideei egindako egozpenaren irizpideak, haren partaidetzen erosketa-prezioaren eta horien erosketa-datan egoztekoa zaien kontabilitate ondare garbiaren arteko diferentziari dagokionez.

b) Partaidetzak erosten zaizkion entitateak aldi berean beste batean parte hartzen duenean, zergaren foru arauak 12. artikulua 8 apartatuko hirugarren paragrafoan jasotakoaren zentzuan:

1.- Zuzenean partaidetutako entitatearen identifikazioa, horretako partaidetza portzentajea eta bere jardueren deskripzioa.

2.- Zeharka partaidetutako entitateen identifikazioa, horietako zeharkako partaidetza portzentajea eta beren jardueren deskripzioa.

3.- Partaidetzen erosketa balioa eta data, bai eta haien kontabilitate ondare garbiaren balioa ere. Hori zehazteko, erabili behar dira Merkataritza Kodean eta hori garatzeko arauetan jasotako irizpideen arabera prestatutako urteko kontu kontsolidatuak, betiere horiek behar bezala homegeneizatuta.

4.- Justifikatzea bai balorazio eta denbora homogeneizaziorako irizpideak eta bai entitate partaidetuaren ondasun eta eskubideei egindako egozpenaren irizpideak, haien partaidetzen erosketa-prezioaren eta horien erosketa-datan egoztekoa zaien kontabilitate ondare garbia kontsolidatuaren arteko diferentziari dagokionez.

c) Lurralde espainiarrean egoiliar ez diren entitateetako partaidetzak erostean egin den eta zergaren foru arauaren hogeita seigarren xedapen iragankorrean jasotako kenkari oinarrian sartuta dagoen inbertsioaren zenbatekoa.

III.bis kapitulua. (indargabetua)⁴

IV. kapitulua: Merkatuko balio normalaren zehaztapena eta dokumentazio obligazioak, eragiketa lotuetan eta paradisu fiskaletan egoiliar diren pertsona edo entitateekin egindako eragiketeta⁵

1. sekzioa. Eragiketa lotuen merkatuko balio normala zehaztea.

⁴ III.bis Kapitulu hau Uztailaren 28ko 26/2009 Foru Dekretuaren 3. artikulua indargabetu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen du. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Aldaketa hau 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2009-08-11ko GAO).

⁵ IV. Kapitulu hau Uztailaren 28ko 26/2009 Foru Dekretuaren 4. artikulua aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen du. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Aldaketa hau 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2009-08-11ko GAO).

6. artikulua. Konparagarritasun azterketa.

1. Zergaren foru arauak 16. artikulua 1. apartatuan zehazten duen legez, merkatuko balio normala da pertsona edo entitate independenteek lehia librean adosten dutena. Bada, merkatuko balio normal hori zehazteko, konparatu egingo dira, batetik, eragiketa lotuen zirkunstantziak, eta, bestetik, eragiketa horiekin parekagarriak diren pertsona edo entitate independenteen arteko eragiketen zirkunstantziak.

2. Bi eragiketa edo gehiago parekagarriak diren ala ez diren zehazteko, jarraian aipatuko diren datuak hartuko dira kontuan, baldin eta datuok garrantzitsuak badira eta zergapekoak zentzuzko modu batean eskura izan baditu. Hona hemen datuak:

a) Eragiketa lotuen xede diren ondasunen edo zerbitzuen ezaugarri espezifikoak.

b) Aztertzen diren eragiketei dagokienez, alderdiek euren gain hartzen dituzten egingizunak; onartzen dituzten arriskuak identifikatuko dira eta, hala badagokio, erabili dituzten aktiboak haztatuko dira.

c) Eragiketaren sorburu diren kontratu-baldintzak, kontuan hartuta alderdi kontratatzaile bakoitzak bere gain hartzen dituen erantzukizunak, arriskuak eta onurak kontuan hartuz.

d) Ondasunak ematen diren edo zerbitzuak eskaintzen diren merkatuen ezaugarriak, edo eragiketa lotuetan eragina izan dezaketen gainerako faktore ekonomikoak.

e) Kasu bakoitzean garrantzitsuak diren gainerako inguruabar guztiak, esaterako, merkataritzako estrategiak.

Enpresa independenteen eragiketa bateragarriei buruzko daturik ez badago edo erabilgarri dauden datuen fidagarritasuna mugatua bada, zergapekoak dokumentatu beharko ditu zirkunstantzia horiek.

Arestian adierazi diren zirkunstantzietako bat ez bada kontuan hartu zergapekoak ez duelako garrantzitsutzat jotzen; orduan, berariaz aipatu beharko da zirkunstantzia hori zergatik utzi den azterketatik kanpo.

Beti adierazi behar dira konparaziorako kontuan hartu behar diren elementuak, barnekoak zein kanpokoak.

3. Zergapekoak egiten dituen eragiketa lotuen arteko lotura zuzen-zuzena bada edo eragiketok modu jarraituan egin badira (eta, ondorioz, eragiketon balorazio independentea ez bada egokia), artikulua honetako aurreko apartatuan zehazten den azterketa, hau da, konparagarritasunaren azterketa eragiketa horiek guztiak kontuan hartuz egingo da.

4. Eragiketa bi edo gehiago parekagarriak dira, baldin eta haien artean ez badago alde esanguratsurik aurreko 2. apartatuan zehazten diren zirkunstantziei dagokienez eta aldeok ez badute eraginik ondasunaren edo zerbitzuaren prezioan edo eragiketaren marjinan; edo aldeak egonik ere, alde horiek ezabatu egin badaitezke egin beharreko zuzenketak eginez.

Arestian deskribatu den konparagarritasunaren azterketa erregelamendu honen 11. artikuluan aipatzen den dokumentazioaren barruan dago, eta artikuluko horretako 1. apartatuko b) letran ezartzen den betekizuna betetzen du.

5. Konparagarritasunaren azterketa eta eragiketa parekagarriei buruzko informazioa dira balorazio-metodirik egokiena aukeratzeko balioko duten faktoreak, zergaren foru arauak 16.4 artikuluan zehazten denaren arabera.

6. Zergaren foru arauak 16.4 artikuluan paragrafoan ezartzen dena betetzeko, zergapekoak kontuan har dezake hitzartutako balioa eta merkatuko balio normala bat datozela, baldin eta bazkide-profesional batek —pertsona fisikoa bada— entitate lotu bati egindako zerbitzu-ematea bada eta honako betekizun hauek betetzen badira:

a) Entitateak zergaren foru arauak 49.1 artikuluan aurrez ikusten diren entitateetako bat izan behar du; entitate horren ekitaldiko sarreraren %75 baino gehiagok jarduera profesionalak betetzetik etorri behar dute; entitateak bitarteko material zein giza baliabide egokiak izan behar ditu eta, azkenik, positiboa izan behar du bazkide-profesional guztiei zerbitzuak emateagatik dagozkien ordainsariak direla-eta egiten den kenkariaren aurre-aurreko ekitaldiko emaitzak.

b) Bazkide-profesional guztiek entitateari emandako zerbitzuei dagozkien ordainsarien zenbatekoak ez du izan behar a) letran aipatzen den emaitzaren, hau da, aurre-aurreko ekitaldiko emaitzaren %85 baino txikiagoa.

c) Bazkide-profesional bakoitzari dagozkion ordainsarien zenbatekoak honako betekizun hauek bete behar ditu.

1.- Zenbateko hori bazkideek sozietateak ondo funtziona dezan egiten duten ekarpenaren arabera zehaztuko da, eta horretarako aplikatuko diren irizpide kualitatibo eta/edo kuantitatiboek idatziz jaso behar dira nahitaez.

2.- Entitateko bazkide-profesionalen ordainsarien zenbatekoak ez du izan behar entitatean bertan antzeko eginkizunak, dedikazio baliokidearekin, betetzen dituzten soldatapeko langileen batez besteko soldata baino txikiagoa. Mota horretako bazkiderik ez badago, lanaldi osoko dedikazioa duten bazkideen ordainsarien zenbatekoak ezin du izan abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 16. artikuluan aipatzen den zenbatekoa baino bi aldiz handiagoa; lanaldia beste bat bada, muga hori lanaldiaren proportzioan egongo da.

Nahiz eta bazkide-profesionalak 2. zenbaki honetan ezartzen den baldintza bete ez, gainerako bazkide-profesionalak paragrafo honetan zehazten dena aplikatu ahalko zaie.

Apartatua honetan jasotzen diren irizpideak kasu batean bakarrik aplikatuko dira: zergapekoak apartatuan bertan ezartzen dena aplikatzea erabakitzen duenean.

7. artikulua. Pertsona edo entitate lotuek kostuak banatzeko elkarrekin izenpetutako akordioek betekizunak.

Zergaren foru arauaren 16.6 artikuluan zehazten dena betetzeko, zergapekoak ondasunen eta zerbitzuen kostuak banatzeko izenpetzen dituen akordioetan honako datu hauek jaso behar dira: akordioan parte hartzen duten gainerako

pertsona edo entitateen identifikazioa, foru dekretu honen 11. artikuluko 1. apartatuaren a) letran ezartzen den moduan; akordioetan sartzen diren jarduera eta proiektu espezifikoaren eremua; akordioaren iraupena; lortuko diren mozkinak partaideen artean nola banatu kuantifikatzeko irizpideak; partaide bakoitzaren ekarpena kalkulatzeko era; partaideen eginkizunen eta erantzukizunen zehaztapena; partaideak atxikitzearen edo alde egitearen ondorioak, bai eta zirkunstantzia ekonomikoetan gertatutako aldaketak islatzeko, akordioaren baldintzak egokitu beharra aurrez ikusten duten xedapen guztiak.

8. artikulua. Eragiketa lotuen hitzartutako balioaren eta merkatuko balio normalaren arteko aldeak.

Zergaren foru arauak 16.8 artikuluan ezartzen denari dagokionez, lotura bazkide edo partaideek entitatearekin duten harremanaren arabera definitzen den kasuetan, alde horrek honako tratamendu hau jasoko du, kontrakorik frogatzen ez bada.

a) Aldea bazkidearen edo partaidearen aldekoa denean, entitatearentzat, bazkide edo partaide horrek entitatean duen partaidetza-portzentajearekin bat datorren aldearen zatia fondo propioen ordainsaria izango da, eta bazkidearentzat, berriz, entitateen mozkinen gaineko partaidetza, berriz.

Bestalde, bazkide edo partaideak entitatean duen partaidetza-portzentajeari ez dagokion zatia fondo propioen ordainsaria izango da entitatearentzat. Bazkide edo partaidearentzat, berriz, entitate baten bazkide, akziodun, asoziatu edo partaide izateagatik entitate hartatik jasotako onura izango da, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren 36. artikuluko 1. apartatuaren d) letran ezartzen denaren arabera.

b) Aldea entitatearen aldekoa denean, bazkide edo partaide horrek entitatean duen partaidetza-portzentajearekin bat datorren aldearen zatia bazkide edo partaideak entitatearen fondo propioetara egindako ekarpena izango da, eta bazkide edo partaidearen partaidetzaren eskurapen balioa handituko da.

Bazkide edo partaideak entitatean duen partaidetza-portzentajearekin bat ez datorren aldearen zatia errenta izango da entitatearentzat, eta liberalitatea, berriz, bazkide edo partaidearentzat. Establezimendu iraunkorrik ez duten Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunak badira, errenta hori ondare-irabazitzat joko da, Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren apirilaren 26ko 2/1999 Foru Arauaren 12. artikuluko 2. apartatuaren k) letrako d') letraren arabera.

2. sekzioa. Dokumentazio obligazioak, pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketetan eta egoitza paradisu fiskaletan duten pertsona edo entitateekin egiten diren eragiketetan.

9. artikulua.- Dokumentazio obligazioak, pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketetan.⁶

⁶ Artikulu hau Azaroaren 23ko 33/2010 Foru Dekretuaren artikulua bakarraren lehen apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen duena eragiketa lotuak dokumentatzeko obligazioei dagokienez. Foru

1. Zergaren foru arauak 16.2 artikuluan xedatutakoa betetzearen ondorioetarako, eta pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketen merkatuko balioa zehazteko, zergapekoak artikulua honetan eta 10. eta 11. artikuluetan ezartzen den dokumentazioa aurkeztu beharko du, Zerga Administrazioak eskatuz gero. Zergaren autolikidazioa borondatez aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera jarri beharko da dokumentazio hori zerga Administrazioaren esku.

Obligazio hori ezartzen da albo batera utzi gabe Zerga Administrazioak beti izango duela ahalmena bere eginkizunak betetze aldera egoki jotzen duen dokumentazio edo informazio osagarria eskatzeko, hala jasotzen baita martxoaren 8ko 2/2005 Forua Arauan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean, eta berau garatzen duen araudian.

2. Artikulu honetan eta 10. eta 11. artikuluetan aipatzen den dokumentazioa prestatzen denean, eragiketen konplexutasuna eta bolumena hartu beharko dira kontuan, Administrazioak egiaztatu behar baitu eragiketak zergaren foru arauak 16. artikuluan ezarritakoari jarraiki baloratu direla. Dokumentazioa prestatzean, zergapekoak zilegi izango du beste xede batzuetarako duen informazioa erabiltzea, esanguratsua bada. Honako dokumentazioa izango da:

a) Zergapekoaren taldeari buruzko dokumentazioa. Ondorio horietarako, taldetzat hartuko da zergaren foru arauak 16.3 artikuluan ezarritakoa eta, orobat, entitate egoiliar edo ez-egoiliar batek eta hark atzerrian edo Espainiako lurraldean dituen establezimendu iraunkorrek osatutakoa.

Taldea zergaren foru arauak 16.3 artikuluan aipatutakoaren arabera eratu bada, entitate nagusiak berak presta eta gorde dezake talde osoari dagokion dokumentazioa. Entitate nagusia ez badago Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren menpe, foru arau horren menpe dagoen entitate bat izendatu beharko du dokumentazioa gordetzeko.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, Zerga Administrazioak eskatuz gero, zergapekoak bere taldeari buruzko dokumentazio osoa eta egiazkoa aurkeztu beharko dio epe barruan.

b) Zergapekoari buruzko dokumentazioa.

3. Pertsona fisikoei eta zergaren foru arauaren 49. artikuluko enpresa txikiei ez zaie exijituko artikulua honetan eta 10. eta 11. artikuluetan aipatzen den dokumentazioa, pertsona edo entitate lotuekin zergaldian egin dituzten eragiketa guztien merkatuko balioa 100.000 eurokoa baino handiagoa ez bada. Alabaina, eragiketak egin badira erregelamenduz paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde batean egoitza duten pertsona edo entitate lotuekin, beti dokumentatu beharko dira, salbu eta pertsona edo entitate horien egoitza Europar Batasuneko estatu kide batean dagoenean eta subjektu pasiboak frogatzen duenean eragiketak egiteko arrazoi ekonomiko baliodunak izan direla eta pertsona edo entitate horiek jarduera ekonomikoak egiten dituztela.

4. Orobat, artikulua honetan eta 10. eta 11. artikuluetan aipatzen den dokumentazioa ez da exijituko honako eragiketa lotuak egiten direnean:

a) Bateratze fiskaleko talde berean dauden entitateen arteko eragiketak, baldin eta talde horrek zergaren foru arauaren VIII. tituluko IX. kapituluaren arabera arautzen den arabera hautatu badu.

b) Interes ekonomikoko taldeek, interes ekonomikoko taldeei buruzko apirilaren 29ko 12/1991 Legearen arabera, euren kideekin nahiz bateratze fiskaleko talde bereko beste entitate batzuekin (talde horrek VIII. tituluko IX. kapituluaren arabera aukeratuta) egindako eragiketak, eta aldi baterako enpresa batasunak euren kideekin nahiz aipatutako entitate horiekin egindako eragiketak. Azken horien kasuan, ezinbestekoa da aldi baterako enpresa batasunak maiatzaren 26ko 18/1982 Legearen arabera izatea eta dagokion erregistro berezian inskribatuta egotea (18/1982 Legea, enpresa taldeen, aldi baterako enpresa batasunen eta eskualdeko industria garapenerako sozietateen zerga araubideari buruzkoa).

c) Baloreak saltzeko edo erosteko eskaintza publikoen esparruan egindako eragiketak.

d) Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek egindakoak, establezimendu iraunkorrik gabe jarduten dutenean.

e) Kreditu entitateek egindako eragiketak, baldin eta entitate horiek Espainiako Bankuak onartutako babes sistema instituzional batean integratuta badaude, eta eragiketa horiek egiten badira maiatzaren 25eko 13/1985 Legeak, Inbertsio Koefizientei, Baliabide Propioei eta Finantza Bitartekarien Informazio Obligazioei buruzkoak, 8. artikuluan 3. apartatuko d) letran ezarritako beharrezkoak babes sistema instituzionalak betetzeko.

f) Pertsona edo entitate lotu berdinarekin zergaldiaren barruan egindako eragiketak, baldin eta haien kontraprestazio osoaren merkatuko balioa 600.000 eurokoa baino handiagoa ez bada. Konputu horretatik kanpo geratzen dira letra honetako hurrengo a'), b'), c') eta d') letratan aipatzen diren eragiketak.

Ondorengo kasuetan ez da aplikatuko f) letra honetan xedatutakoa:

a') Eragiketak erregelamenduz paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde batean egoitza duten pertsona edo entitate lotuekin egin direnean, salbu eta pertsona edo entitate horien egoitza Europar Batasuneko estatu kide batean dagoenean eta subjektu pasiboak frogatzen duenean eragiketak egiteko arrazoi ekonomiko baliodunak izan direla eta pertsona edo entitate horiek jardura ekonomikoak egiten dituztela.

b') Eragiketak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek euren jardura ekonomikoaren barruan, eta zenbatespen objektiboaren metodoa aplikatuta, sozietateekin egindakoak direnean, baldin eta sozietate horietan beraiek, ezkontideek, maiatzaren 27ko 2/2003 Legearen arabera osatutako izatezko bikote-lagunek, edo aurreko zein ondorengo ahaideek, banaka edo horiek guztiak batera, kapital sozialean edo fondo propioetan duten portzentajea %100 edo handiagoa bada.

c') Eragiketaren xedea honako hauek eskualdatzea denean: negozioak edo, bestela, edozein motatako entitateen fondo propioetan parte hartzea adierazten duten balore edo partaidetzak, 2004/39/EE Zuzentarauan definitutako balore merkatu araututako batean negoziatzeko onartu gabeak.

d') Ondasun higiezinak eskualdatzen direnean edo eragiketak kontabilitate irizpideen arabera ukiezinak diren aktiboekin egiten direnean.

5. Zergapekoari aplikaziozkoa gertatzen bazaio foru dekretu honen 6. artikuluko 6. apartatuan ezarritakoa, artikuluko honetan eta 10. eta 11. artikuluetan aurreikusitako dokumentazio obligazioak zerbitzu profesionalen prestazioei dagokienez ez exijitzeak ez du esan nahi 6. apartatu horretan jasotako beharkizunak benetan bete izana frogatu behar ez denik.

6. Artikulu honetan eta 10. eta 11. artikuluetan aipatzen diren dokumentazio obligazioak eragotzi gabe, zergapekoak Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatuak foru agindu bidez ezartzen duen eran eman beharko du eragiketa lotuei buruzko informazioa.

10. artikulua. Zergapekoaren taldeari buruz aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1. Ondoko hauek jaso behar dira taldeari buruzko dokumentazioan:

a) Taldearen antolaketa alorreko egituraren deskripzio orokorra eta egitura juridiko eta operatiboarena, bai eta aipatu egituretan izandako edozein aldaketa garrantzitsu ere.

b) Taldea osatzen duten eta eragiketa lotuak egiten dituzten entitateen identifikazioa, baldin eta zergapekoak egindako eragiketei zuzenean edo zeharka eragiten badiete.

c) Taldeko entitateen arteko eragiketa lotuen izaeraren, zenbatekoen eta fluxuen deskripzio orokorra, baldin eta zergapekoak egindako eragiketei zuzenean edo zeharka eragiten badiete.

d) Taldeko entitateek beren gain hartutako funtzio eta arriskuen deskripzio orokorra, baldin eta zergapekoak egindako eragiketei zuzenean edo zeharka eragiten badiete, aurreko zergaldi edo likidazio aldiarekin konparatuta izandako aldaketak barne.

e) Patente, marka, izen komertzial eta gainerako aktibo ukiezinaren titularren zerrenda bat, baldin eta zergapekoak egindako eragiketei zuzenean edo zeharka eragiten badiete, bai eta haiek erabiltzean izandako kontraprestazioen zenbatekoa ere.

f) Taldeak transferentzia prezioen alorrean duen politikaren deskripzioa, lehia librearen printzipioarekin bat datorrela justifikatze aldera; deskripzioan jaso behar dira taldeak prezioak finkatzeko metodoa edo metodoak.

g) Taldeko entitateen artean kostuak banatzeko akordioen eta zerbitzu prestazioko kontratuen zerrenda, baldin eta zergapekoak egindako eragiketei zuzenean edo zeharka eragiten badiete.

h) Taldeko entitateei buruzko aurretiazko balorazioko akordioen edo eginak diren edo egiten ari diren adiskidetasunezko prozeduren zerrenda, baldin eta zergapekoak egindako eragiketei zuzenean edo zeharka eragiten badiete.

i) Taldearen memoria edo, halakorik ez bada, urteko txosten baliokidea.

2. Aurreko apartatuan jasotako dokumentazio betebeharrak zergapekoak taldeko edozein entitatearekin eragiketa lotuak egin dituen zergaldiari edo likidazio aldiari buruzkoak izango dira, eta zergaren foru arauak 49. artikuluan jasotakoaren arabera enpresa txikitzat hartzen ez diren taldeei exijituko zaizkie.

Zergaldi edo likidazio aldi baterako prestatutako dokumentazioa ondorengo zergaldi edo likidazio aldietan ere baliagarria denean, ez da beharrezkoa izango dokumentazio berri bat prestatzea; nolana ere, beharrezko egokitzapenak egin beharko dira.

3. Zergaren foru arauak 16.11 apartatuan jasotakoaren ondorioetarako, datu multzo berezitutzat hartuko dira artikuluko honen 1. apartatuko a), c), d), f) eta i) letretako bakoitzean jasotako informazioak.

Ondorio berdinetarako, datutzat hartuko da apartatu horretako b) eta e) letretan aipatutako pertsona, entitate edo zenbateko bakoitzari buruzko informazioa.

Datutzat hartuko da aipatu 1. apartatuko g) eta h) letretan jasota dauden hauetako bakoitza: kostuak banatzeko akordioak, zerbitzu prestazioko kontratuak, aurretiazko balorazioko akordioak eta adiskidetasunezko prozedurak.

11. artikulua. Zergapekoaren dokumentazio obligazioa.

1. Zergapekoaren berriazko dokumentazioan jaso behar da:

a) Zergapekoaren eta horrekin eragiketak egiten dituzten pertsona edo entitateen izena eta deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa, zerga helbidea eta identifikazio fiskaleko zenbakia, bai eta eragiketen izaeraren deskripzio xehatua, ezaugarriak eta zenbatekoa.

Era berean, paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeetan egoiliar diren pertsona edo entitateekin egindako eragiketak direnean, identifikatu behar dira pertsona edo entitate horien izenean eragiketan esku hartu duten pertsonak, eta, eragiketak entitateekin egiten badira, horien administratzaileen identifikazioa aurkeztu behar da.

b) Erregelamendu honek 6.2 artikuluan jasotakoaren arabera egindako konparagarritasun analisia.

c) Aukeratutako balorazio metodoaren hautapenari buruzko azalpena, bertan adierazita zergatik hautatu den metodo jakin hura eta hori nola aplikatu; eta metodotik eratorritako balioaren edo balio tartearen zehaztapena.

d) Hainbat pertsona edo entitate loturen alde batera emandako zerbitzuei lotutako gastuak banatzeko irizpideak, eta horiei buruzko akordioak, halakorik badago; eta erregelamenduak 7. artikuluan aipatutako kostuak banatzeko akordioak.

e) Zergapekoak bere eragiketa lotuen balorazioa zehazteko erabilitako beste edozein informazio garrantzitsu, eta beste bazkide batzuekin hitzartutako itun parasozialak.

2. Zergapekoak eragiketa lotua egin duen zergaldi edo likidazio aldiari buruzkoak izango dira aurreko apartatuan jasotako dokumentazio betebeharrak.

Zergaldi edo likidazio aldi baterako prestatutako dokumentazioa ondorengo zergaldi edo likidazioetan ere baliagarria denean, ez da beharrezkoa izango dokumentazio berri bat prestatzea; nolana ere, beharrezko egokitzapenak egin beharko dira.

⁷3. Aurreko 1. apartatuan jasotako dokumentazio obligazioak beren osoan exijituko dira, salbu eta eragiketan esku hartu duten aldeetako bat zergaren foru arauak 49.1 artikuluan aipatutako entitateetako bat denean edo, bestela, pertsona fisiko bat, eta eragiketa horiek paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeetan dauden pertsona edo entitateekin egin ez direnean. Izan ere, horrelakoetan, berariazko dokumentazio obligazio hauek izango dituzte zergapekoak:

a) 1. apartatuko a), b), c) eta e) letretan jasotako obligazioak, baldin eta eragiketak foru dekretu honen 9.4 artikuluko f) letraren b') letran aurreikusitakoak badira.

b) 1. apartatuko a) eta e) letretan jasotako obligazioak, bai eta magnitudeak, portzentajeak, ratioak, fluxu deskontuei aplikatzen dakizkiekeen interes tasak, aurreikuspenak eta balioa zehazteko erabilitako gainerako balioak ere, baldin eta eragiketak foru dekretu honen 9.4 artikuluko f) letraren c') letran aurreikusitakoak badira.

c) 1. apartatuko a), c) eta e) letretan jasotako obligazioak, baldin eta eragiketak foru dekretu honen 9.4 artikuluko f) letraren d') letran aurreikusitakoak badira.

d) Aurreko 1. apartatuko a) letran jasotako obligazioa, bai eta erregelamendu honek 6.6 artikuluan jasotako baldintzak bete izanaren justifikazioa ere, aipatu artikuluan jasotakoa aplikaziozkoa zaien zerbitzu profesionalen prestazioak direnean.

e) 1. apartatuko a) eta e) letretan jasotako obligazioak, bai eta erabilitako balorazio metodoaren identifikazioa eta horretatik eratorritako balio tarteak ere, gainerako kasuetan.

4. Eragiketa bakoitzari edo eragiketa multzo bakoitzari dagokionez, horiek elkarrekin lotura estua dutenean edo zergapekoak etengabe egin dituztenean, zergaren foru arauak 16.11 artikuluan xedatutakoa aplikatzeko, datu multzo berezitutzat hartuko dira artikuluko 1. apartatuaren b), c), d) eta e) letretako bakoitzean eta 3. apartatuaren b), d) eta e) letretan jasotako informazioak.

Ondorio horietarako, datutzat hartuko da aurreko 1. apartatuko a) letran aipatutako pertsona edo entitate bakoitzari buruzko informazioa.

12. artikulua.- Paradisu fiskaletan egoiliar diren lotu gabeko pertsona edo entitateekin egindako eragiketak dokumentatzeko obligazioa.

⁷ Apartatu hau Azaroaren 23ko 33/2010 Foru Dekretuaren artikuluko bakarraren bigarren apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen duena eragiketa lotuak dokumentatzeko obligazioei dagokienez. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Aldaketa hau 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da. (2001-12-1eko GAO).

1. Zergaren foru arauak 17.2 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, dokumentatzeko obligazio hauek bete behar dituzte paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeetan egoiliar diren pertsona edo entitateekin eragiketak egiten dituztenek, baldin eta zergaren foru arauak 16. artikuluan jasotakoari jarraituz ez badira pertsona edo entitate lotuak:

a) Zergapekoaren eta horrekin batera eragiketa egiten duten pertsona edo entitateen izena eta deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa, zerga helbidea eta identifikazio fiskaleko zenbakia, bai eta eragiketaren izaeraren deskripzio zehatza, ezaugarriak eta zenbatekoa ere.

Era berean, identifikatu behar dira pertsona edo entitate horien izenean eragiketan esku hartu duten pertsonak, eta, eragiketak entitateekin egiten badira, horien administratzaileen identifikazioa aurkeztu behar da.

b) Erregelamendu honek 6.2 artikuluan jasotakoaren arabera egindako konparagarritasun analisia.

c) Aukeratutako balorazio metodoaren hautapenari buruzko azalpena, bertan adierazita zergatik hautatu den metodo jakin hura eta hori nola aplikatu; eta hartatik eratorritako balioaren edo balio tartearen zehaztapena.

d) Paradisu fiskaletan egoiliar diren hainbat pertsona edo entitateren alde emandako zerbitzuei lotutako gastuak banatzeko irizpideak, eta horiei buruzko akordioak, halakorik badago; eta erregelamenduak 7. artikuluan aipatutako kostuak banatzeko akordioak.

e) Zergapekoak bere eragiketen balorazioa zehazteko erabili duen beste edozein informazio.

2. Ez dira exijituko aurreko apartatuan jasotako dokumentazio obligazioak, merkantzien nazioarteko zerbitzu eta salerosketei dagokienez –barne hartuta azken horietan izandako bitartekaritza komisioak–, eta horiei guztiei lotutako gastu osagarriak, baldintza hauek betetzen direnean:

a) Zergapekoak frogatzea arrazoi ekonomiko onargarriak daudelako egin dela eragiketa paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde baten bidez.

b) Zergapekoak eragiketa parekagarriak egitea paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeetan egoiliar ez diren lotu gabeko pertsona edo entitateekin, eta frogatzea eragiketan hitzartutako balioa bat datorrela eragiketa parekagarrietan hitzartutako balioarekin, behin beharrezko zuzenketak eginda, hala badagokio.

3. Eragiketa bakoitzari edo eragiketa multzo bakoitzari dagokionez, horiek elkarrekin lotura estua dutenean edo zergapekoak etengabe egin dituenean, zergaren foru arauak 16.1 artikuluan xedatutakoa aplikatzeko, datu multzo berezitutzat hartuko dira aurreko 1. apartatuaren b), c), d) eta e) letretako bakoitzean jasotako informazioak.

Ondorio horietarako, datutzat hartuko da artikuluko honen 1. apartatuko a) letran aipatutako pertsona edo entitate bakoitzari buruzko informazioa.

3. sekzioa. Eragiketa lotuen merkatuko balio normala egiaztatzea.

13. artikulua. Eragiketa lotuen merkatuko balio normala egiaztatzea.

1. Balorazioa zuzentzea ikuskaritza prozeduran egitekoa den erregularizazioaren xede bakarra ez denean, zuzenketatik eratortzen den likidazio proposamena dokumentatu behar da zerga obligazioaren gainerako elementuengatik egin beharrekoa ez den beste akta batean. Akta horretan justifikatu behar da merkatuko balio normala zergaren foru arauak 16.4 artikuluan jasotako metodoetako baten arabera zehaztu izana, eta behar bezala adierazi behar da zergadunak zergatik zuzendu duen balorazioa. Akta horretatik eratorritako likidazioa behin-behinekoa izango da, 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 145. artikuluen 3. apartatuko b) letran jasotakoari jarraituz.

2. Baldin eta zergapekoak errekurtsua edo erreklamazioa aurkezten badu balorazioaren zuzenketaren ondorioz egindako behin-behineko likidazioaren aurka, eraginda dauden gainerako pertsona edo entitate lotuei emango zaie aipatu likidazioaren eta berrikuspen prozeduraren berri, prozeduran agertzeko aukera izan dezaten, 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 230.3 eta 238.3 artikuluetan jasotakoari jarraituz.

Ezarritako epeak amaitu eta zergapekoak ez badu errekurtsua edo erreklamaziorik aurkeztu, behin-behineko likidazioa jakinaraziko zaie eraginda dauden gainerako pertsona edo entitate lotuei, nahi izanez gero elkarrekin berraztertze errekurtsua edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkezteko. Alde edo entitate lotuak ados ez jartzeagatik, berraztertzeko bi bideak aldi berean erabiltzen badira, lehendabizi aurkeztutako errekurtsua edo erreklamazioa tramitatuko da eta bigarrena edo ondorengoa, berriz, onartezintzat hartuko da.

3. Zergaren foru arauak 16.4 artikuluan jasotako metodoak aplikatzeko beharrezkoa izan denean 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 56.1 artikuluan jasotako bitarteetako bat erabilita ondasun edo eskubideen balioa egiaztatzea, zergapekoak perituen tasazio kontrajarria sustatu dezake, aipatu ondasun edo eskubidearen balio egiaztatua zuzentzeko. Baldin eta zergapekoak perituen tasazio kontrajarria sustatzen badu, organo eskudunak zergapekoari eta eragindako gainerako pertsona edo entitate lotuei jakinaraziko die Administrazioako peritu batek egindako txostena. Horretarako, 15 eguneko epea emango die elkarrekin ados jarrita peritu bat izendatu dezaten; aipatu perituak izan behar du baloratzekoak diren ondasun edo eskubideen izaerarekin bat datorren titulua. Perituen tasazio kontrajarriaren prozedura 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 129. artikuluan jasotakoaren arabera tramitatuko da.

Behin amaituta perituen tasazio kontrajarriaren prozedura, aurreko 2. apartatuan adierazitakoari jarraituz jokatu da, tasazioaren baliotik eratorritako behin-behineko likidazioaren aurka aurkez daitezkeen errekurtsua edo erreklamazioei dagokienez.

Apartatu honetan jasotakoaren arabera perituen tasazio kontrajarriaren prozedura sustatu daitekeenean eta bidezko epeak amaitu direnean zergapekoak tasazio hori sustatu gabe edo errekurtsua edo erreklamaziorik aurkeztu gabe, behin-behineko likidazioa eraginda dauden gainerako pertsona edo entitate lotuei jakinaraziko zaie, hala nahi dutenek elkarrekin perituen tasazio kontrajarria sustatu edo errekurtsua edo erreklamazioa aurkezteko. Baldin eta, alde edo entitate lotuak ados ez jartzeagatik, perituen tasazio kontrajarria

eskatzearekin batera errekurtsio edo erreklamazio bat aurkezten bada, lehenik tasazioa gauzatuko da, zergaren foru arauak 16. artikuluan 1. apartatuko 2. zenbakian jasotako balioa zehazte aldera. Perituen tasazio kontrajarriaren eskaera aurkezteak eten ondorioak izango ditu, 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 129.1 artikuluan jasotakoaren arabera, eta berarekin ekarriko du perituen tasazio kontrajarriarekin batera aurkeztu diren errekurtsio eta erreklamazioak ez onartzea.

Behin amaituta aurreko paragrafoan jasotako perituen tasazio kontrajarriaren prozedura, alde edo entitate lotuek batera aukeratu dezakete, aurreko 2. apartatuan jasotakoari jarraituz, berraztertze errekurtsioa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztea tasazioaren baliotik eratorritako behin-behineko likidazioaren kontra.

4. Behin zergapekoak egindako likidazioa irmo bihurtuta, Zerga Administrazioak gainerako pertsona edo entitate lotuen zerga egoera erregularizatuko du, balio egiaztatu eta irmoaren arabera, eta, hala badagokio, berandutza interesak onartuko ditu. Erregularizazio hori gauzatzeko, likidazio bat egingo da, aipatu irmotasuna hartu denean autolikidazio epea amaitu zaion azken zergaldiari dagokionez. Zergaldirik ez duten zergak direnean, erregularizazio hori gauzatzeko, zergapekoari egindako likidazioaren irmotasuna gertatzen den momentuari dagokion likidazio bat egingo da.

Likidazio horretan kontuan hartuko dira balio egiaztatu eta irmoaren ondorioetarako, Zerga Administrazioak egindako balorazio zuzenketak hartutako zergaldi guztiei dagokienez. Hala badagokio, aipatu likidazioan berandutza interesak sartuko dira; aipatu interesak kalkulatu dira autolikidazioa aurkezteko epea amaitzen denetik edo autolikidazioa epea kanpo aurkezten den datatik – baldin eta erregularizazioaren ondorioz eragiketa lotuak ondorioa izan duen ekitaldi bakoitzeko itzulketa bat sortzen bada– eragiketa horren balio egiaztatua gainerako pertsona edo entitate lotuen aurrean eraginkorra den datara arte, zergaren foru arauaren 16. artikuluan 9. apartatuko c) letran eta aurreko paragrafoan jasotakoari jarraituz.

Era berean, zergapekoek balio egiaztatua aplikatu behar dute Administrazioaren erregularizazioan aipatutakoaren ondorengo zergaldietako aitorpenetan, eragiketa lotuak haiengan ondorioa sortzen duenean.

Aurreko likidazioa egiteko, ikuskaritzako organoek erabil ditzakete 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 136. artikuluan jasotako ahalmenak, bai eta informazioa lortzeko beharrezko irizitako jarduketak guztiak egin ere.

Aurreko paragrafoan jasotakoa jasota ere, gainerako pertsona edo entitate lotuek beren zerga egoera erregularizatu dezakete, hala nahi badute, zergapekoari egindako likidazioa eta, beraz, balio egiaztatua irmoa direlako frogatu dutenean, eta Administrazioak egin arte itxoin gabe; horretarako, 4. apartatu honetan jasotakoaren arabera dena delako aitorpenak zuzenduko dituzte.

5. Artikulu honetan araututako prozedura ez zaie aplikatuko balorazioaren zuzenketak eraginda dauden eta lurralde espainiarrean egoiliar edo bertan establezimendu iraunkor ez diren pertsona edo entitateei, zergaren foru arauak 16. artikuluan 9. apartatuko d) letran jasotakoari jarraituz.

Lurralde espainiarrean egoiliar ez diren eta estatu barruko antolamenduan sartutako itun edo hitzarmen bat argudiatu dezaketen eragindako pertsona edo entitateek, non eta ez diren hartan kokatutako establezimendu iraunkorrak, jo behar dute adiskidetasunezko prozedurara edo arbitraje prozedurara, balorazioaren zuzenketak sor dezakeen ezarpen bikoitza deuseztatze aldera, zergaren foru arauak 16. artikulua 9. apartatuko f) letran jasotakoaren arabera.

V. kapitula: Pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketen aurretiazko balorazioak⁸

1. sekzioa. Zergapekoek eskatuta eragiketa lotuei buruzko akordiorako prozedura.

14. artikulua. Aurretiazko jarduketak.

1. Pertsona edo entitate lotuek aurretiazko eskaera bat aurkeztu dezakete, Zerga Administrazioari beraien arteko eragiketen merkatuko balio normala zehazteko eskatu nahi diotenean; hona hemen eskaeraren edukia:

a) Eragiketak egingo dituzten pertsona edo entitateen identifikazioa.

b) Eragiketen deskripzio laburra.

c) Balorazio proposamenaren oinarrizko osagaiak.

2. Zerga Administrazioak aurretiazko eskaera aztertuko du, eta interesatuei argibidea eskatu diezaieke; gainera, interesatuei jakinaraziko die aurretiazko balorazioak akordioa bideragarria den edo ez.

15. artikulua. Prozedura hastea.

1. Pertsona edo entitate lotuek beraien arteko eragiketak egin aurretik aurkeztu dezakete eragiketa horien merkatuko balio normala zehazteko eskaera. Aipatu eskaeran jaso behar da merkatuko balioan oinarritutako balorazio proposamen bat –proposatutako metodoa azalduta– eta metodoaren aplikazioak lehia librearen printzipioa errespetatzen duela justifikatzen duen analisi bat.

Balioa zehazteko duten pertsona edo entitateek sinatu behar dute eskaera, eta Zerga Administrazioari akreditatu behar diote baloratzeko eskatzen diren eragiketak egingo dituzten gainerako pertsona edo entitateek balorazio eskaera ezagutu eta onartzen dutela.

2. Eskaerarekin batera, erregelamendu honek 10.1 eta 11. artikuluetan aipatutako dokumentazioa aurkeztu behar da, balorazio proposamenari aplikaziozkoa bazaio; kasuaren zirkunstantzietara egokitu behar da eskaera.

⁸ V. Kapitulua hau Uztailaren 28ko 26/2009 Foru Dekretuaren 5. artikulua aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen du. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Aldaketa hau 2009ko urtarilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2009-08-11ko GAO).

3. Zergapekoek Zerga Administrazioari aurkeztu diezaioke, era berean, zergaren foru arauak 21.1 artikuluan jasotakoaz besteko koefiziente bat aplikatzeko proposamena, artikulua beraren 3. apartatuan jasotakoari jarraituz.

Azpikapitalizazio koefizienteari buruzko proposamenetan, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- a) Entitatearen urteko kontuak.
- b) Kapital fiskalari dagokionez subjektu pasiboaren ustetan merkatuko baldintza normaletan pertsona edo entitate lotu gabeetatik lortu zezakeen zorpetzea; eta horren justifikazioa.
- c) Entitatearen sozietate taldearen deskripzioa.
- d) Entitatea zorpetu edo zorpetuko den entitate ez-egoiliar lotuen identifikazioa.
- e) Proposatutako zorpetze koefizientea, eta horren justifikazioa; hura aplikatzeko oinarritzat hartu beharreko zirkunstantzia ekonomikoak.
- f) Elkarrekotasunezko tratamenduaren justifikazioa.

4. Organo eskudunak eskatzaileari eskatu diezaioke, prozedura hasteko eskaerari aipatu organoaren erregistroan sarrera eman ondorengo 30 egunetan, akatsak zuzentzeko edo eskaera Zerga Administrazioak merkatuko balio normala zehazteko garrantzizkotzat hartzen duen beste edozein informazioarekin osatzeko. Eskatzaileak 10 eguneko epea izango du, dokumentazioa aurkeztu edo akatsak zuzentzeko. Errekerimenduari ez erantzuteak berarekin ekarriko du jarduketak artxibatzea eta eskaera ez aurkeztutzat hartzea.

5. Arrazoituta erabaki daiteke eskaera tramitera ez onartzea, zirkunstantzia hauetako bat gertatzen denean:

- a) Balorazio proposamenak merkatuko balio normala zehazteko funtsik ez izatea, modu nabarmenean.
- b) Funtsean aurkeztutako proposamenaren berdinak diren balorazio proposamenak ez onartzea.
- c) Uste izatea arriskurik ez dagoela balorazio proposamenaren bidez saihestu daitekeen ezarpen bikoitza gertatzeko.
- d) Proposamena onartuko ez dela zehazteko balio duen beste edozein zirkunstantzia.

6. Behin amaituta aurreko 4. apartatuan jasotako epea, zergapekoei eskaera onartu ez dela jakinarazi gabe, prozedura hasitzat hartuko da.

16. artikulua. Dokumentazioaren araubidea.

1. Kapitulu honetan araututako prozedurari dagokionez bakarrik izango du ondorioa aurkeztutako dokumentazioak, eta horri dagokionez bakarrik erabiliko da.

2. Aurreko artikuluetan jasotakoak ez ditu subjektu pasiboak salbuetsiko 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak,

29. artikuluan edo bestelako xedapen batean jasotakoaren arabera haiei dagozkien obligazioetatik, baldin eta horiek betetzeak erregelamendu honek 18. artikuluan jasotako dokumentazioari eragiten badio.

3. Proposamena bertan behera utzi, iraungi edo ezesten denean, dokumentazioa itzuliko zaio interesatuari.

17. artikulua. Akordioa tramitatzea, amaitzea eta ondorioa izatea.

1. Zerga Administrazioak proposamena aztertuko du dokumentazioarekin batera. Horretarako, zergapekoei eskatu diezazkieke proposamenarekin zerikusia duten datu, txosten, aurrekari eta frogagiri guztiak, bai eta proposamenari buruzko azalpen edo argibide osagarriak ere.

2. Edozein zergapekok proposamena bertan behera uzteak berarekin ekarriko du prozedura amaitzea.

3. Prozedura amaitzeko ebazpenaren bidez:

a) zergapekoak aurkeztutako balorazio proposamena onar daiteke,

b) behin zergapekoak onartuta, hasieran aurkeztutakoaz besteko balorazio proposamena onetsi daiteke, edo

c) zergapekoak egindako balorazio proposamena ezetsi daiteke.

4. Aurretiazko balorazioko akordioa agiri batean formalizatuko da. Hona hemen agiriaren gutxieneko edukiak:

a) Formalizatzeko tokia eta data.

b) Proposamenean aipatutako zergapekoen izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Zergapekoek akordioaren edukiei emandako adostasuna.

d) Proposamenean aipatutako eragiketen deskripzioa.

e) Balorazio metodoaren funtsezko elementuak eta, hala badagokio, metodotik eratorritako balio tarteak, bai eta hura aplikatzeko oinarritzat hartu beharreko zirkunstantzia ekonomikoak ere, bereziki kasu kritikoak nabarmenduta.

f) Akordioa aplikatuko zaien zergaldiak edo likidazioaldiak, eta hura indarrean jarriko den data.

5. Balorazio proposamena ezestean zehaztu behar da Zerga Administrazioak proposamena zergatik ezesten duen, eta zergapekoen identifikazioa jaso behar da.

6. Prozedura sei hilabetetan amaitu behar da. Behin epe hori amaituta ebazpen espresu bat jakinarazi gabe, ulertu daiteke proposamena ezetsita dagoela.

7. Onartu den proposamenetik eratortzen dena aplikatu behar dute Zerga Administrazioak eta zergapekoek.

8. Zerga Administrazioak egiaztatu dezake onartutako proposamenean jasotako gertakari eta eragiketak bat datozela benetan izandakoekin eta onartutako proposamena behar bezala aplikatu dela.

Aipatu egiaztapen saiotik eratoritzen denean onartutako proposamenean jasotako gertakari eta eragiketak ez datozela bat benetan izandakoarekin edo onartutako proposamena ez dela behar bezala aplikatu, Zerga Administrazioak zergapekoen zerga egoera erregularizatuko du.

9. Ezin zaio aurka egin prozedura amaitzeko ebazpenari edo ezespenaren ustezko egintzari; nolanahi ere, errekurtsioak eta erreklamazioak jar daitezke dena delako likidazio egintzen aurka.

10. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Ikuskaritzako Zuzendariordetzak izango du eskumena prozedura hasi, bideratu eta ebazteko.

18. artikulua. Pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketak baloratzeko akordioa aplikatzeari buruzko informazioa.

Onartutako aurretiazko balorazioko akordioaren aplikazioari buruzko idazki bat aurkeztu behar dute zergapekoek, Sozietateen gaineko Zergaren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioarekin batera. Hona hemen aipatu idazkian jaso beharreko informazioa, besteak beste:

a) Autolikidazioan jasotako zergaldian edo likidazio aldian egin diren eragiketak, aurretiazko akordioa aplikatu zaienak.

b) Aurretiazko akordioa aplikatzearen ondorioz aurreko eragiketak egiteko finkatutako prezio edo balioak.

c) Aurretiazko akordioaren aipatutako balorazio metodoa aplikatzeko oinarritzat hartu behar diren zirkunstantzia ekonomikoen aldaketa nabarmenen deskripzioa, halakorik badago.

d) Aurretiazko akordioan aipatzen diren eta zergaldian edo likidazio aldian egin diren eragiketak, horien prezioak eta aurretiazko akordioaren esparruan jasotako eragiketei dagokienez dauden diferentzien deskripzioa.

Dena den, beste administrazio batzuekin sinatutako akordioetan, horietatik eratorritako dokumentazioa aurkeztu behar du urtero zergapekoak.

19. artikulua. Aurretiazko balorazioko akordioa aldatzea.

1. Baldin eta aurretiazko balorazioko akordioa onartzean dauden zirkunstantzia ekonomikoak nabarmen aldatzen badira, akordioa aldatu ahal izango da zirkunstantzia ekonomiko berrietara egokitzeko. Aldatzeko prozedura ofizioz edo zergapekoek eskatuta has daiteke.

2. Aldaketa eskatzen duten pertsona edo entitateek sinatu behar dute akordioa aldatzeko eskaera, eta Administrazioari akreditatu behar diote balorazioa eskatzen zaien eragiketak egingo dituzten gainerako pertsona edo entitateek aldatzeko eskaera ezagutu eta onartzen dutela. Hona hemen eskaeran jaso beharreko informazioa:

a) Zirkunstantzia ekonomikoak nabarmen aldatu izanaren justifikazioa.

b) Aipatu zirkunstantziak aldatzearen ondorioz bidezkoa den aldakuntza.

Eragindako edozein pertsona edo entitatek eskaera bertan behera utziz gero, aldaketa prozedura amaituko da.

3. Zerga Administrazioak ebazpen arrazoitua emango du, dokumentazioa aurkeztu eta zergapekoei entzun ondoren; zergapekoek hamabost eguneko epea izango dute horretarako. Aipatu ebazpenaren bidez:

a) zergapekoek proposatutako aldaketa onar daiteke,

b) behin zergapekoak onartuta, hasieran aurkeztutakoaz besteko balorazio proposamena onetsi daiteke, edo

c) zergapekoek proposatutako aldaketa ezetsi daiteke, eta hasieran onartutako aurretiazko balorazioko akordioa berretsi edo indargabetu daiteke.

4. Aldaketa prozedura Zerga Administrazioak hasia denean, proposamenaren edukiaren berri emango zaie zergapekoei; eta horiek hilabeteko epea izango dute, proposamena jakinarazi eta biharamunetik aurrera:

a) aldaketa onartzeko,

b) ordezeko aldaketa bat proposatzeko, behar bezala justifikatuta,

c) aldaketari ezezkoa emateko, zergatiak adierazita.

5. Zerga Administrazioak ebazpen arrazoitua emango du, behin dokumentazioa aztertuta. Ebazpenak helburu hauetako bat izan dezake:

a) aldaketa onartzea, zergapekoek lehenago ontzat eman badute,

b) zergapekoek proposatutako ordezeko aldaketa onartzea, edo

c) ondoriorik gabe uztea hasierako balorazioko proposamena onartzeko erabakia,

d) hasierako balorazioko proposamenaren aplikazioaren jarraipena deklaratzeko.

6. Beste zerga administrazio batekin akordio bat izanez gero, aurretiazko balorazioko akordioa aldatzeko beharrezkoa izango da administrazio horrekin hartutako akordioa aurretik aldatzea. Horretarako, erregelamendu honek 21. eta ondorengo artikuluetan jasotako prozedurari jarraituko zaio.

7. Prozedura sei hilabetetan amaitu behar da. Behin epe hori amaituta ebazpen espresu bat jakinarazi gabe, ulertu behar da aldatzeko proposamenari ezetsita dagoela.

8. Ezin zaio aurka egin aldaketa prozedura amaitzeko ebazpenari edo ezespenaren ustezko egintzari; nolanahi ere, errekurtsoak eta erreklamazioak jar daitezke likidazio egintzen aurka.

9. Aldaketaren onarpenak erregelamendu honek 17. artikuluan jasotako ondorioak izango ditu, aldatzeko eskatu ondoren edo, hala badagokio, aldatzeko proposamena komunikatu ondoren egiten diren eragiketei dagokienez.

10. Hasierako balorazioko aurretiazko akordioa ondoriok gabe uzteko ebazpenak berarekin ekarriko du erregelamendu honek 17. artikuluan jasotako ondorioak amaitzea, aldatzeko eskatu ondoren edo, hala badagokio, aldatzeko proposamena komunikatu ondoren egiten diren eragiketei dagokienez.

11. Zergapekoek eskatutako aldaketa ezesteak berarekin ekarriko du:

a) Erregelamendu honek 17. artikuluan jasotako ondorioak berrestea, zirkunstantzia ekonomikoak nabarmen aldatu direla frogatzen ez denean.

b) Erregelamendu honek 17. artikuluan jasotako ondorioak amaitzea, aldaketa ezetsi ondoren egiten diren eragiketei dagokienez, gainerako kasuetan.

20. artikulua. Aurretiazko balorazioko akordioa luzatzea.

1. Zergapekoek Zerga Administrazioari eskatu diezaioke lehenago onartu den balorazio akordio baten balio aldia luzatzeko. Balio aldia amaitu aurreko sei hilabete baino lehen aurkeztu behar da eskaera, jatorrizko eskaeran agerian jarritako zirkunstantziak aldatu ez direla zurrizko egoki iritzitako dokumentazioarekin batera.

2. Luzatzea nahi den aurretiazko balorazioko akordioa sinatu zuten pertsona edo entitateek sinatu behar dute aurretiazko balorazioko akordioa luzatze eskaera, eta Administrazioari akreditatu behar diote eragiketak egingo dituzten gainerako pertsona edo entitate lotuek luzatze eskaera ezagutu eta onartzen dutela.

3. Zerga Administrazioak sei hilabeteko epea izango du, aurreko 1. apartatuan jasotako dokumentazioa aztertzeko eta zergapekoei aurretiazko balorazioko akordioaren balio aldia luzatu ote den jakinarazteko. Horretarako, Administrazioak edozein informazio eta dokumentazio osagarri eskatu dezake, bai eta zergapekoaren lankidetzaren ere.

4. Behin aurreko apartatuan jasotako epea igarota aurretiazko balorazioko akordioaren balio aldia luzatu izana jakinarazi gabe, eskaera ezetsitzat har daiteke.

5. Ezin zaio aurka egin akordioa luzatzeko ebazpenari edo ezespenaren ustezko egintzari; nolanahi ere, errekursoak eta erreklamazioak jar daitezke likidazio egintzen aurka.

2. sekzioa. Eragiketa lotuei buruzko akordioa beste administrazio batzuekin adosteko prozedura.

21. artikulua. Aplikaziozko arauak.

1. Beste zerga administrazio batzuekin akordioak lortzeko prozedura kapitulu honetan jasotako arauari lotuko zaie, betiere erregelamendu honek 21.etik 24.era bitarteko artikuluetan jasotako berezitasunak kontuan hartuz.

2. Beste zerga administrazio batek Zerga Administrazioari eskatzen dionean pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketak baloratzeko akordio baten sinatze

prozedura bat has dadila, erregelamendu honek 21.etik 24.era bitarteko artikuluetan jasotako arauak bete behar dira, aplikaziozkoak diren neurrian.

22. artikulua. Prozedura hastea.

1. Baldin eta zergapekoek eskatzen badute pertsona edo entitate lotuak helbideratuta dauden herrialde edo lurraldeko beste zerga administrazio batzuek proposamena aintzat hartzeko, Zerga Administrazioak baloratuko du prozedura hori hastea bidezkoa ote den. Prozedura hastea ezesteko arrazoia eman behar da, eta ezin izango da ezesprenaren aurka egin.

2. Aurretiazko balorazioa prozedura batean Zerga Administrazioak egokitzen hartzen badu gaiak eraginda egon daitezkeen beste herri administrazio batzuek aintzat hartzea, horren berri emango die pertsona edo entitate lotuei. Beste administrazioari komunikatu aurretik, zergapekoak onartu egin behar du.

3. Zergapekoak prozedura hasteko eskaera aurkeztu behar du, erregelamendu honek 15. artikuluan jasotako dokumentazioarekin batera.

23. artikulua. Tramitatzea eta ebaztea.

1. Beste zerga administrazio batzuekin diren harremanetan, pertsona edo entitate lotuak behartuta daude balorazio proposamenarekin zerikusia duten datu, txosten, aurrekari eta frogagiri guztiak aurkeztera.

Akordioa zehazteko jarduketetan parte hartu dezakete zergapekoek, bi zerga administrazioen ordezkariak hala adosten dutenean.

2. Zerga administrazioen akordio proposamenaren berri emango zaie subjektu interesatuei, eta horiek ezinbestez proposamena onartu behar dute eragindako administrazioen arteko akordioa sinatu aurretik.

Akordio proposamenaren aurka egiteak berarekin ekarriko du balorazio proposamena ezestea.

3. Akordio proposamena onartuz gero, organo eskudunak beste zerga administrazioekiko akordioa sinatuko du, eta horren kopia interesatuei helaraziko zaie.

24. artikulua. Organo eskudunak.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Ikuskaritzako Zuzendariordetzari dagokio aurreko artikuluan aipatutako administrazioekiko harremanak hastea, informatzea, horietarako prozedura instruitzea eta ezartzea, eta ebazpen proposamena prestatzea.

Ogasun zuzendari nagusiak prozedura ebatziko du, eta beste zerga administrazioarekiko akordioa sinatuko du.

VI. kapitulua: Sarrera eta gastuak denboraren arabera egozteak: sortzapenarena ez diren irizpideak onartzea⁹

25. artikulua. Sortzapenarena ez diren irizpideak onartzea.

1. Kontabilitate ondorioetarako sarrera eta gastuak denboraren arabera egozterakoan sortzapenarena ez den irizpidea erabiltzen duten entitateek eskatu dezakete aipatu irizpideak efikazia fiskala edukitzea. Eskaera Zerga Administrazioari egin eta horretan tramitatuko da, foru dekretu honek 48. artikuluan jasotako prozedura orokorraren arabera, artikulua honetako ondorengo apartatueta zehaztutako berezitasunak kontuan hartuz.

2. Eskaeran datu hauek sartuko dira:

a) Denboraren arabera egozpenaren irizpideari lotuta dauden sarreraren eta gastuen deskripzioa. Era berean, haien izaeraz gain, subjektu pasiboaren eragiketen multzoan duten garrantzia adieraziko da.

b) Efikazia fiskala eskatua duen denboraren arabera egozpenaren irizpidearen deskripzioa. Denboraren arabera egozpenaren irizpidea bete beharrekoa izanez gero, obligazioa duen kontabilitate araua zehaztu beharko da.

c) Denboraren arabera egozpenaren irizpidea urteko kontuek eman behar duten irudi leialera egokitu izanaren justifikazioa; eta ondarearekiko eraginaren, finantza egoeraren eta subjektu pasiboaren emaitzen azalpena.

3. Eskaera aurkeztu behar da ondorioak izatea nahi den lehen zergaldia amaitu baino gutxienez sei hilabete lehenago.

26. artikulua. Egozpenaren irizpide fiskalak amortizazioei dagokienez.

Salbu subjektuak egindako zuzkidura benetako balio-galerarekin bat datorrela justifikatzen diren kasuetan, ondare elementu bat amortizatu denean zergaldiren batean amortizazioko gutxieneko koefizientea zergaren foru arauak 11.2.a) artikuluan jasotako gehieneko urteko kopurutik eratorritako gutxieneko amortizazio koefizientea aplikatuz ateratakoa baino zenbateko txikiago batean, baldin eta jarduketa horretatik eratortzen bada gerorapen bat edo gutxieneko amortizazio hori aplikatuz gero zegoakina baino tributazio txikiago bat, azken hori hartuko da kontuan bidezko erregularizazioak egiteko.

VII. kapitulua: Aparteko mozkinak berrinbertitzea¹⁰

27. artikulua. Aparteko mozkinak berrinbertitzea.

⁹ VI. Kapitulu hau Uztailaren 28ko 26/2009 Foru Dekretuaren 6. artikulua aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen du. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Aldaketa hau 2009ko urtarilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2009-08-11ko GAO).

¹⁰ VII. Kapitulu hau Uztailaren 28ko 26/2009 Foru Dekretuaren 7. artikulua aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen du. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Aldaketa hau 2009ko urtarilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2009-08-11ko GAO).

Zergaren foru arauak 22. artikuluan xedatutakoa aplikatzea bidezkoa denean, erregela hauek hartuko dira kontuan:

1. Ez da ulertuko edozein motatako entitateen kapitalean edo fondo propioetan parte hartzea adierazten duten baloreen artean sartuta daudenik inbertsio fondoetan parte hartzea adierazten duten baloreak eta kapital sozialaren gainean partaidetza bat ematen ez dutenak.

2. Berrinbertsioa baloreetan gauzatzen denean, ulertuko da honako hauek ustiapen ekonomikoari atxikita daudela: gutxienez boto eskubideen %5 ematen dutenak eta partaidetza zuzendu eta kudeatzeko asmoz edukitzen diren baloreak, baldin eta horretarako bitarteko materialak eta giza baliabideak antolatuta badaude eta entitate partaidetua zergaren foru arauak 66.1 artikuluan aipatzen dituen kasuen barruan sartuta ez badago.

3. Ulertuko da balore zaharrenak eskualdatu direla, edozein motatako entitateen kapitalean edo fondo propioetan parte hartzea adierazten duten baloreak zenbat denboratan eduki diren kalkulatzeko.

4. Ez dira oinarri ezargarritik kanpo utzi behar diren errenten artean sartuko ondare elementuen edo baloreen narriaduragatiko balio-galeren zenbatekoa, balio-galerak fiskalki kengarriak izan badira. Era berean, aipatu errenten artean ez dira sartuko ez zergaren foru arauak 12.8 artikuluan jasotakoaren arabera kendu diren kopuruak eta ez amortizazio askatasunari edo amortizazio aurreratuari aplikatu diren eta amortizazio modu horietaz gozatu zuten ondare elementuen eskualdaketa dela-eta oinarri ezargarri horretan integratu behar diren kopuruak ere.

5. Berrinbertitutako zenbatekoa handiagoa denean eskualdaketa lortutako zenbateko osoa baino, soberakina zergaren foru arauak VII. tituluaren inbertsioagatik aurreikusten dituen kenkarietara bildu ahal izango da, hala badagokio.

6. Errentamendu finantzarioko kontratuetan jasota dauden ondare elementuak direnean, ulertuko da berrinbertsioa kontratua egin den egunean burutu dela eta bere zenbatekoa ondare elementuaren eskurako balioaren berdina dela. Berrinbertsioak ondorioak izan ditzan, nahitaezkoa izango da erosteko aukera erabiltzea; hori erabili ezean, ondorioak amaitu egingo dira.

28. artikulua. Errentak oinarri ezargarrian sartzea berrinbertsioa jaso duten elementuak eskualdatzen direnean.

Berrinbertsioa jaso duten ondare elementuak zergaren foru arauak 22.3 artikuluan aipatzen duen epea amaitu aurretik eskualdatzen badira, integratu gabeko errentaren zatia integratu beharko da eskualdaketa egiten den zergaldiko oinarri ezargarrian, salbu lortutako zenbatekoa berriro berrinbertitzen bada aipatutako 22.1 artikuluan jasotako moduan.

29. artikulua. Berrinbertsioko plan bereziak.

1. Frogatzen denean ezaugarri teknikoak direla-eta inbertsioa derrigorrez zergaren foru arauak 22.1 artikuluan jasotakoa baino epe luzeagoan egin behar dela, subjektu pasiboek Zerga Administrazioari eskatu ahal izango diote berrinbertsioko plan bereziak onar ditzan.

Foru dekretu honek 48. artikuluan jasotako prozedura orokorraren arabera egin eta tramitatuko da eskaera, artikulua hauetan zehaztutako berezitasunak kontuan hartuz.

2. Hona hemen eskaerak jaso beharreko datuak:

- a) Dagoeneko eskualdatu edo gerora eskualdatuko diren ondare elementuen deskripzioa.
- b) Eskualdaketa benetako edo ustezko zenbatekoa.
- c) Berrinbertsioa gauzatuko den ondare elementuen deskripzioa.
- d) Berrinbertsioa egiteko epeei buruzko planaren deskripzioa.
- e) Berrinbertsioko plan berezia justifikatzen duten berariazko zirkunstantzien deskripzioa.

3. Berrinbertsioko plan berezia ondorengo epe hauetan aurkeztu behar da, kasuen arabera:

- a) Sei hilabeteen barruan, aparteko mozkina sortu duen eskualdaketa egunetik aurrera.
- b) Eskualdaketa egin nahi den egunaren aurreko sei hilabeteen barruan.
- c) Inbertsio aurreratua egin edo hasi nahi den egunaren aurreko sei hilabeteen barruan.

Aurreko b) letran jasotako kasuan, eskualdaketa sei hilabeteko epean egin behar da berrinbertsioko plan bereziaren onarpen egunetik aurrera, eta, c) letrako kasuan, berriz, berrinbertsioa sei hilabeteko epean egin edo hasi behar da eskaera egunetik aurrera.

4. Era berean, subjektu pasiboek berrinbertsioko plan bereziak onartzeko eskatu dezakete, berrinbertsio prozesua ezin denean osatu zergaren foru arauak 22.1 artikuluan jarritako epean, geroago gertatzen diren eta behar bezala arrazoituta dauden zirkunstantziengatik.

Halako kasuetan, eskaera bat aurkeztu behar dute, aurreko 2. apartatuan jasotako datuak sartuta eta egindako berrinbertsio zatia eta hori osatzeko behar den denborazko plana zehaztuta.

Apartatu honetan aipatutako kasuetan, zergaren foru arauak 22.1 artikuluan aipatutako epea amaitu aurretik eskatu behar da berrinbertsioko plan berezia.

5. Berrinbertsio plana erabat edo zati batean bete ezean, subjektu pasiboak bere zerga egoera erregularizatu eta berandutza interesak ordaindu beharko ditu. Ez-betetzea gertatu den zergaldian zerga hori dela-eta aurkeztu behar duen aitorpenarekin batera egingo da erregularizazioa.

Proposatutako inbertsioaren eta benetan egindakoaren arteko proportzioa kontuan hartuz egingo da erregularizazioa.

30. artikulua. Aparteko mozkinak berrinbertitzean bete beharreko obligazio formalak.

1. Subjektu pasiboek datu hauek adierazi beharko dituzte urteko kontuen memorian:

a) Zergaren foru arauak 22. artikuluan jasotako araubidera bildutako errentaren zenbatekoa.

b) Zein zergalditan sortu ziren oinarri ezargarrian sartu ez diren errentak.

c) Berrinbertsioa gauzatutako ondare elementuen eta zergaldien deskripzioa.

2. Datu horiek zergaren foru arauak 22.3 artikuluan jarritako epearen barruan adierazi behar dira.

VIII. kapitulua: Kuotaren kenkariak¹¹

31. artikulua. Inbertsio produktiboetarako erreserba gauzatzea.

Zergaren foru arauak 39. artikulua 1. apartatuko 1. baldintzan jasotako ondorioetarako, ulertuko da inbertsioa gauzatutako ondasunak ustiapen ekonomikoa garatzeari atxikita daudela, hirugarrenei erabil ditzaten errentan eman edo lagatzen zaizkienean, baldin eta subjektu pasiboa ustiapen ekonomiko baten bitartez aktibo finkoak erabil ditzaten hirugarrenei errentan ematen edo lagatzen aritzen bada eta ondasun horien errentariekin edo lagapen hartzaileekin loturarik ez badago eta errentamendu finantzarioko eragiketak ez badira.

32. artikulua. Ikerketako, garapeneko eta berrikuntza teknologiko nahiz ez-teknologikoko jarduerengatik araututako kenkariak aplikatzeko txosten arrazoitua.¹²

1. Gaia dela-eta eskumena duen Eusko Jaurlaritzako saila edo horri atxikitako organismo edo entitate bat izango da zergaren foru arauak 42.2 artikuluan aipatutako txosten arrazoituak egiteko organo eskuduna.

2. Txosten arrazoitua “zerga ondorioetarako kalifikazio txostena” deituko da. Txostena emateko eskaerak urtero aurkeztu behar dira, urte bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen, eta organo eskudunari zuzendu behar zaizkio. Eskaerak eskatzailea zein den eta zer jarduera egiten duen identifikatzeaz gainera, proiektuaren azalpen memoria bat jaso behar du.

Memoria horretan zehaztuta utzi behar dira eskatzaileak eta birkontratutako pertsona edo entitateek garatuko dituzten jarduerak, bai eta proiektutik eratortzen diren gastu eta inbertsioen zenbatekoak ere, urteka banatuta.

¹¹ VIII. Kapitulu hau Uztailaren 28ko 26/2009 Foru Dekretuaren 8. artikulua aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen du. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Aldaketa hau 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2009-08-11ko GAO).

¹² 32. Artikulu hau Maiatzaren 18ko 12/2010 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen abenduaren 18ko 13/2007 Foru Dekretua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Aldaketa hau 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2009-05-21ko GAO).

3. Proiektuak beste entitate batzuekin lankidetzan egiten badira, proiektu bakoitzeko eskaera bakar bat aurkeztu behar dute urtero, entitate guztiek sinatua, eta partaideetako bat izendatu behar da solaskidetzat, harreman eta jakinarazpen ondorioetarako. Proiektuaren memorian zehaztu egin behar da parte hartzen duen entitateetako bakoitzak zer jarduera egingo dituen eta zer aurrekontu gauzatuko duen.

Proiektuan parte hartzen duen entitate bakoitzak jasoko du txostena, bakoitzak berea.

4. Proiektu baten urteko aurrekontua milioi bat euro baino handiago denean entitate batentzat, txosten arrazoitua emateko, beharrezkoa izango da entitateak organo eskudunari txosten tekniko bat aurkeztea, urte horiei eta proiektu horri dagokienez, jarduerak kalifikatzeko eta ikerketari, garapenari eta berrikuntza teknologiko edo ez-teknologikoari lotutako gastu eta inbertsioak identifikatzeko. Kalifikazio txosten tekniko hori Akreditaziorako Lankidetzako Europar Elkarteko organismo batek behar bezala akreditatutako entitatearen batek emana izan behar da.

5. Nolanahi ere, organo eskudunak eskaera behar bezala ulertu, tramitatu eta ebaluatzeko behar den dokumentazio guztia eskatu diezaieke entitate eskatzaileei.

6. Organo eskudunak egindako txosten arrazoituetan behar bezala bereizita identifikatu behar dira zergaren foru arauak 40. eta 41. artikuluetan jasotako kontzeptuen arabera garatzekoak diren jarduerak, betiere jarduerotako bakoitzari lotutako gastu eta inbertsioak egotzita.

33. artikulua. Txostenaren ondorioak eta Zerga Administrazioaren ahalmenak.

1. Aurreko artikuluan aipatutako organo eskudunak egin dituen txosten arrazoituek Zerga Administrazioa lotuko dute, jardueraren izaerari dagokionez nahiz hura ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologiko edo ez-teknologiko gisa kalifikatzeari dagokienez.

2. Zerga Administrazioak egiaztatu behar du inbertsioak eta gastuak benetan egin izana eta egindako jarduerak txostenean jasotakoei egokitu izana; horretarako, beharrezko deritzon justifikazioa eskatu dezake edonoiz.

3. Zerga Administrazioak eskatuta aurreko artikuluan aipatutako txosten arrazoitua aurkezten duen subjektu pasiboak aplikatu behar ditu zergaren foru arauak 40. eta 41. artikuluetan jasotako kenkariak.

Era berean, Zerga Administrazioak aurreko 32.1 artikuluan aipatutako organoari eskatu diezaioke txosten osagarri bat egin dezan, zergadunek ikerketaren, garapenaren edo berrikuntza teknologiko edo ez-teknologikoaren alorrean egiten dituzten jardueren izaerari eta kalifikazioari buruzko informazioa gehitzeko.

34. artikulua. Ikertzaileen Gizarte Segurantzarako kotizazioengatiko hobarien aldeko aukera.

1. Ikerketa eta garapeneko eta berrikuntza teknologikoko jardueretan bakar-bakarrik diharduten langileen Gizarte Segurantzarako kotizazioetan hobaria ezartzeko aukera erabili ahal izateko, ikertzaileen Gizarte Segurantzarako

kotizazioetako hobariei buruzko otsailaren 23ko 278/2007 Errege Dekretuan ezartzen denaren arabera, jakinarazpen bat bidali behar zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari. Jakinarazpen hori bidali behar da hobaria erabiliko den zergaldia hasi aurreko azken-aurreko hilean. Zergapekoak aukera hori luzatzeari uko egiten ez badio, aukera hori hurrengo zergaldietara isilbidez luzatu dela ulertuko da.

Sozietateen gaineko Zergaren uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren VIII. tituluko IX. kapituluan zehazten den zerga araubidearen aldeko hautua egiten duten talde fiskalek aurreko paragrafoan zehazten den aukera erabili ahal izateko zein aukera horri uko egiteko, talde horretako sozietate nagusiak horretarako jakinarazpena bidali behar dute, eta beren erabakiak talde fiskaleko gainerako sozietate guztiak lotetsiko ditu.

2. Aurreko paragrafoan zehazten den aukerari uko egiteko, jakinarazpen bat bidali behar zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari, hobari hori erabiliko den zergaldia hasi aurreko azken-aurreko hilean.

3. Sozietateen gaineko Zergaren zergapekoek eta, horrelakorik badago, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergapekoek ikerketa eta garapeneko eta berrikuntza teknologikoko jardueretan bakar-bakarrik diharduten langileen Gizarte Segurantzarako kotizazioetan hobaria ezartzeko aukera erabiltzea erabakitzen badute, orduan zergapeko horiek ezin izango dira aldi berean Sozietateen gaineko Zergaren uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 40. eta 41. artikuluetan jarduera horietarako jasotako kenkari-araubidearen onuradun izan.

35. artikulua. Kenkaria garapen iraunkorra, ingurumenaren zaintza eta hobekuntza zein energia iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzera zuzentzen diren proiektuekin loturiko inbertsio eta gastuengatik.

1. Zergaren foru arauak 43. artikulua 2. apartatuko b) letran ezartzen dena betetzearren, honako gai hauek hartuko dira xede dituzten proiektuak garapen iraunkorraren eta ingurumenaren zaintza eta hobekuntzaren alorreko proiektutzat:

a) Hondakinak minimizatzea, berrerabiltzea eta balorizatzea: talde honetan sartuko dira aurreko Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta lege hori garatzeko araudian jasotzen diren definizioen arabera norberaren edo hirugarrenen hondakinak gutxitzea bilatzen duten proiektuak. Ondorio horietarako, balorizazioa izango da bai birziklapena (konpostajea eta biometanizazioa barne) bai balorizazio energetikoa.

b) Mugikortasuna eta garraio iraunkorra: talde honetan sartuko dira emisio kutsatzaileak (emisioek legeztan duten definizioaren arabera) gutxitzea lortzen duten proiektuak, eta erregai fosilen kontsumoa gutxitzea eragiten dutenak ere bai.

c) Natura-guneetako ingurumena leheneratzea, konpentsazio neurriak edo bestelako borondatezko ekintzak gauzatzearen ondorioz: talde honetan sartuko dira ekosistemen egitura eta funtzionamendua berrezarritik natura-inguruneak ingurumenaren aldetik duen kalitatea hobetzen laguntzen dutenak.

Biziberritze-jardueretan egindako ordainketak kenkariaren oinarrian sartuta daudela joko da, baldin eta inbertsiogilearen aktibo higiezinaren parte izango badira. Jarduera horiek egin daitezke edo administrazio ebazpen batean jaso diren konpentsazio neurri ez derrigorrezkoak betetzearen ondorioz, edo izadian eragina duten bestelako borondatezko jarduketa batzuen ondorioz.

d) Ur kontsumoa minimizatzea eta ura araztea: talde honetan sartuko dira hobekuntza dakarten proiektuak; eta hobekuntzarik dagoen ala ez neurtzeko, sozietateak legez dituen arazketa betebeharrekin alderatuko da, edo, bestela, inbertsio aurreko ur kontsumoekin.

Ur kontsumoan izandako aurrezkia edo arazketa da instalazioetan berrikuntza teknologikoak ezartzeko egin den inbertsioaren ondorioz lortutako emaitza.

e) Energia berriztagarrien erabilera: talde honetan iturri berriztagarriak aprobetxatzeko proiektuak sartuko dira, baldin eta haiek sortzen duten energia zuzeneko kontsumorako erabiltzen bada inbertsiogilearen instalazioetan bertan, edo, bestela, banaketa-sareetan sartzeko erabiltzen bada.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa hala izanik ere, energia eguzki-plaka fotovoltaiakoen bitartez sortzen bada eta banaketa-sareetara eramateko erabiltzen, kenkaria aplikatu ahal izateko, beharrezkoa izango da, gainera, inbertsioak egiten diren zonetan eguzki orduen urteko batez bestekoa ez izatea 2500 ordutik gorakoa Metereologia Estatu Agentziak kaleratutako informazioaren arabera.

Eguzki orduen urteko batez bestekoa konputatzeko, kontuan hartuko da kenkaria aplikatzen den zergaldiko sortzapen urtea hasi aurreko lehen urte naturala.

f) Energia eraginkortasuna; talde honetan inbertsiogilearen intentsitate energetikoa txikitzea dakarten proiektuak sartuko dira.

Horri dagokionez, intentsitate energetikoa da produktu-unitate bakoitzeko kontsumitzen den energia kopurua (energia-kontsumo espezifikoa), edo, zerbitzuen sektoreko enpresetan, negozioen kopuru garbiaren arabera kontsumitzen den energia kopurua (energia aurrezkia).

2. Aurreko 1. apartatuan zehazten diren gutxitzeak edo hobekuntzak kalkulatzeko, proiektuaren burutzapena hasten den lehenengo zergaldiaren aurreko zergaldia hartuko da kontuan.

Enpresa ezarri berriak badira, gutxitzeak edo hobekuntzak kalkulatu ahal izateko funtzionamendurako eredu estandarrak hartuko dira aintzat; ereduok ingurumen alorrean eskumena den departamentuko diputatuaren foru agindu bidez zehaztuko dira.

3. Sozietateek proiektu bakoitzeko jakinarazi behar dute kenkaria ezarriko dutela, eta horretarako, idazki bat bidali behar diote Gipuzkoako Foru Aldundian ingurumen alorrean eskumena duen departamentuari, zergadunak kenkaria ezartzen duen lehenengo zergaldia amaitu aurretik. Jakinarazpenak honako informazio hau jaso behar du, gutxienez:

a) Proiektuaren deskribapen zehatza; haren xedea identifikatu behar da eta artikulua honetako 1. apartatuko zein kasutan sartzen den adierazi.

b) Egin beharreko inbertsio planaren kuantifikazioa eta inbertsiook egiteko egutegia.

c) Erabiliko den teknologia, haren jatorria eta aurretik dauden erreferentziak.

d) Sektoreko Administrazioak edo entitate homologatuek eman beharreko baimena, adostasun txostena eta/edo ziurtagiria. Eskabidea aurkezten duenean zergadunak ez badu aurreko agirietako bat ere ez, eskatutakoa onartzen zaionean aurkeztu behar ditu nahitaez.

4. Zergaren foru arauak 43.3 artikuluan xedatzen duenaren arabera, Zerga Administrazioak Gipuzkoako Foru Aldundian ingurumen alorreko eskumena duen departamentuak emandako ziurtagiria aurkeztea eskatzen badio zergadunari, horrek sei hilabeteko epea edukiko du ziurtagiri hori aurkezteko. Ziurtagiri horretan, inbertsio horiek kenkaria ezarri ahal izateko egokiak direla jaso behar da.

Zergadunak, hari bakarrik egozgarriak diren arrazoiak direla eta, ziurtagiri hori arestian aipatutako epean aurkezten ez badu, kenkaria ezartzeko eskubidea galduko du.

Orobat, zergadunak, bere borondatez, Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioarekin batera aurkez dezake ziurtagiri hori, kenkari hau ezarri duela justifikatze aldera.

36. artikulua. Kenkaria lanbide heziketako gastuengatik.

1. Zergaren foru arauak 44. artikuluan jasotako kenkaria aplikatzearen ondorioetarako, entitateak zuzenean garatutako prestakuntza saiotzat hartuko da entitatearen bitarteko materialak eta giza baliabideak erabiltzen direnean. Hirugarrenen bitartez garatutako prestakuntza saiotzat hartuko da, berriz, langileak eguneratu, trebatu edo birziklatzeko behar diren saio edo ikastaroak oso-osorik edo zati batean kontratatatuak direnean.

2. Enpresako langileen soldata eta alokairuak enpresaren zuzeneko prestakuntza saioen gastuen barruan sartuta daudela ulertuko dira, langile horiek ematen dituzten ikastaroei eta gainerako prestakuntza saioei egozgarria zaien zatian.

3. Inoiz ere ez dira kenkariaren oinarrian konputatuko enpresaren ikastaroak eta gainerako prestakuntza saioak hartzen dituzten langileen soldata eta alokairuak, enpresak zuzenean eman edo ez.

37. artikulua. Kenkaria enpresen gizarte aurreikuspeneko tresna gisa jarduten diren gizarte aurreikuspeneko sistemei enpresek egiten dizkieten kontribuzioengatik.

Ulertu behar da subjektu pasiboak zergaren foru arauaren 44. artikuluan jasotako enpresen gizarte aurreikuspeneko tresnei egiten dizkien kontribuzioek langileen kolektiboari eragiten diotela, beharkizun hauek betetzen direnean:

a) Subjektu pasiboa sustatzailea edo bazkide babeslea izatea.

b) Sustatzaileak edo bazkide babesleak enplegatutako langile guztiak bilduta egotea edo biltzeko moduan egotea subjektu pasiboa sustatzailea edo bazkide

babeslea den gizarte aurreikuspen enpresarialeko tresna batera, hartan sartzeko bi urtetik gorako antzintasuna eskatu gabe.

Ondorio horietarako, langileztat hartzen da lan harreman baten bidez sustatzailearekin edo bazkide babeslearekin lotuta dagoen besteren konturako langilea edo soldatapeko langilea, barne hartuta lan harreman berezia duten langileak eta bazkide langileak eta lan-bazkideak sozietate kooperatiboan eta lan sozietateen eremuan sustatutako enpresen gizarte aurreikuspeneko tresna barruan.

c) Kontribuzio enpresarialak egin beharko dira akordio kolektiboaren edo antzeko xedapenaren bidez finkatutako irizpideen arabera edo, bestela, subjektu pasiboa sustatzailea edo bazkide babeslea den gizarte aurreikuspen enpresarialeko tresnaren zehaztapenetan jasotakoaren arabera. Aipatu irizpideak proportzionalak izango dira langile guztiei eragiten dieten parametro zenbakarriekin, hala nola soldatarekin, adinarekin, antzintasunarekin edo langileen ekarpenen zenbatekoarekin edo beste batzuekin.

37.bis. artikulua. Kenkaria enplegua sortzeagatik.

1. Zergaren foru arauak 45. artikuluan araututako enplegua sortzeagatik kenkaria aipatu xedapenean aipatutako ekitaldian formalizatutako lan kontratu mugagabe bakoitzeko aplikatuko da.

Halere, kenkaria jasotzeko eskubidea izateko, ezinbestekoa da lan kontratua formalizatzearekin batera lan kontratu mugagabea duen plantillaren batez bestekoa gehitzea aurreko lehen ekitaldian zegoen batez bestekoaren aldean.

Horretarako, beharrezkoa izango da lan kontratu mugagabea duen plantillaren batez bestekoa gehitzea, gutxienez, aurreko lehen ekitaldiko batez bestekoaren aldean, kenkari eskubidea dakarten lan kontratuen ondorioz sortutako lanpostu adina.

Kenkari eskubidea dakarren lan kontratu baten ondorioz plantillan izandako batez bestekoaren gehikuntza zergaldi batean baino gehiagotan gauzatzen bada, aurreko paragrafoan aipatutako beharkizuna gehikuntza hori finkatzen den zergaldietan bete beharko da.

Lan kontratu mugagabea duen plantillaren batez bestekoa, behin aurreko bi paragrafoetan jasotakoaren arabera gehituta, kenkari eskubidea sortzen den zergaldia itxi ondorengo bi urteetako bakoitzean mantendu behar da.

1. apartatu honetan xedatutakoa betetzen ez denean, zergadunak egoera hori gertatzen den zergaldiko kuotari gehitu beharko dio plantillaren batez bestekoan lortu ez den gehikuntzaren zatiari dagokion kenkariaren zati proportzionala, dagozkion berandutza interesekin batera.

2. Kenkari eskubidea sortzen duen kontratua formalizatu den zergaldia bukatu ondoko bi urteetan hasten diren zergaldietan zergapekoak lan kontratu berria egiten baldin bada, eta kontratu horrek kenkari eskubidea sortzeko betekizunak betetzen baditu eta aurreko ekitaldi batean sortutako kenkaria aplikatzeko eskubidea finkatzeko beharrezkoa baldin bada, lan kontratu horrek ez du kenkarirako eskubiderik sortuko aipatu eskubidea finkatzeko beharrezkoa den zatian.

3. Lan merkatuan sartzeko zailtasun berezia duten giza taldeetako batean dauden pertsonen egindako lan kontratuei dagokienez aplikatuko da enplegua sortzeagatiko kenkari gehitua; kontratu horren ondorioz, gehitu behar da bai zergapekoaren lan kontratu mugagabeko plantillaren batez bestekoa eta bai lan merkatuan sartzeko zailtasun berezia duten giza taldeetakoiei dagokien lan kontratu mugagabeko plantillaren batez bestekoa, horretarako aurreko 1. eta 2. apartatueta jasotako erregelak aplikatuta.

4. Enplegua sortzeagatiko kenkari gehitua aurreko apartatuan jasotakoaren arabera aplikatzen denean, mantendu beharko dira lan kontratu mugagabeko plantilla osoaren gehikuntza eta kontratu mota horren bidez kenkari gehitua egiteko eskubidea sortzen duen giza taldeari dagokion plantilla gehikuntza, artikulua honen aurreko apartatueta jasotakoari jarraituz.

Aipatu giza taldeari dagozkion lanpostuen gehikuntza mantentzen ez denean, baina bai, ordea, lanpostu zerrenda osoarena, erregularizazioa egin beharko da.

5. Zergaren foru arauak 45.1 artikuluan aipatzen duen lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziko giza taldeetat hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoen indarrean dagoen araudian hala zehaztutakoak.

6. Zergaren foru arauaren 45. artikuluan ezarritako kenkaria aplikatzeko finkatu diren beharkizunak bete ezean, zergapekoak kenkaritik eratorritako kuota sartu beharko du, berandutza interesekin batera, ez-betetze hori gertatu den zergaldiko autolikidazioan.

IX. kapituluak: Enpresa txiki eta ertainak

38. artikulua. Enpresa txiki eta ertainen kontzeptua.

1. Enpresa txiki eta ertainetarako aurreikusten den erregimena aplikatu nahi denean, Zergaren Foru Arauak 49. artikulua 1. eta 2. apartatueta ezartzen dituen baldintzak aurreko ekitaldian bete beharko dira.

¹³**2.** Aurreko apartatuan aipatutako 1. eta 2. apartatueta a) letran xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da entitate batek ustiapen ekonomiko bat egiten duela jarduera ekonomiko bat garatzen duenean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ezarritakoaren arabera.

¹⁴**3.** Aipatu diren 1. eta 2. apartatu horien c) letretan jasotako baldintzaren konputuari dagokionez, plantilak ezingo du, hurrenez hurren, 50 edo 250 langiletik gorakoa izan dagokion zergaldiko edozein egunetan.

¹³ Artikulu hau Azaroaren 23ko 33/2010 Foru Dekretuaren artikulua bakarraren hirugarren apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen duena eragiketa lotuak dokumentatzeko obligazioei dagokienez. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun jarriko da indarrean. Aldaketa hau 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da. (2001-12-1eko GAO).

¹⁴ Artikulu hau Azaroaren 23ko 33/2010 Foru Dekretuaren artikulua bakarraren hirugarren apartatuak zenbakiz aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen duena eragiketa lotuak dokumentatzeko obligazioei dagokienez. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun jarriko da indarrean. Aldaketa hau 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da. (2001-12-1eko GAO).

¹⁵4. Aurreko ekitaldia urtebetekoa baino laburragoa denean, eragiketa bolumenari dagokion magnitudea bakarrik parekatuko da urtearekin. Entitatea sortu berria denean modu berean jokatu da.

¹⁶5. Zergaren foru arauak 49. artikulua 4. apartatua dioena gertatzen denean, ibilgetu garbia eta eragiketen bolumena bidezko diren deuseztapenak kontuan harturik konputatu dira, beti ere abenduaren 20ko 1815/1991 Errege Dekretuak, urteko kontu kontsolidatuak egiteko arauak onartzen dituenak, III. kapituluaren 4. sekzioan esandakoari jarraituz.

39. artikulua. Enpresa txiki eta ertainen ibilgetu material berriaren elementuak amortizatzea.

Zergaren Foru Arauak 50. artikulua 1. apartatua aipatzen dituen ibilgetu materialaren elementu berriak 1996ko urtarrilaren 1etik aurrera martxan jarriak direnean, artikulua horretan xedatutakoaren arabera amortizatu ahal izango dira.

40. artikulua. (indargabetua) ¹⁷

41. artikulua. (Indargabetua)

X. kapituluak: Aplikatzea atzerriko balioen edukitzako entitateen araubide berezia eta bat-egiteei, zatiketei, aktiboen ekarpenei, balore trukaketari, aktibo eta pasibo osoaren lagapenari eta europar sozietate baten edo europar sozietate kooperatibo baten sozietate helbidea Europar Batasuneko estatu batetik bestera aldatzeari buruzko araubide berezia¹⁸

42. artikulua. Atzerriko baloreen entitate edukitzaileen erregimena. Erregimena aukeratzen dela eta hari uko egiten zaiola jakinaraztea.

¹⁵ Artikulu hau Azaroaren 23ko 33/2010 Foru Dekretuaren artikulua bakarren hirugarren apartatua zenbakiz aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen duena eragiketa lotuak dokumentatzeko obligazioei dagokienez. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Aldaketa hau 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da. (2001-12-1eko GAO).

¹⁶ Artikulu hau Azaroaren 23ko 33/2010 Foru Dekretuaren artikulua bakarren hirugarren apartatua zenbakiz aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen duena eragiketa lotuak dokumentatzeko obligazioei dagokienez. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Aldaketa hau 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da. (2001-12-1eko GAO).

¹⁷ 40. Artikulu hau Uztailaren 28ko 26/2009 Foru Dekretuaren 9. artikulua aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen du. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Aldaketa hau 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2009-08-11ko GAO).

¹⁸ X. Kapitulua honen izenburua Uztailaren 28ko 26/2009 Foru Dekretuaren 10. artikuluko Bat apartatua aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen du. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Aldaketa hau 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2009-08-11ko GAO).

1. Atzerriko baloreen entitate edukitzaileei aplikatzen zaien erregimena aukeratzen dela Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari jakinaraziko zaio.
2. Erregimena komunikazio horren ondoren amaitzen den zergaldiari aplikatuko zaio, bai eta erregimenari uko egin izana Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari jakinarazi aurretik amaitzen diren hurrengo zergaldiei ere.

43. artikulua. Bat-egiteei, zatiketei, aktiboen ekarpenei, balore trukaketari, aktibo eta pasibo osoaren lagapenari eta europar sozietate baten edo europar sozietate kooperatibo baten sozietate helbidea Europar Batasuneko estatu batetik bestera aldatzeari buruzko araubidea.¹⁹

1. Zergaren foru arauak VIII. tituluaren X. kapituluaren ezartzen duen araubidea aplikatu ahal izateko, haren aldeko aukera egin beharko da foru arau horren 104.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.
2. Ogasun eta Finantza Departamentuari artikulua honetan ezartzen den eran jakinaraziko zaio aukera hori egin dela.
3. Eragiketaren eskritura publikoa inskribatu ondorengo hiru hilabeteen barruan jakinarazi behar da hautatutako araubidea.

Inskripzioa ez bada beharrezkoa, epea eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoa egiten den egunetik aurrera konputatuko da, eta gainera, zergaren foru arauak 104.3 artikuluan xedatzen duenez, eskrituran nahitaez adierazi beharko da araubidea aplikatzeko aukera egin dela.

Sozietate helbidea aldatzeko eragiketetan, komunikazioa egin behar da eskritura publikoa edo eragiketa dokumentatzeko erabilitako agiri baliokidea sozietate helbide berriaren estatu kideko erregistroan inskribatu ondorengo hiru hilabeteetako epean.

4. Bat-egite edo zatiketa eragiketak direnean, aurreko apartatuan aipatu den komunikazioa entitate eskuratzaillearen edo eskuratzaileren zeregina izango da.

Bat-egite edo zatiketa eragiketak egiten badira entitate eskuratzaillearen eta entitate eskualdatzaillearen egoitza fiskala Espainian izan gabe, eta eragiketa horietan zergaren foru arauak 91. artikuluan jasotzen duen araubidea ezin bada aplikatu entitate eskuratzailleak ez izateagatik herrialde horretan establezimendu iraunkorrik, eragindako bazkide egoiliarak aukeratuko du araubide berezia aplikatzea. Sozietateen gaineko Zerga edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga autolikidatzeko ereduaren hala adieraziz egingo du bazkide horrek aukera hori.

5. Diruzkoak ez diren ekarpenak egiten direnean eta aktibo eta pasibo osoa lagatzen denean, entitate eskuratzaileri edo eskuratzaillei dagokie komunikazioa aurkeztea.

¹⁹ 43. Artikulu hau Uztailaren 28ko 26/2009 Foru Dekretuaren 10. artikuluko Bi apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen du. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Aldaketa hau 2009ko urtarilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2009-08-11ko GAO).

Entitate horien egoitza fiskala Espainian ez dagoenean eta herrialde horretan establezimendu iraunkor baten bidez aritzen ez denean, komunikatzeko obligazioa pertsona edo entitate eskualdatzaileak izango du.

6. Baloreak trukatzeko direnean, komunikazioa entitate eskuratzailerak aurkeztuko du.

Baloreak eskuratzeko dituen entitatea eta baloreak trukatzeko dituen entitate partaidetua ez badira Espainian egoiliarak, eragindako bazkide egoiliarak aukeratu du araubide berezia aplikatzea. Sozietateen gaineko Zerga edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga autolikidatzeko ereduaren dena delako laukian hala adieraziz egingo du bazkide horrek aukera hori.

7. Sozietate helbidea aldatzeko eragiketetan, sozietateak berak aurkeztu behar du komunikazioa.

8. Komunikazio horretan eragiketan parte hartzen duten entitateen identifikazio datuak adieraziko dira, eta eragiketa bera ere deskribatuko da. Behar denean, komunikazioari ondoko dokumentazioa erantsiko zaio:

a) Bat-egite edo zatiketa kasuetan, Merkataritza Erregistroan bat-egite edo zatiketari buruz inskribatutako eskritura publikoaren kopia, eta, era berean, merkataritza arauari jarraituz erregistroan inskribatzeko eskriturari derrigorrez erantsi behar zaizkion beste dokumentuen kopia.

Inskripzioa ez bada beharrezkoa, eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoaren kopia aurkeztu behar da. Gainera, zergaren foru arauak 104.3 artikuluan xedatzen duenez, nahitaez eskrituran adierazi beharko da araubidea aplikatzea aukeratu dela.

b) Diruzkoak ez diren ekarpenak egiten direnean, aktibo nahiz pasibo osoa lagatzen denean, edota baloreak trukatu direnean, kapital soziala eratu edo zabaldu izanaren eskritura publikoaren kopia, eta merkataritza arauari jarraituz eskriturari derrigorrez erantsi behar zaizkion beste dokumentuen kopia.

Kapital soziala eratu edo zabaltzeko eskritura ez bada beharrezkoa, eragiketa dokumentatzen duen eskrituraren kopia aurkeztuko da.

c) Aurreko eragiketak akzioak erosteko eskaintza ireki baten bidez burutu badira, horri dagokion eskuorri informatiboaren kopia ere aurkeztu beharko da.

d) Sozietate helbidea aldatzeko eragiketetan, eskritura publikoaren kopia edo eragiketa dokumentatzeko erabilitako agiri baliokidearen kopia, eta helburuko estatu kideko erregistroan izena emateko derrigorrez aurkeztu beharreko beste agirien kopia.

9. Zergaren foru arauak 96. artikuluen 3. apartatuko bigarren paragrafoan aipatutako kasuetan, entitate eskuratzailerak ondorengo informazioa aurkeztu beharko du, aipatu xedapenean jasotako kenkaria egin den ekitaldietako Sozietateen gaineko Zergaren aitorpenarekin batera:

a) Entitate eskualdatzailearen identifikazioa, eta horretan edukitako partaidetza portzentajearena.

b) Entitate eskualdatzailearen partaidetzen erosketa balioa eta data, bai eta partaidetza horiei dagokien fondo propioen balioa ere, urteko kontu homogeneizatuen bidez zehaztuta.

c) Justifikatzea bai balorazio eta denbora homogeneizaziorako irizpideak eta bai entitate eskualdatzailearen ondasun eta eskubideei egozteko irizpidea, haren partaidetzen erosketa-prezioaren eta partaidetza horiek entitate hori desegin den datan duten fondo propioen balioaren arteko diferentziari dagokionez.

XI. kapitulua: Enpresak sustatzeko sozietateak

44. artikulua. Enpresak sustatzeko sozietateen erregimen berezia aplikatzeko eskatzea.

1. Zergaren Foru Arauak 60. artikuluan jasotzen duen erregimena enpresak sustatzeko sozietateek aurrez eskatzen dutenean aplikatuko da.

2.²⁰ Eskaera Zerga Administrazioari egin eta horretan tramitatuko da, foru dekretu honen 48. artikuluan ezarritako prozedura orokorrari jarraikiz eta artikuluhonetan jasotako berezitasunak aplikatuta.

Alabaina, prozeduraren ebazpena jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da gehienez, eta behin epe hori igarota ezetsitzat joko da subjektu pasiboaren eskaera.

3. Erregimen hau aplikatuko ahal izateko, Ogasun eta Finantza Departamentuak espreski baimendu beharko du bere emakida.

4. Eskaera orriari honako agiri hauek erantsiko zaizkio:

a) Eratze eskrituraren kopia.

b) Estatutuen kopia eta, baldin badago, horiek aldatzeko proiektua.

c) Garatu nahi duten jardueraren azalpen memoria.

5. Eskaera orria erregimen berezia indarrean jarri nahi den lehen zergaldia amaitu baino gutxienez hiru hilabete lehenago aurkeztuko da.

Eratze bidean daude sozietateek ere eskatu ahal izango dute erregimen horretan sartzea. Horrelakoetan, eskaera eraketa egin aurreko edozein unetan aurkeztu ahal izango da.

45. artikulua. Enpresak sustatzeko sozietateen erregimena aplikatzeko eskubidea galtzea.

Enpresak sustatzeko sozietateen erregimena behin jasotakoan, sozietate baten tituluak Burtsan hasten badira kotizatzen, ez da galduko horregatik erregimen

²⁰ Apartatu hau Maiatzaren 19ko 14/2009 Foru Dekretuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, zenbait zerga prozedura ebazteko epeak finkatu eta horiek ez ebatzeak dakartzan ondorioak ezartzen ditu, Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean. (2009-5-28ko GAO).

berezi hau aplikatzeko eskubidea baldin eta titulu horiek gehienez urtebeteko epean eskualdatzen badira kotizatze onartuak izan diren egunetik aurrera.

XII. kapituluak: Interes ekonomikoko talde espainiar eta europarren, enpresen aldi baterako batasunen, ondare sozietateen, kontsolidazio fiskalaren eta zati batean salbuetsitako entitateen araubide bereziak²¹

46. artikulua. Interes ekonomikoko talde espainiar eta europarren betebeharrak, eta enpresen aldi baterako batasunenak.

1. Zergaren Foru Arauak VIII. tituluaren IV. kapituluan jasotako erregimen berezia aplikaziozkoa zaien interes ekonomikoko talde espainiar eta europarrek aurkeztu beharko dute, zerga horren aitortpenarekin batera, lurralde espainiarrean egoiliar diren bazkideen zerrenda edo, bestela, zergaldiaren azken egunean bazkide izaerari lotutako eskubideak dituzten pertsona edo entitateen zerrenda. Honako datu hauek emango dira:

a) Identifikazioa, zerga helbidea eta partaidetza portzentajea, dela bazkideena dela bazkide izaerari dagozkion eskubide ekonomikoak hartzen dituzten pertsona edo entitateena.

b) Guztira egotzi beharreko zenbatekoak, ondoko kontzeptu hauek kontuan hartuta:

1.- Kontabilitate emaitza.

2.- Oinarri ezargarria.

3.- Barruko ezarpen bikoitza saihesteko kenkariaren oinarria, errentak sortzen dituen entitate mota, eta bertan duen partaidetza portzentajea.

4.- Nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko kenkariaren oinarria, eta errentak sortzen dituen entitatean duen partaidetza portzentajea.

5.- Hobarien oinarria.

6.- Hainbat jarduera egiteari pizgarria emateko kenkariaren oinarria eta, bidezkoa denean, ibilgetu materialaren elementu berrietan inbertitzeagatik kenkariaren oinarria.

7.- Interes ekonomikoko taldearen atxikipenak eta konturako sarrerak.

c) Erreserben kontura banatu diren dibidenduak eta mozkin partaidetzak. Sozietateak erregimen berezian aitortpena aurkeztu duen ekitaldietan lortutakoak bereizi beharko dira.

²¹ XII. Kapitulua honen izenburua Uztailaren 28ko 26/2009 Foru Dekretuaren 11. artikuluko Bat apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen du. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Aldaketa hau 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2009-08-11ko GAO).

2. Interes ekonomikoko sozietateek derrigorrez jakinarazi beharko diete beren bazkideei edo bazkide izaerari dagozkion eskubide ekonomikoak dituzten pertsona edo entitateei zeintzuk diren guztira egotzi beharreko zenbatekoak, eta zein den aurreko apartatuko b) letran aipatu diren kontzeptuengatik, zerga honen arauetan edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan jasotakoaren arabera egoztekoak diren neurrian, egin zaien egozpen indibiduala.

3. Dibidendu eta mozkin partaidetzak ez zergapetzeari buruz Zergaren Foru Arauak 55. artikulua 3 apartatuko lehendabiziko paragrafoan jasotakoaren ondorioetarako, enpresa taldeek honako informazio hau erantsi beharko dute urteko kontuen memorian:

a) Erregimen orokorraren barruan tributatu den zergaldietan lortuak izanik, zenbat dibidendu erabili diren erreserbetarako.

b) Erregimen berezian aitortu den ekitaldietan lortuak izanik, zenbat dibidendu erabili diren erreserbetarako. Lurralde espainiarrean egoiliar diren bazkideenak eta bertan egoiliar ez direnenak bereizi beharko dira hemen.

c) Dibidenduak eta mozkin partaidetzak erreserben kontura banatu badira, aurreko a) eta b) letretan aipatu diren hiru motetatik zein erreserba erabili den adierazi beharko da. Erreserba hori zein mozkin motetatik datorren hartuko da kontuan horretarako.

4. Urteko memoria horretan egin beharreko aipamenak apartatu horretako b) letran aipatu diren erreserbak existitzen diren bitartean egingo dira, baita entitateak erregimen berezian aitortzen ez duenean ere.

5. Artikulu honen 3 eta 4 apartatuetan jasotako informazio betebeharrak 3 apartatuko b) letran aipatutako erreserben titular diren ondorengo entitateei exijituko zaizkie.

6. Artikulu honen aurreko apartatuetan jasotakoa, aplikaziozkoa den neurrian, Zergaren Foru Arauak VIII. tituluaren V. kapituluaren jasotako erregimen bereziari lotutako enpresen aldi baterako batasunak behartuko ditu, zergaldiaren azken egunean lurralde espainiarrean egoiliar diren haien enpresa kideei dagokienez.

46.bis artikulua. Ondare sozietateen betebeharrak.

1. Zergaren Foru Arauak 66. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, ondare sozietateek informazio hau jaso beharko dute urteko kontuen memorian:

a) Zergaren Foru Arauak VIII. tituluaren VIII. kapituluaren jasotakoaz besteko erregimenean aitortu zuten zergaldiei dagozkien erreserbetara zuzendutako mozkinak.

b) Erregimen berezi honetan aitortu zuten zergaldietan erreserbetara zuzendutako mozkinak.

c) Dibidenduak eta mozkin partaidetzak erreserben kontura banatu badira, aurreko a) eta b) letretan aipatu diren bi motetatik zein erreserba erabili den adierazi beharko da. Erreserba hori zein mozkin motetatik datorren hartuko da kontuan horretarako.

2. Urteko memorian egin beharreko aipamenak aurreko apartatuko b) letran aipatu diren erreserbak existitzen diren bitartean egingo dira, baita entitateak erregimen berezi honetan aitortzen ez duenean ere.

3. Era berean, xehetasunez jaso beharko da gastuak errenta iturri desberdinen artean banatzearen emaitza zehazteko egin diren kalkuluei buruzko informazioa.

4. Artikulu honetan jasotako informazio betebeharrak artikulu honen 1 apartatuko b) letran aipatutako erreserben titular diren ondorengo entitateei ere exijituko zaizkie.

47. artikulua. Kontsolidazio fiskaleko erregimen berezia aplikatzea.

1. Kontsolidazio fiskaleko erregimena aukeratzen bada, Zerga Administrazioari jakinarazi beharko zaio.

Komunikazioak datu hauek jasoko ditu:

a) Zeintzuek osatzen duten talde fiskala.

Lurralde espainiarrean egoiliar ez diren eta sozietate nagusi diren entitateetako establezimendu iraunkorrak badira, lurralde espainiarrean egoiliar ez den entitate nagusiaren identifikazioa exijituko da, talde fiskala osatzen duten sozietateen identifikazioarekin batera.

b) Taldeko sozietateek kontsolidazio fiskaleko erregimena aukeratzeko hartu dituzten erabakien kopia.

c) Zein den sozietate nagusiak talde fiskala osatzen duten gainerako sozietate guztien aldean zuzenean edo zeharka izan duen partaidetza portzentajea, eta noiz erosi diren bakoitzari dagozkion partaidetzak.

Sozietate nagusiak adierazi beharko du Zergaren Foru Arauak 74. artikuluan ezartzen dituen baldintza guztiak bete egiten direla.

2. Zerga Administrazioak talde fiskalaren zenbakia jakinaraziko dio sozietate nagusiari.

47.bis artikulua. Alderdi politikoek beraien ustiapen ekonomikoak, Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita daudenak.²²

1. Alderdi politikoek zergaren foru arauak 118.2 artikuluan jasotako salbuespenak gozatuko badituzte, eskaera aurkeztu behar diote Ogasun eta Finantza Departamentuari, haiek ondorioa izango duten zergaldia amaitu aurretik.

Salbuespena eskatzen duen alderdi politikoak aurkeztu behar du, eskaera orriarekin batera, eraketa eskrituraren eta estatutuen kopia soila, Barne Ministerioko alderdi politikoek erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria eta,

²² 47. bis kapitulu hau Uztailaren 28ko 26/2009 Foru Dekretuaren 11. artikuluko Bi apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen du. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Aldaketa hau 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2009-08-11ko GAO).

azkenik, eskaerari lotutako ustiapen ekonomikoak bere jarduerarekin bat datozela azaldu eta zuritzen duen memoria.

Horretarako, ulertuko da ustiapen ekonomikoak alderdi politikoaren beraren jarduerarekin bat datozela:

- a) Bere helburuak lortzen zuzenean edo zeharka laguntzen dutenean.
- b) Salbuespen hau gozatzeak ez duenean desitxuratzen jarduera bera egiten duten enpresekiko lehiakortasuna.
- c) Salbuespena baldintza berdinetan ematea pertsonen talde generikoei. Ulertuko da baldintza hori ez dela betetzen alderdietako sustatzaileak, afiliatuak, konpromisarioak eta haien zuzendaritza eta administrazio organoetako kideak nahiz horietako edozeinen ezkontideak, 2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak jasotakoaren arabera eratutako izatezko bikoteetako kideak edo laugarren mailarainoko ahaideak direnean jardueraren hartzaile nagusiak edo, bestela, alderdiaren zerbitzuak erabiltzeko baldintza berezien onura jasotzen dutenean.

2. Ogasun eta Finantza Departamentuak salbuespenaren ebazpena arrazoituko du. Salbuespena emango bada, beti bete behar dira zergaren foru arauak VIII. tituluaren XV. kapituluan eta artikuluan honetan jasotako baldintzak eta beharkizunak.

Salbuespena eman dela ulertuko da aipatu departamentuak sei hilabeteko epean ez badu jakinarazi ebazpena.

3. Behin aurreko apartatuetan aipatutako salbuespena emanda, ondorengo zergaldietan aplikatzeko ez da beharrezkoa izango eskaera berriro aurkeztea, salbu hura ematea justifikatu zuten zirkunstantziak edo aplikaziozko araudia aldatzen badira.

Alderdi politikoak Ogasun eta Finantza Departamentuari jakinarazi behar dio salbuespena aplikatzeko exijitzekoak diren baldintza edo beharkizunetan egindako garrantzizko edozein aldaketa. Departamentu horrek adieraz dezake, 10 eguneko epean alderdi politikoari entzun ondoren, bidezkoa den edo ez salbuespena egiten jarraitzea. Era berean jokatu da Zerga Administrazioak edozein bide erabilita jakin duenean salbuespena egiteko baldintza edo beharkizunak aldatu direla.

4. Salbuespen hau aplikatzeko jarritako beharkizunak ez betetzeak berarekin ekarriko du hura egiteko eskubidea galtzea ez-betetzea gertatu den zergalditik bertatik aurrera.

5. Alderdi politikoek Ogasun eta Finantza Departamentuaren ziurtagiriaren bidez akreditatu behar dute, zergaren foru arauak 118. artikuluan 2. apartatuko laugarren paragrafoan aipatutakoaren arabera atxikitzeko edo kontura sartzeko obligazioaren salbuespenaren ondorioetarako. Dena den, aurretik aurkeztu behar dute eskaera, Barne Ministerioko alderdi politikoen erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiriaren kopiarekin batera.

Ziurtagiriaren indarraldia jaso behar da bertan; aipatu indarraldia ziurtagiria egiten denean hasi eta eskatzaileak indarrean duen zergaldia amaitzean bukatuko da.

XII.bis Kapitulua. Errentamendu finantzarioko kontratu batzuen zerga erregimena aplikatzea.

47.ter artikulua. Errentamendu finantzarioko kontratuak. Ondasunaren kostua berreskuratzegatik ordaindutako kopuruak noizdanik diren kenkaridun zehaztea.²³

1. Zergaren Foru Arauak 116. artikuluan 10 apartatuan jasotakoa aplikatuta subjektu pasiboak egiten duen eskaera foru dekretu honen 48. artikuluko prozedura orokorrean jasotakoaren arabera tramitatuko da, artikulua honetan jasotako berezitasunak kontuan hartuz.

2. Ondorioak izatea nahi den zergaldia amaitu baino gutxienez hiru hilabete lehenago aurkeztuko da eskaera. Eratzen ari diren entitateek Zergaren Foru Arauak 116. artikuluan 10 apartatuaren aplikazioa eskatu ahal izango dute, baldin eta eratzen badira eskaerak ondorioa izatea nahi den zergaldia amaitu baino lehenago.

Subjektu pasiboak eskaeran atzera egin ahal izango du, artikulua honetan aipatutako ebazpena jakinarazi aurretik.

3. Eskaeran ondoko datu hauek jaso beharko dira gutxienez:

a) Errentamendu finantzarioko kontratuari lotutako aktiboaren identifikazioa; ondasunaren kostua berreskuratzeko ordaindutako kopuruak kenkaridunak izan daitezela eskatu den egunaren aipamena, beti ere aktiboa funtzionatzeko moduan jarri aurrekoa.

b) Kontratazio edo eraikuntza aldiaren berezitasunak frogatzen dituzten datuak. Horretarako, kontratazio data, eta eraikuntza aldiaren hasiera eta amaiera datak dokumentatuko dira, eraikuntza aldia 12 hilabetetik gorakoa izanik. Era berean, aktiboaren izaera indibidualizatua eta ezaugarri teknikoak frogatuko dira.

c) Aktiboaren erabilpenaren bereizgarriak frogatzen dituzten datuak. Errentamendu finantzario bidez eskuratutako aktiboaren erabilpenari buruzko txosten ekonomikoa eta juridikoa aurkeztu beharko dira, eta zein kontratu formula eta nolako fluxu finantzario positibo eta negatiboak sortuko diren adieraziko da.

4. Era berean, Zerga Administrazioak egoki deritzen txosten teknikoak eskatu ahal izango dizkie arloa dela-eta eskumena duten organismo publikoei, partikularki ondasunaren eraikuntza-aldiaren berezitasunei buruz eta horren erabilpenaren ezaugarriei buruz. Aipatu txostena eskatzeak berarekin ekarriko du ebazpen epea etetea.

5. Artikulu honetan jasotakoaren arabera Zerga Administrazioari jakinarazitako izatezko zirkunstantziak funtsean aldatzen badira, aurretiazko baimena eman ez dela ulertuko da, eta subjektu pasiboak egoera erregularizatu beharko du.

²³ 47.ter kapitulu hau Uztailaren 28ko 26/2009 Foru Dekretuaren 11. artikuluko Bi apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen du. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Aldaketa hau 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2009-08-11ko GAO).

Erregulazio hori baldintzak bete ez diren zergaldiko zergaren aitorpenean egingo da. Eta ondasuna funtzionatzeko moduan jarri aurretik ordaindu eta une horren aurretik kendu diren kopuruen kuota osoa gehitu beharko zaio kuotari, berandutza interesak sartuta. Nolanahi ere, bidezkoak diren errekarquak eta interesak ere sartu beharko dira.

XIII. kapituluu: Eskaerak tramitatu eta onartzeko prozedura orokorra

48. artikulua. Eskaerak tramitatu eta onartzeko prozedura orokorra.

1. Eskatzen denarekin zuzenean lotuta dauden datuak jaso beharko dira eskaeran.

2. Eskaera aurkezteko epea kasu bakoitzean ezarritakoa izango da. Epea ezarri gabe badago, onartutako irizpideek eragina izan behar duten eragiketak gauzatu eta hurrengo hiru hilabeteen barruan aurkeztuko da.

Sujetu pasiboak atzera egin ahal izango du bere eskaeran.

3. Administrazioak beharrezko diren datu, txosten, aurrekari eta frogagiriak eskatu ahal izango dizkio sujetu pasiboari. Ebazpena sei hilabeteke epean eman beharko du eskaera aurkeztu edo eskatutako informazio gehigarria jasotzen den egunetik kontatzen hasita.

Sujetu pasiboak, audientzia tramitea egin aurreko prozeduraren edozein unetan, bidezko deritzen alegazioak egin ahal izango ditu eta egoki jotzen dituen dokumentu eta frogagiriak aurkeztu.

4. Prozedura hasitakoan, eta ebazpen proposamena idazteari ekin aurretik, espedienteu sujetu pasiboari erakutsiko zaio 15 egunez bidezko deritzen alegazioak egin eta egoki iritzitako dokumentu eta frogagiriak aurkez ditzan.

Prozeduran eta ebazpenean ez bada bestelako egintza, alegazio edo frogarik ageri edo kontuan hartzen sujetu pasiboak azaldutakoak baino, audientzia tramitea alde batera utzi ahal izango da.

5. Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenak arrazoitua egon beharko du.

Sujetu pasiboak bere eskaeran plan bat, irizpide bat edo kenkarirako aplikazio bat Zerga Administrazioari aurkezten dionean honek onar dezan, ebazpenak honako hau egin ahal izango du:

a) Sujetu pasiboak aurkeztutako plana, irizpidea edo kenkarirako aplikazioa bere horretan onartu.

b) Sujetu pasiboak prozeduran zehar aurkeztutako plana, irizpidea edo kenkarirako aplikazio alternatiboa onartu.

c) Sujetu pasiboak aurkeztutako plana, irizpidea edo kenkarirako aplikazioa atzera bota.

6. Aurreko 3. apartatuan aipatzen den epea behin amaituta, sujetu pasiboak egindako eskaera onartuta dagoela ulertuko da.

7. Artikulu honetan xedatutakoa izaera orokorrez aplikatuko da, baina foru dekretu honek gai bakoitzerako ezartzen dituen berezitasunak kontuan hartuz beti ere.

XIV. kapitulua: Zergaren kudeaketa

49. artikulua. Entitateen aurkibidea.

Zergaren Foru Arauak 120. artikuluan aipatzen duen entitateen aurkibidea urtarilaren 28ko 5/1992 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera aurkeztu behar diren zentsu aitopenen datuetatik abiatuta osatuko da.

Entitateen aurkibidean alta hartu, aldaketak egin edo baja emateko prozedurak aipatu foru dekretuan ezarritakoak izango dira.

50. artikulua. Entitateen aurkibidean alta berritzea eta albo-oharra kantzelatzea.

Gertatzen bada, Zergaren Foru Arauak 121. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, entitateen aurkibidean behin-behineko baja hartzea erabaki dela eta dagokion Erregistro publikoan beharrezko albo-oharra idatzi dela, Ogasuneko Zuzendari Nagusiak, entitate interesatuaren eskariz, alta eman dezake Aurkibide horretan eta albo-oharra kantzelatu, baldin eta entitate horrek bere zerga obligazio guztiak beteak baldin baditu.

51. artikulua. Kolaboratzeko betebeharra.

Gipuzkoako erregistro publikoetako titularrek eta notarioek Zergaren Foru Arauak 122. artikuluan arabera Ogasun eta Finantza Departamentuari hileroko bidali behar dioten entitateen zerrenda Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ezarriko duen tokian eta eran aurkeztuko da, honek erabakiko duen ereduaren arabera erabiltzeko. Zerrenda hori ordenagailuz zuzenean irakurriko den euskarrian aurkezteko baldintzak ere berak finkatu ahal izango ditu halaber.

52. artikulua. Ofiziozko itzulketa.

Zergaren Foru Arauak VIII. tituluaren XV. kapituluan aipatzen dituen sujetu pasiboak aitortzea aurkeztu beharko dute zerga honengatik, foru arauaren 129. artikuluan aurreikusten den itzulketa jasotzeko.

XV. kapitulua: Atxikitze eta kontura ordaintzeko obligazioa

53. artikulua. Atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errentak. Aplikazio eremua.

1. Atxikipena egin beharko da hartzaileari dagokion Sozietate Zergaren konturako ordaintza gisa, ondoko hauei dagokienez:

a) Edozein motatako entitateen fondo propioetan parte hartzeagatik edo kapital propioak hirugarrenei lagatzeagatik lortutako errentak eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 33. artikuluan jasotako gainerako errentak.

b) Jokoetan, sariketetan, zozketetan edo konbinazio aleatorioetan parte hartzeagatik ematen diren sariak, ondasun, produktu edo zerbitzu jakin batzuen eskaintza, sustapen edo salmentari lotuta egon ala ez.

c) Beste sozietate batzuetan administratzaile edo kontseilari kargua jasotzearen ondorioz lortutako kontraprestazioak.

d) Irudia ustiatzeko eskubidea lagaz edo hori erabiltzeko adostasuna edo baimena emanez lortutako errentak, ustiapen ekonomikoetatik eratorritako sarrerak izan arren.

e) Ondasun higiezin hiritarren errentamendu edo azpierrementamendutik eratorritako errentak, ustiapen ekonomikoetatik eratorritako sarrerak izan arren.

f) Inbertsio kolektiboko erakundeen ondare edo kapitalaren akzio edo partaidetzak eskualdatu edo berreskuratzearen ondorioz lortutako errentak.

2. Kontratu berean zerbitzu prestazioak edo ondasun higiezinaren lagapena hartzen direnean, eta horiekin batera Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 37. artikuluan jasotako ondasun eta eskubideen lagapena sartzan denean, zenbateko osoaren gainean egin beharko da atxikipena.

Kontratu berean finka landatarren errentamendu, azpierrementamendu edo lagapena hartzen denean, beste ondasun higigarri batzuekin batera, ez da atxikipena egingo, salbu eta negozio edo meatzeen errentamendua edo lagapena gertatzen bada.

3. Aurreko apartatuetan aipaturiko errentei dagokienez, hartzailearen Sozietateen gaineko Zergaren konturako sarrera bat egin beharko da errenta horiek gauzen bidez ordainduak direnean.

4. Atxikipenak eta konturako sarrerak Gipuzkoako Foru Aldundian ordaindu beharko dira abenduaren 18ko 68/2001 Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duenak, 90. artikuluan ezarritako irizpideen arabera.

54. artikulua. Atxiki edo kontura sartzeko obligazioaren salbuespenak.

Atxikipena edo konturako sarrera egitea ez da derrigorrezkoa izango honako hauei dagokienez:

a) Espainiako Bankuak jaulkitako baloreen etekinak, baldin eta moneta merkatuan eskuhartzeko tresna erregulatzailea badira, Altxorreko Letren etekinak eta Foru Aldundiak jaulkitako bestelako tituluen etekinak, baldin eta Aldundiak espreski hala adierazten badu.

Guztiarekin ere, kreditu entitateek eta gainerako finantza erakundeek beren bezeroekin Altxorreko Letren eragiketetan oinarritutako kontuen kontratuak egiten dituztenean, behartuta egongo dira atxikipena egitera kontu horien titularrek lortutako etekinengatik.

b) Estatuaren maileguek kreditu ofizialari egindako kontraprestazio moduan Altxorraren aldeko eskubidea sortzen duten interesak.

c) Espainiako Bankuaren erregistro berezietan inskribatuta egonik lurralde espainiarrean egoiliarrek diren kreditu entitateen eta kredituko establezimendu finantzarioen sarrera diren maileguen interesak eta komisioak.

Aurreko salbuespena ez zaie aplikatuko aipatu entitateen balore kartera osatzen duten estatuko edo atzerriko entitate publiko edo pribatuak jaulkitako obligazio, bono edo bestelako tituluen interesari eta etekinei.

d) Partaidetza Industrialen Sozietate Estatalak kapitalaren gehieneko partaidetza duen sozietateekin egiten duen mailegu, kreditu edo aurrerakinei buruzko eragiketa aktibo nahiz pasiboen interesak. Salbuespen honetan ezin dira sartu zedula, obligazio, bono edo antzeko beste titulu batzuen interesak.

e) Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1998 Legeko 63.2.c) artikuluan aipatutako balore erosketa edo salmenta eragiketei dagokienez emandako kredituen ondorioz inbertsio balore sozietateek jaso dituzten interesak, bai eta Inbertsio zerbitzuetako enpresen zuzenbide arauari buruzko uztailaren 20ko 867/2001 Errege Dekretuak 28. artikuluan 2 apartatuan aipatutako mailegu edo gordailuei buruzko eragiketa aktiboari dagokienez inbertsio zerbitzuetako enpresek jaso dituzten interesak ere.

Atxikipenik egin beharrik ere ez da egongo, futuro eta aukera finantzarioen merkatuetako kide gisa jarduteko eraturako bermeen kontraprestazio moduan balore sozietate edo agentziek jasotako interesari dagokienez, abenduaren 20ko 1814/1991 Errege Dekretuak, futuro eta aukera finantzarioen merkatu ofizialak arautzen dituenak, III. eta IV. kapituluetan aipatutakoari jarraiki.

f) Obligazioak akzio bihurtzeko primak.

g) Akzio edo partaidetzak jaulkitzeko primaren banaketatik eratorritako errentak.

h) Espainian egoitza duen sozietate nagusi batek Europako Batasuneko beste estatu batzuetan egoitza duten sozietate filialetatik jasotako mozkinak, erregelamendu honetako 55.2 artikuluan jasotako atxikipenari dagokionez, Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak 13. artikuluan 1 apartatuko g) letran ezarritako baldintzak betetzen direnean.

i) Ondasun higiezin hiritarrak errentan edo azpierrean ematetik datozen etekinak, ondorengo kasuetan:

- Enpresek beren langileentzat errentan hartutako etxebizitzak direnean.

- Errentariak errentatzaile berari urtean ordaindutako errenta 900 eurotik gorakoa ez denean.

- Errentatzailearen jardura apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemaileak, Jardura Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bateratua onartzen duenak, jasotako tarifen lehen sekzioaren 861 taldeko epigrafeetako batean sailkatuta dagoenean, edota, bestela, ondasun higiezin hiritarrak errentan edo azpierrean emateko ahalbidetzen duen beste edozein epigraferen arabera tributatu beharra izanik, errentan edo azpierrean ematen diren ondasun higiezinen balio katastralari 861 taldeko epigrafeetan ezarritako kuota kalkulatzeko arauak aplikatuta zero kuota ateratzen ez denean.

Ondorio horietarako, errentatzaileak beharkizun hori bete duela frogatu beharko dio errentariari, Fiskalitaterako eta Finantzatarako foru diputatuak erabakiko duenaren arabera.

- Etekinak uztailaren 29ko 26/1988 Legeak, kreditu entitateen disziplina eta eskuhartzeari buruzkoak, zazpigarren xedapen gehigarriaren 1 apartatuan aipatutako errentamendu finantzarioko kontratuetatik datozenean, beti ere ondasun higiezin hiritarrak badira.

j) Espainiako edo Europako interes ekonomikoko elkarte baten eta bere kideen artean exijitu daitezkeen etekinak, bai eta aldi baterako batasun baten eta bere enpresa kideen artean exijitu daitezkeenak ere.

k) Titulizazio fondoan sarrera diren partaidetza hipotekarioen, maileguen edo bestelako kreditu eskubideen etekinak.

l) Atzerriko kontuen etekinak, Espainian egoitza duten kreditu entitate nahiz establezimendu finantzarioek establezimendu iraunkorren bidez atzerrian ordaindu dituztenean.

m) Espainiak hitzartutako nazioarteko ituna dela medio zergatik salbuetsita dauden entitateei ordaindutako etekinak.

n) Baterakuntza fiskalaren erregimenean tributatzen duen taldeko sozietateen artean ordaintzen diren dibidenduak edo mozkin partaidetzak, interesak eta gainerako etekinak.

ñ) Interes ekonomikoko talde espainiar edo europarrek eta enpresen aldi baterako batasunek, salbu zergaren arau orokorreari jarraituta aitortu behar dutenek, banatzen dituzten dibidenduak edo mozkin partaidetzak, baldin eta oinarri ezargarriaren egozpena jasan behar duten bazkideei badagozkie eta Zergaren Foru Arauak VIII. tituluaren IV. eta V. kapituluetan jasotako erregimen berezien arabera aitortu diren zergaldietatik eratorri badira.

o) Zergari buruzko Foru Arauaren 9. artikuluan eta abenduaren 27ko 43/1995 Legean aipatzen diren entitate salbuetsiek lortutako errentak.

Entitate salbuetsiaren izaera zuzenbidean onartutako edozein frogabide erabiliz frogatu ahal izango da. Zerga Administrazioak entitate salbuetsiaren izaera frogatzeko bideak eta modua ezarri ahal izango ditu.

Zergaren Foru Arauak eta abenduaren 27ko 43/1995 Legeak 9. artikuluan aipatzen dituzten entitate salbuetsiek Zor Publikoko tituluekin lortzen dituzten etekinak zein prozeduraren bitartez geldituko diren atxikitzeko edo kontura ordaintzeko obligaziotik salbuetsita erabaki ahal izango da.

p) Zergaren foru arauak 33. artikuluan 2. apartatuan aipatzen dituen dibidenduak eta mozkin partaidetzak.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, entitate ordaintzaileak atxikitsera behartuta dagoen entitateari jakinarazi beharko dio aipatu artikuluan jasotako beharkizunak betetzen direla. Komunikazio horretan, gainera, hartzailearen identifikazio datuekin batera, aipatu beharkizunak betetzen direla frogatzen duten agiriak jasoko dira.

q) Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek aktibo finantzarioetatik lortutako errentak, baldin eta beharkizun hauek betetzen badituzte:

1.) Kontuko oharpenen bitartez adierazita egotea.

2.) Espainiako bigarren mailako balore merkatu batean negoziatuak izatea.

Dena den, kreditu entitateek eta gainerako entitate finantzarioek beren bezeroekin aktibo finantzarioen eragiketetan oinarritutako kontuen kontratuak egiten dituztenean, behartuta egongo dira atxikipena egitera kontu horien titularrek lortutako etekinengatik.

Letra honetan jasotako baloreen interesak ordaintzeko erabiltzen diren edo balore horien eskualdaketa, amortizazioan edo itzulketan esku hartzen duten finantza entitateek balorearen titularrari egozten zaion etekina kalkulatu beharko dute, eta horren berri bai titularrari eta bai zerga Administrazioari eman. Aipatu eragiketetan esku hartzen duten pertsonen datuak ere jakinaraziko dizkiote zerga Administrazioari.

Halaber, zenbateko nagusia eta kupoiak berezita negoziatzeko baimena duten zor publikoko baloreen bereizketa, eskualdaketa, berreraketa, berreskurapen edo amortizazioei dagokien bitartekaritza eta informazio betebeharrak ezarriko ditu Zerga Administrazioak. Hala gertatzen denean, Oharpen bidezko Zor Publikoko Merkatuaren entitate kudeatzaileak behartuta daude balorearen titularrari egotzitako etekina kalkulatzera eta horri buruzko informazioa titularrari nahiz Zerga Administrazioari ematera. Era berean, balore horiei buruzko eragiketetan parte hartzen duten pertsonen datuak ere emango dizkiote Zerga Administrazioari.

Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuari ahalmena ematen zaio letra honetan araututako atxikipen salbuespena gauzatzeko prozedura ezartzeko.

r) Aurreko artikulua 1 apartatuko b) letran aipatzen diren sariak, haien atxikipen oinarria 300,51 eurokoa baino handiagoa ez denean.

s) Sozietateen gaineko Zergaren zergadunek lortutako errentak, OCDEko herrialdeetako administrazio publikoek jaulkitako Zorretik datozen edo herrialde horietako merkatu antolatuetan negoziatutako aktibo finantzarioetatik eratortzen direnean.

Guztiarekin ere, kreditu entitateek eta gainerako finantza erakundeek aurreko parrafoan aipatu diren aktibo finantzarioen eragiketetan oinarrituta kontu finantzarioen kontratuak egiten dituztenean beren bezeroekin, derrigorrez egin beharko dute atxikipena kontu horien titularrek lortutako etekinengainean.

Letra honetan aipatzen diren baloreen interesak finantza entitateen bitartez ordaintzen direnean edo horiek baloreen eskualdaketa, amortizazio edo berreskurapenean esku hartzen dutenean, entitateek balorearen titularrari egozgarria zaion etekina kalkulatu beharko dute eta haren berri zerga Administrazioari eman. Era berean, lehen aipatu diren eragiketetan esku hartzen duten pertsonen buruzko datuak emango dizkiote.

Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak prozedura finkatu ahal izango du letra honetan arautzen den salbuespena gauzatu dadin.

t) Inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarearen akzio zein partaidetzak eskualdatu edo itzultzetik datozen errentak, honako hauek lortzen dituztenean:

1.- Inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legean arautzen diren inbertsio fondo finantzarioek eta kapital aldakorreko inbertsio sozietateek, baldin eta beren estatutuetan edo kudeaketa erregelamenduetan ezarrita badago beren ondarearen gutxienez %50 baino gehiago inbertsio kolektiboko erakunde baten baino gehiagoren akzio edo partaidetzetan inbertituko dela, eta erakunde horiek inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduak, azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 36.1 artikuluko c) edo d) paragrafoetan aurreikusita daudenetakoak badira.

2.- Inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legean arautzen diren inbertsio fondo finantzarioek eta kapital aldakorreko inbertsio sozietateek, baldin eta beren estatutuetan edo kudeaketa erregelamenduetan ezarrita badago gutxienez beren ondarearen %80 inbertsio fondo finantzario bakar batean inbertituko dela, eta inbertsio fondo hori inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduak, azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 3.3 artikuluko lehen tartekian arautzen dituenetako bat bada.

t) paragrafo honetan jasotakoren arabera atxikipenik ez aplikatzea zilegi izan dadin, ezinbestekoa izango da inbertsio erakundea sartuta egotea Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako inbertsio motetarako ezarria duen kategorian. Kategoria hori bere informazio eskuorrian agertu beharko da.

u) Pentsio planak aseguratzeagatik aseguru entitateek pentsio fondoei ordaindutako zenbatekoak.

v) Hartzaileak inbertsioaren arriskua bere gain hartzen duen bizi aseguruaren hornidurak inbertitzeko erabili diren aktiboak trukatzeari lortutako errentak.

Aurreko paragrafoan jasotakoa aplikatzeko, aseguru entitateek jakinarazi beharko diete, aktiboen eskualdaketa edo itzulketa dela-eta atxikipena egitera behartutako entitateei, aseguru kontratuan hartzaileak inbertsioaren arriskua bere gain hartzen duela eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 Foru Arauak 38. artikuluko 3 apartatuan jasotako beharkizunak betetzen direla. Atxikipena egitera behartutako entitateak komunikazioa gorde beharko du behar bezala sinatuta.

w) Aseguru entitateak likidatzeko funtzioak betetzean eta haien prozesu konkurtsalak gauzatzean Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoak lortzen dituen errentak, horren lege estatutuak 24. artikuluko 1 apartatuko hirugarren paragrafoan jasotakoari jarraituaz (abenduaren 19ko 21/1990 Legeak, bizi aseguru bezelako aseguruetako zerbitzu askatasunari eta aseguru pribatuetako legeriaren egunerapenari buruzko 88/357/EEE Arteztaraua Espainiako zuzenbide antolamendura egokitzen duenak, 4. artikuluan jasota dago).

x) Finantzaketa plan bati lotutako aseguru kolektiboko kontratu baten bidez bideratuta dauden pentsio konpromisoen aldaketaren ondorioz enpresa hartzaileetan agerian jartzen diren errentak, plan hura bete ez den bitartean,

Enpresek langile eta onuradunekin hartutako konpromisoak bideratzen dituen Erregelamenduak, urriaren 15eko 1588/1999 Errege Dekretuak, 36.5 artikulua bigarren paragrafoan jasotakoaren arabera.

y)²⁴ Inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko 35/2003 Legearen Erregelamenduak, azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 49. artikuluan arautzen dituen fondo eta sozietateetako partaidetzak edo akzioak berreskuratu edo eskualdatzeagatik sortutako errentak

z)²⁵ Baloreen Erregistro, Konpentsazio eta Likidazio Sistemak Kudeatzeko Sozietateak eskubide ekonomikoengatik jasotzen dituen ordainsariak eta konpentsazioak, otsailaren 14ko 116/1992 Errege Dekretuak, baloreak kontuko idaztoharren bidez eta burtsa eragiketen konpentsazio eta likidazioen bidez ordezkatzeari buruzkoak, 57. artikuluan jasotakoa betez egindako balore maileguetatik eratorriak direnean.

Era berean, aurreko paragrafoan aipatutako entitatea ez dago atxikipenak egitera behartuta 57. artikuluan jasotakoa betez hartutako balore maileguetatik eratorriak diren ordainsari eta konpentsazioengatik, azken horiek maileguak ematen dituzten entitate eta pertsonen ordaintzen dizkienean. Dena den, horrek ez du kentzen errenta horiei bidezko atxikipena egin behar izatea mailegu emailearen zerga pertsonalaren araudiari jarraituta. Izan ere, hala dagokionean, mailegu emaileari egindako ordainketan bitartekari den entitate partaideak egin beharko du atxikipena, eta ondorio horietarako, ez da ulertuko ordainketa-bitartekaritza soil bat egiten duenik.

z bis)²⁶ Higiezinaren merkatuetan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuen araubide bereziaren aplikazioa aukeratu duten sozietateek banatutako dibidenduak.

55. artikulua. Atxikitza edo konturako sarrera egitera behartuta dauden subjektuak.

1. Honako hauek atxikitza edo konturako sarrera egitera behartuta daude erregelamendu honetako 53. artikuluan jasotako errentak ordaintzen dituztenean:

²⁴ Y) letra hay Azaroaren 23ko 32/2010 Foru Dekretuak aldatu du. Dekretu honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. (2010-12-1eko GAO).

²⁵ Z) letra hau Maiatzaren 18ko 12/2010 Foru Dekretuaren 2. artikulua gehitu du. Aipatu Foru Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen abenduaren 18ko 13/2007 Foru Dekretua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Aldaketa hau 2010eko urtarrilaren 20tik aurrera aplikatuko da. (2009-05-21ko GAO).

²⁶ Letra hau abenduaren 23ko 39/2010 FORU DEKRETUAREN 2. artikulua gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatu eta Pertsona Fisikoen Errenta gaineko Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2011n aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jartzen da indarrean (2010-12-29ko GAO). Aldaketa honek 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

a) Pertsona juridikoak eta gainerako entitateak, bai eta ondasun eta jabe komunitateak nahiz errentak egozteko erregimenean ari diren entitateak ere.

b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunak, jarduera ekonomikoak egiten dituztenean eta jarduera horietan aritzeagatik errentak ordaintzen dituztenean.

c) Lurralde espainiarrean egoitzarik ez duten pertsona fisikoak, juridikoak eta gainerako entitateak, bertan establezimendu iraunkorraren bidez aritzen direnean.

2. Ez da ulertuko pertsona edo entitate batek errenta bat ordaintzen duela, ordainketa bitartekaritza soila egiten duenean (halakotzat ulertuko da diru kopuru bat hirugarren baten kontura eta haren aginduz ordaintzea), salbu eta lurralde espainiarrean egoiliarrek direnen atzerriko baloreak gordailatzen badituzte edo balore horietatik eratorritako errenten kobrantzaz arduratzen badira. Entitate gordailuzain horiek atxikipena egin behar dute baldin eta errenta horiek aldeztatik atxikipenik izan ez badute Espainian.

3. Sariak direnean, horiek ordaindu dituen pertsona edo entitatea egongo da behartuta atxikitzaera edo kontura sartzera.

4. Aktibo finantzarioei buruzko eragiketetan, honako hauek daude atxikitzaera behartuta:

a) Aktibo finantzarioak amortizatuz edo berreskuratuz lortutako etekinak badira, entitate edo pertsona jaulkitzaileak. Alabaina, eragiketa horiek egitea finantza entitate baten esku uzten denean, finantza entitate horrek egin beharko du atxikipena.

Beren jaulkipena egin ondoren aktibo finantzario bihurtu diren igorpen baliabideak direnean, horien epemuga behin iritsita, fede emaileak egingo du atxikipena edo, bestela, haien kobrantzaz arduratzen den finantza entitateak.

b) Aktibo finantzarioak, aurreko apartatuan aipatu diren igorpen baliabideak barne, eskualdatzean lortutako etekinak badira, eta eskualdaketa hori finantza entitate batek edo gehiagok bideratu badute, eskualdatzailearen izenean diharduen bankuak, aurrezki kutxak edo finantza entitateak egingo du atxikipena.

Zenbaki honetan xedatutakoaren ondorioetarako, aktibo finantzarioak saltzeko agindua jasotzen duen banku, aurrezki kutxa edo finantza entitatea izango da eskualdatzailearen izenean diharduena.

c) Aurreko apartatueta aipatzen ez diren kasuetan, eragiketan derrigorrez esku hartu behar duen fede emaile publikoak egingo du atxikipena.

5. Estatuaren Zorraren baloreak eskualdatzean, Oharpen bidezko Zor Publikoko Merkatuaren entitate kudeatzaileak egingo du atxikipena.

6. Inbertsio kolektiboko erakundearen kapital edo ondarearen akzio edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzen direnean, honako pertsona edo entitate hauek egongo dira behartuta atxikipena edo konturako sarrera egitera:

a) Inbertsio fondoen partaidetzak itzultzen badira, sozietate kudeatzaileak.

b) Kapital aldakorreko inbertsio sozietate batek, ez burtsan ez baloreak negoziatzeko beste merkatu edo sistema antolatu batean akziorik kotizatzen ez duenak, berriro erosten baditu subjektu pasiboak bere kabuz zein merkaturatzaile baten bitartez sozietateari aurrez erositako akzioak, atxikipena edo konturako sarrera sozietateak berak egingo du. Alabaina, sozietate kudeatzaile batek esku hartzen badu, honek egingo du atxikipena edo konturako sarrera.

c) Atzerrian helbideraturik dauden inbertsio kolektiboko erakundeak badira, atxikipena edo konturako sarrera akzio edo partaidetzak komertzializatzen dituzten entitateek nahiz komertzializatzeko ahalmena duten bitartekariak egingo dute, eta subsidiarioki, baloreak harpidedun posibleen artean merkaturatu nahiz banatzen dituzten entitateek, beti ere itzulketa egiten dutenean.

d) Zerbitzuen prestazio libreko erregimenean jarduten duten kudeatzaileak badira, apirilaren 6ko 2/2004 Foru Arauak, zenbait zerga neurri onartzen dituenak, bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera izendatutako ordezkaria egongo da horretara behartuta.

e) Atxikipena ezin bada egin aurreko letretan adierazitakoaren arabera, eskualdaketa egin duen edo dirua berreskuratu duen bazkide edo partaidea konturako ordainketa bat egin beharko du. Konturako ordainketa hori erregelamendu honetako 57.4, 58.3 eta 59. artikuluetan jasotako arauak jarraituz egingo da.

7. Atxikipena egitera behartuta dauden subjektuek hura ordaintzeko obligazioa ere hartuko dute beren gain, eta ez dira obligazio horretatik salbuetsita geldituko atxikitze obligazioa ez beteta ere.

Etekinak Foru Aldundiak ordaintzen duenean, dagokion atxikipena edo konturako sarrera zuzenean egingo da.

56. artikulua. Aktibo finantzarioen kalifikazioa eta aktibo finantzarioak eskualdatu, berreskuratu eta amortizatzeko betebeharrak fiskalak.

1. Baldin eta beren etekina sortzen baldin bada aktiboa jaulkitzean, lehen aldiz merkaturatzean edo endosua egitean ordaindutako zenbatekoak diferentzia bat duelako eragiketa horien epemugan itzultzeko aginduta zegoenaren aldean, etekin inplizituko aktibo finantzariotzat hartuko dira, beti ere eragiketa horien etekina, osorik edo zati batean, modu inplizituan finkatu baldin bada besteren kapitalak bereganatzeko erabilitako edozein balore higitarraren bidez.

Jaulkipen, amortizazio edo itzulketa primak etekin inplizituen barruan sartzen dira.

Etekin inplizituen kontzeptutik kanpo geratzen dira jaulkipen prezioaren gainean egindako hobariak edo kokapen primak, baldin eta merkatuko praktiken barruan sartzen badira eta beren osoan diru-sarrera bat osatzen badute dekretu honetan araututako aktibo finantzarioen jaulkipen edo zirkulazioan parte hartzen duen bitartekari edo merkaturatzaile finantzarioarentzat.

Igorpen baliabide guztiak, baita merkataritzako eragiketetan sortutakoak ere, endosatu edo eskualdatzen diren momentutik etekin inplizituko aktibo finantzariotzat hartuko dira. Endosua edo lagapena hornitzaileen kredituak ordaintzeko egiten denean, ordea, ez da halakotzat hartuko.

2. Interesak sortzen dituzten etekinak etekin esplizituko aktibo finantzariotzat hartuko dira. Halakotzat joko dira, halaber, kapital propioak hirugarrenei lagatzeagatik kontraprestazio gisa hitzartzen den beste edozein ordainketa era, beti ere aurreko apartatuan etekin inplizituei buruz emandako kontzeptuan sartzen ez bada.

3. Etekin mistoko aktibo finantzarioek urtean sortzen duten efektiboa jaulkipenaren unean indarrean dagoen erreferentzi tasaren berdina edo handiagoa bada, etekin esplizituko aktibo finantzarioen erregimena izango dute, nahiz eta jaulkitzeko, amortizatzeko eta itzultzeko baldintzetan, inplizituki, beste etekin gehigarri bat finkatuta izan. Erreferentzi tasa hori honako hau izango da hiruhileko natural bakoitzean: aurreko hiruhilekoan Estatuaren bono edo obligazioekin egindako azken enkantetik ateratako batez besteko prezio ponderatu eta biribilduari dagokion tasa efektiboaren 100eko 80a. Enkanteak izan daitezke hiru urtetarako bonoenak, lau urteko edo hortik beherako epea duten aktibo finantzarioak badira, bost urtetarako bonoenak, lau eta zazpi urte bitarteko epea duten aktibo finantzarioak badira, eta hamar, hamabost edo hogeita hamar urtetarako obligazioenak, epe handiagoa duten aktibo finantzarioak izanez gero. Epe bati buruzko erreferentzi tasa zehazterik ez dagoenean, pentsatutako jaulkipenari gehien hurbiltzen zaion epearena aplikatuko da.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, etekin aldakor edo flotakorra duten aktibo finantzarioak jaulki baldin badira, barruko etekin tasa hartuko da eragiketaren interes efektibotzat, eta etekin esplizituko etekinak baino ez dira kontuan izango. Sortutako etekinen behin betiko zenbatekoa aldian behin finkatzeko erabilitako parametroaren hasierako balorazioari begiratuko zaio tasa kalkulatzeko.

4. Gertatzen bada etekin inplizituko titulu edo aktibo finantzarioak nahiz etekin esplizitukoak saldu edo berreskuratu nahi direla, eta horiek eskualdatu, amortizatu edo berreskuratzean atxikipena izan behar dutela, derrigorrez egiaztatu beharko da horiek atxikipena egitera behartuta dauden fede emaile edo finantza entitateek parte hartuz eskuratu direla aldez aurretik, eta eragiketaren prezioa ere frogatu beharko da.

Zirkulazioan jarri ondoren igorpen baliabide bat aktibo finantzario bihurtzen denean, lehen endosua edo lagapena fede emaile publiko batek edo finantza entitate batek egin beharko du, non eta endosu hartzailea edo eskuratzzailea finantza entitate bat ez den. Fede emaileak edo finantza entitateak aktibo finantzario bat dela adieraziko dute agirian, eta lehen eskuratzzaile edo edukitzailea zein den ere azalduko dute.

5. Aurreko apartatuan jasotakoaren ondorioetarako, pertsona edo entitate jaulkitzaileak, horren izenean diharduen erakunde finantzarioak, fede emaile publikoak nahiz eskuratzzaile edo gordailu egilearen izenean diharduen edo eskuhartzen duen erakunde finantzarioak, bidezkoa denaren arabera, ziurtagiria luzatu beharko dute ondoko xehetasun hauek adieraziz:

- a) Eragiketaren eguna eta aktiboaren identifikazioa.
- b) Eskuratzzailearen izena.
- c) Eskuratzzaile edo gordailu egilearen identifikazio fiskaleko zenbakia.

d) Eskuratze prezioa.

Ziurtagiriaren hiru ale luzatuko dira. Horietako bi eskuratzailari emango zaizkio, eta bestea pertsona edo entitate ziurtagilearen esku geratuko da.

6. Erakunde finantzarioek edo fede emaile publikoek ez dute aktibo horien eskualdaketa bitartekaritza izango edo eskurik hartuko, eskualdatzaileak ez badu eskurapena frogatzen artikulua honetan xedatutakoaren arabera.

7. Zerbitzuen prestazio libreko erregimenean jarduten diren aseguru entitateek lurralde espainiarrean egindako eragiketetan, atxikipena edo konturako sarrera egitera behartuta egongo da Zenbait zerga neurri onartzen duen apirilaren 6ko 2/2004 Foru Arauak laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera izendatutako ordezkaria.

8. Atxikipena egitera behartuta dauden subjektuek hura ordaintzeko obligazioa ere hartuko dute beren gain, eta ez dira obligazio horretatik salbuetsita geldituko atxikitze obligazioa ez beteta ere.

Etekinak Foru Aldundiak ordaintzen duenean, atxikipena edo konturako sarrera zuzenean egingo da.

9. Eskualdaketa musu truke egitekotan, eskuratzaila eskualdatzailearen eskurapen balioan subrogatzen dela ulertuko da, baldin eta kostu hori behar bezala frogatzen bada.

57. artikulua. Atxiki edo kontura sartzeko obligazioaren kalkulurako oinarria.

1. Oro har, exijitu daitekeen edo ordaindu den kontraprestazio osoa izango da atxikitze obligazioaren kalkulurako oinarria.

2. Aktibo finantzarioak amortizatu, berreskuratu edo eskualdatzean, atxikitze obligazioaren kalkulurako oinarria izango da aktibo horien amortizazio, berreskurapen edo eskualdaketa balioaren eta eskurapen edo harpidetza balioaren arteko diferentzia. Eskurapen balioa eskurapenaren ziurtagiriaren jasotakoa hartuko da. Ondorio horioetarako, eragiketaren gastu osagarriak ez dira gutxituko.

Eskualdatzaileari egin dakioken atxikipenaren kaltetan gabe, entitate jaulkitzaileak aktibo bat eskuratzen bada eta aktibo hori berak jaulkitakoa bada, atxikipena eta konturako sarrera titularen geroko edozein eskualdaketatik lortutako etekinaren gainean egingo da, amortizazioa kanpo utzita.

3. Atxikitze obligazioa erregelamendu honetako 53. artikuluen 1 apartatuko b) letran jasotakoaren ondorio denean, sariaren zenbatekoa izango da kalkulurako oinarria.

4. Atxikitze obligazioa erregelamendu honetako 53. artikuluen 1 apartatuko f) letran jasotakoaren ondorio denean, akzio edo partaidetzen eskualdaketa edo berreskurapen balioaren eta eskuratze balioaren arteko diferentzia izango da kalkulurako oinarria.

5. Atxikitzeke obligazioa erregelamendu honetako 53. artikuluan 3 apartatua jasotakoaren ondorio denean, ondasunak merkatuan duen balioa izango da kalkulurako oinarria.

Horretarako, ordaintzailearentzat izan den eskuratze balio edo kostua 100eko 20 gehitu ondoren ateratzen den emaitza hartuko da merkatuko baliotzat.

6. Exijitu daitekeen edo ordaindu den kontraprestazio osoa ezin denean frogatu, Zerga Administrazioak halakotzat hartu ahal izango du, atxikipena kendu ondoren, benetan jasotako zenbatekoa hartzen duena.

7.²⁷ Atxikitzeke edo kontura sartzeko obligazioa sortzen bada zergaren foru arauak 16.8 artikuluan aipatutakotik eratorritako bigarren doiketagatik, atxikipenaren oinarria hitzartutako balioaren eta merkatuko balioaren arteko diferentzia izango da.

58. artikulua. Atxikitzeke eta kontura ordaintzeke obligazioa sortzea.

1. Atxikipenari edo konturako sarrerari lotuta dauden errentak, diruzkoak nahiz gauzazkoak, exijigarri egiten diren unean edo, lehenago bada, ordaintzen nahiz entregatzen direnean, sortuko da, izaera orokorrean, atxikitzeke eta kontura ordaintzeke obligazioa.

Bereziki, interesak exijigarriak izango dira eskrituran edo kontratuan likidazio edo kobrantzarako ezartzen diren mugaegunetan edo, bestela, kontuan beste moduren batez adierazten denean, nahiz eta hartzaileak horien kobrantza erreklamatu ez edo etekinak eragiketaren tronkoari metatuak egon. Dibidenduak, berriz, banatzeko akordioan ezarritako egunean izango dira exijigarriak, eta horretarako egunik jarri ez bada, orduan akordioa hartu eta hurrengo egunetik aurrera.

2. Kapital higigarriaren etekinak aktibo finantzarioak eskualdatuz, amortizatuz edo berreskuratuz lortu badira, atxikitzeke obligazioa aktibo horiek eskualdatu, amortizatu edo berreskuratzen diren unean sortuko da.

3. Inbertsio kolektiboko erakundeen kapital edo ondarearen akzio edo partaidetzen eskualdaketa edo berreskurapenen ondorioz lortutako errentak direnean, atxikitzeke edo kontura sartzeko obligazioa eragiketa gauzatzen den momentuan sortuko da, kobrantzarako hitzartutako baldintzak edozein izanik ere.

59. artikulua. Atxikipenaren edo konturako sarreraren portzentajea.²⁸

Atxikipenaren edo konturako sarreraren portzentajea hau izango da:

²⁷ 57. artikuluko 7. apartatu hau Uztailaren 28ko 26/2009 Foru Dekretuaren 12. artikulua aldatu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen du. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Aldaketa hau 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2009-08-11ko GAO).

²⁸ Artikulu hau abenduaren 23ko 40/2009 FORU DEKRETUAREN 2. artikulua aldatu du. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta Errenta Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2010ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen ditu. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. Aldaketa hau 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da (2009-12-30eko GAO).

A) Oro har, 100eko 19.

B) Irudia ustiatzeko eskubidea lagatzetik edo bere erabilpena onartu edo baimentzetik datozen errenten kasuan, portzentajea 100eko 24koa izango da.

60. artikulua. Atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa.

Atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa kalkulatzeko, aurreko artikuluan aipatutako portzentaia aplikatuko zaio kalkulurako oinarriari.

61. artikulua. Atxikitzaillearen eta kontura sartzera behartutakoaren betebeharrak.

1. Atxikitzailleak eta konturako sarrera egitera behartutako subjektuak hiruhilabetean behin aurkeztu beharko dute beraiek atxikitako kopuruen eta egindako konturako sarreraren aitortpena, aurreko lehen hiruhilabete naturalari dagokionez, bai eta haien zenbatekoa Gipuzkoako Foru Aldundian ordaindu ere.

Dena den, aurreko paragrafoan aipatutako aitortpena eta ordainketa hilean behin egingo da, aurreko hilean atxikitako zenbatekoei eta kontura egindako sarrerei dagokienez, baldin eta atxikitzailleak eta kontura sartzera behartutakoak abenduaren 29ko 1.624/1992 Errege Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzekoak, 71. artikuluen 3 apartatuko 1. eta 1.bis zenbakietan jasotzen dituen egoeren barruan badaude.

Ez da aitortpen negatiborik aurkeztuko aitortzen den zergaldian atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errentak ordaindu direnean.

2. Atxikitzailleak eta kontura ordaintzera behartutakoak atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena aurkeztuko beharko dute. Laburpen horretan, bere identifikazio datuez gainera, hartzaileen zerrenda jasotzea eta honako datu hauek agertzea eskatu ahal izango da:

a) Entitatearen izena.

b) Identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Partaide, bazkide edo onuradunaren zerga helbidea.

d) Haiek lortutako errenta, datu hauekin batera: kontzeptuen identifikazioa, deskripzioa eta izaera, eta errentaren sortzapen ekitaldia.

e) Egindako atxikipena edo konturako sarrera.

Aurreko parrafoetan ezarritako betebeharrak Espainian helbideratuta dauden, bertan egoitza duten edo han ordezkaturik dauden entitateek izango dituzte, baldin eta atxikipenari lotuta dauden errentak besteren kontura ordaintzen badituzte edo baloreen errentak gordailatu edo kobratzeaz arduratzen badira.

3. Atxikitzailleak edo kontura ordaintzera behartutakoak atxikipenen edo konturako ordainketen ziurtagiria eman beharko dio zergadunari, eta behar den frogagiria ere luzatuko dio aurreko apartatuan aipatzen den urteko laburpenean hari buruz sartu behar diren gainerako datuak azalduz.

Aipatu ziurtagiria zerga hau aitortzeko epea hasi baino lehen jarri beharko da zergadunaren esku.

Aurreko parrafoetan ezarritako betebeharrak Espainian helbideratuta dauden, bertan egoitza duten edo han ordezkaturik dauden entitateek izango dituzte, baldin eta atxikipenari lotuta dauden errentak besteren kontura ordaintzen badituzte edo baloreen errentak gordailatu edo kobratzeaz arduratzen badira.

4. Ordaintzaileek errentak ordaintzerakoan egindako atxikipenen edo konturako sarreraren berri eman beharko diete zergadunei, aplikatu den portzentaia adieraziz.

5. Artikulu honetan aipatzen diren aitortenak zein eredutan, nola, non eta zein epetan egingo diren Ogasuneko eta Finantzarako foru diputatuak erabakiko du errenta mota bakoitzerako. Era berean, foru diputatuak aurreko 2 apartatuan jasotako datuetatik aitortenetan zein sartu behar den zehaztuko du. Atxikitzaileak edo kontura ordaintzera behartutakoak derrigorrez bete beharko ditu aitortenetan berari buruz eskatzen diren datuak.

6. Ogasuneko eta Finantzarako foru diputatuak erabakiko du non, nola eta zein epetan egingo den erregelamendu honen 55.6 artikuluko c) letran aipatzen duen konturako sarreraren aitortpena.

62. artikulua. Ez egoiliarrei ondasun higiezinak erosteagatik egin beharreko atxikipenak.

XVI. kapitulua: Zerga ordaintzeko obligazio erreala (indargabetua)

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. Atxikipena edo konturako sarrera egitea Sozietateen gaineko Zergako karga tasa orokorraren mende ez dauden kapital aldakorrek inbertsio sozietateek egin dituzten ekarpen itzulketa bidezko kapital murrizpenetan eta jaulkipen primen banaketetan.²⁹

1. Erregelamendu honek 54.g) artikuluan jasotakoa jasota ere, atxikipena edo konturako sarrera egin behar da, jasotzaileari dagokion Sozietateen gaineko Zergaren konturako ordainketa gisa, zergaren foru arauak hemezortzigarren xedapen gehigarrian aipatutako errentei dagokienez, horiek ekarpen bidezko kapital murrizpenaren eta jaulkipen primaren banaketaren ondorioz lortzen direnean, baldin eta aipatutako eragiketak Sozietateen gaineko Zergako karga tasa orokorraren mende ez dauden Inbertsio Kolektiboko Erakundeen Legean araututako kapital aldakorrek inbertsio sozietateek edo beste estatu batean

²⁹ Xedapen gehigarri hau 25/1999 Foru Dekretuaren xedapen indargabetzaile bakarrak indargabetu zuen, eta maiatzaren 24ko 15/2011 FORU DEKRETUAREN 2. artikulua gehitu du berriro. Aipatu foru dekretuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen ditu. Foru dekretua aldizkari ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2011-05-30eko GAO), eta aldaketak 2011-01-01etik aurrera ditu ondorioak

erregistratutako kapital aldakorreko inbertsio kolektiboko organismoek eginak badira.

2. Karga tasa orokorraren mendean ez dauden Inbertsio Kolektiboko Erakundeen Legean erregulatutako kapital aldakorreko inbertsio sozietateek egin dituzten ekarpen itzulketa bidezko kapital murrizpeneko eragiketetan eta jaulkipen primaren banaketako eragiketetan, sozietateak berak egin behar du atxikipena edo konturako sarrera.

Europako Parlamentuan eta Kontseiluan 2009ko uztailaren 13an onartutako 2009/65/EE Zuzentarauak, balore higigarrietako inbertsio kolektiboko organismo jakin batzuei buruzko lege, arau eta administrazio mailako xedapenak koordinatzen dituenak, arautzen dituen inbertsio kolektiboko erakundeen kasuan, atxikipena edo konturako sarrera egitera behartuta daude entitate merkaturatzaileak edo horien akzioak merkaturatzeko ahalmena duten bitartekariak eta, horien orde, baloreak kokatzeaz edo banatzeaz arduratzen den entitatea edo entitateak, betiere errenten ordainketan esku hartzen badute. Aipatutako inbertsio kolektiboko erakundeak Europar Batasuneko estaturen batean eratuak eta helbideratuak izan eta Baloreen Merkaturako Batzorde Nazionaleko erregistro berezian inskribatuta egon behar dira, Espainian egoiliar diren entitateek merkaturatze aldera.

Aurreko paragrafoan jasotakoez besteko beste estatu batean erregistratutako kapital aldakorreko inbertsio sozietateen pareko inbertsio kolektiboko organismoak direnean, beren akzioak eskuratzean, lagatzean edo erreskatatzean inbertsio talde murriztuei dagokienez duten edozein muga alde batera utzita, baloreak gordailatzen dituen edo horietatik eratorritako errenten kobrantza kudeatzeaz arduratzen den entitatea egongo da behartuta atxikipena edo konturako sarrera egitera.

Aurreko paragrafoei jarraituz atxikipena edo konturako sarrera egitea derrigorrezkoa ez denean, ekarpenen itzulketa edo jaulkipen primaren banaketa jasotzen duen bazkidea egongo da behartuta konturako ordainketa egitera. Konturako ordainketa hori erregelamendu honek xedapen gehigarri honen ondorengo apartatuan eta 58.1 eta 59. artikuluetan jasotako arauari jarraituz egingo da.

3. Xedapen gehigarri honen 1. apartatuan jasotako kasuetan, atxikipen oinarria zergaren foru arauaren hemezortzigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuan jasotakoari jarraituz kalkulaturako oinarri ezargarria izango da.

Bigarrena. Higiezin inbertsio kolektiboko erakundeen araubidea.

1. Zergaren foru arauak 29.5 artikuluan aurreikusten duen karga tasaz goza ahal izan dezaten inbertsio inbiliarrioko sozietate eta fondoek etxebizitzetan eta ikasleen nahiz adinduen egoitzetan egin behar duten gutxieneko inbertsioaren %50eko koefizientea konputatzeari begira, kontuan hartuko dira inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduak 56.1 artikuluen a) eta b) letretan jasotako inbertsioak, betiere, gainera, 56.1 artikuluko b) paragrafoan aipatutako kasuetan honako baldintzak betetzen badira:

a) Eraikitzen ari diren ondasun higiezinak entitate erregistrala edukitzea, Jabetza Erregistroan inskribatu direlako.

b) Etxebizitzak, ikasle egoitzak eta adinduen egoitzak izatea.

2. Ikasle egoitzak izango dira ikasleak hartzeko bereziki diseinatu edo egokitutako ondasun higiezinak, ofizialki halakotzat aitortuta daudenak. Era berean, adinduen egoitzak izango dira hirugarren adineko pertsonak hartzeko bereziki diseinatu edo egokitutako ondasun higiezinak, ofizialki halakotzat baimenduta daudenak.

3. Aurreko 1 apartatuan aipatu den inbertsio koefizientea konputatzeko, inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduak, azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretuaren bidez onartuak, ondasun higiezinetan zenbateko inbertsio portzentaje izan den kalkulatzeko 60. artikuluan ezartzen duenari jarraituko zaio.

4. Inbertsio inmobiliarioko fondo eta sozietate sortu berriei behin-behinik aplikatuko zaie zergaren foru arauak 29.5 artikuluan aurreikusten duen karga tasa. Baldintza bakarra izango da bi urteko epean, Balore Merkatuen Batzorde Nazionalen erregistratzen diren kontatzen hasita, artikulua horretan eskatzen den inbertsio portzentajera iristea. Baldintza hori bete ezean, igarotako ekitaldietako sozietateen gaineko zerga ordainarazteko tasa orokorra aplikatuko da, berandutza interesak eta guzti.

5. Inbertsio inmobiliarioa konpartimenduka egiten duten sozietate eta fondoen kasuan, xedapen gehigarri honetan ezarritakoa konpartimendu bakoitzerako bete beharko da.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena. Elementu erabiliak amortizatzea.

Erabilita eskuratzen diren ondare elementuak Zergaren Foru Arauak ondorioak sortu baino lehen amortizatzen ari baldin baziren, aipatu foru arauak ondorioak izan baino lehen indarrean zeuden arauen arabera jarraituko dira amortizatzen.

Bigarrena. Lanaldiaren banaketaren suposamenduan jasota dauden pizgarriak aplikatzeko dokumentazioa aurkezteko epea.

Zergaren Foru Arauak 45. artikuluen 2 apartatuan jasotakoa, foru dekretu hau indarrean jarri aurretik amaitutako zergaldi bati dagokionez, aplikatu nahi duten entitateek foru dekretu honek 36. artikuluen 1 apartatuan aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute hilabeteko epean, foru dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera.

Hirugarrena. (Indargabetua)

Laugarrena. (Indargabetua)

Bosgarrena. Enpresak sustatzeko sozietateen erregimen berezia aplikatzeko eskaera aurkezteko epea.

Beren ekitaldiak foru dekretu hau indarrean sartu baino lehen amaitu dituzten sozietateak enpresak sustatzeko sozietateen erregimen berezira bildu nahi badira, foru dekretu hau argitaratu eta hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko dute dekretu honen 44. artikuluan aipatzen den eskaera.

Seigarrena. Plan berezi jakin batzuk onartu eta sortzapeanarena ez diren egozpen tenporaleko irizpideak ontzat emateko eskaerak aurkezteko epea.

Zergaren Foru Arauak ondorioak sortu eta gero hasitako zergaldiei badagozkie, jarraian zehazten diren eskaerak foru dekretu hau indarrean sartzen den egunetik hasi eta hilabeteko epean aurkeztu beharko dira:

- a) Amortizazio planak onartzeko eskaerak, foru dekretu honen 2. artikuluan esandakoaren arabera.
- b) Aparteko konponketen planak onartzeko eskaerak, foru dekretu honen 4. artikuluan esandakoaren arabera.
- c) Aldi baterako ustiapen ekonomikoak uzteagatik sortutako gastuei aurre egitea helburu duten zuzkidura planak onartzeko eskaerak, foru dekretu honen 5. artikuluan esandakoaren arabera.
- d) Sortzapeanarena ez diren egozpen tenporaleko irizpideak onartzeko eskaerak, foru dekretu honen 19. artikuluan esandakoaren arabera.

Zazpigarrena. Berrinbertsio plan bereziak.

Foru dekretu hau indarrean sartu baino lehen egindako eskualdaketen inguruko berrinbertsio plan bereziak aurkezteko epea foru dekretu hau indarrean sartzen den egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

Zortzigarrena. 1984ko uztailaren 7a baino lehen jaulki eta zirkulazioan jarritako aktibo finantzarioen etekin inplizituak.

Kapital higigarriaren etekin inplizituak 1984ko uztailaren 7a baino lehen jaulki eta zirkulazioan jarri diren aktibo finantzarioei dagozkienean, ez dute konturako atxikipenik izango ez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan ez eta Sozietateen gaineko Zergan ere.

Bederatzigarrena. Elkarri lotuta dauden pertsona edo entitateen arteko eragiketak aurrez baloratzeko proposamenak.

1. Sujetu pasiboak hala eskatzen badu, balorazio metodoak edo honetatik erator litekeen balio tarteak foru dekretu honen 7. artikuluko a) letran jasotzen diren proposamen onartuetako batekin zer ikusia duenean, posible izango da onarpena baino lehen egindako eragiketei ere horiek aplikatzea ondoko baldintza hauek betetzen badira beti ere:

- a) Jada egindako eragiketak eta onartutako proposamenean jasotakoak funtsean berdintsuak izatea.
- b) Eragiketa horiek proposamena aurkeztu ondorengo zergaldi amaituetan eginak izatea.
- c) Aurreko letran aipatu diren eragiketak burutu zirenean proposamena aplikatzeko oinarritzotzat jotzen diren zirkunstantzia ekonomikoak gertatu izana.
- d) Proposamena 1997ko abuztuaren 1a baino lehen aurkeztua izatea.

2. Foru dekretu honen 7. artikulua b) eta c) letretan aurreikusten diren proposamenen gastuak kentzeko kontuan hartzen diren funtsezko elementuei ere aplikatuko zaie, halaber, aurreko apartatua xedatutakoa.

Hamargarrena. Zerga onuren erregimen iragankorra hainbat finantza eragiketatan.

1. Erregimen iragankorraren aplikazioa.

Gertatzen bada entitate batzuek, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua indarrean sartzean, arau horren hamabosgarren xedapen iragankorrean jasotzen diren zerga onurak gozatzen zituztela, entitate horiek mantendu egingo dituzte eskuratutako eskubideak, emanak izan zitzaizkien baldintzetan eta xedapen iragankor honetan xedatutakoari jarraiki.

2. Eskuratutako eskubideak.

a) Aurreko apartatua jasotakoaren ondorioetarako, eskuratutako eskubideak honako hauek izango dira:

1. Kapital Errenten gaineko Zergan autobideen sozietate kontzesionarioei aitortutako hobariak, baldin eta epe jakin baterako eta era indibidualean emanak izan badira 1979ko urtarrilaren 1a baino lehen, Estatuarekin sinatutako itun edo kontratuaren ondorioz.

2. Abenduaren 27ko 61/1978 Legea indarrean zegoenean Sozietateen gaineko Zergan emandako iraupen jakineko hobariak, Zerga Administrazioak aitortu eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak hamabosgarren xedapen iragankorrean aipatzen dituenak.

b) Eskuratutako eskubideak ezingo dira inolaz ere luzatu aitortutako epealdia behin amaituta.

3. Autobideen sozietate kontzesionarioei Kapital Errenten gaineko Zergatik eratortzen diren onurak aplikatzea.

a) Autobideen sozietate kontzesionarioei aitortutako zerga onurak Kapital Errenten gaineko Zergaren arauen arabera jarraituko dira aplikatzen, zerga horren arabera aplikagarri den tasari jarraiki.

b) Etekinak jasotzen dituenak tributatzeko obligazio pertsonala izanez gero, zerga onurarik egon ez balitz aplikatu beharko zen Kapital Errenten gaineko Zerga kendu ahal izango du bere kuotatik.

c) Aurreko zenbakian xedatutakoa xedatuta ere, aseguru eta aurrezki entitateek eta mota guztietako kreditu entitateek benetan atxikitako zenbatekoa bakarrik kenduko dute beren kuotatik.

4. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 61/1978 Legearen indarraldian emandako hobariak.

Gertatzen bada entitate batzuek, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua indarrean sartzean, xedapen honetako 2. apartatuaren a).2 parrafoan aipatzen diren hobariak gozatzen zituztela, eskuratutako eskubide

horiekin jarraitu egingo dute emanak izan zitzaizkien baldintzetan, hurrengo apartatueta ezarritakoaren kaltetan gabe.

5. Kreditu zubiak

a) Hobaritu nahi diren berfinantzazio eragiketen formalizazio aldiari aurre egiteko ematen diren kredituak hartuko dira kreditu zubitza, baldin eta horien epea urtebetetik gorakoa ez bada. Epe hau beste urtebetez luzatu daiteke Zerga Administrazioari aurrez adierazita.

b) Kreditu zubien etekinek ez dute hobaririk izango.

c) Maileguez edo jesapenek ez dute xedapen honetako 7. apartatuaren arabera aitortua izan dezaketen hobaria galduko, baldin eta beren zenbatekoa a) letran aipatu diren kreditu zubiak kantzelatzeko erabiltzen bada.

6. Partaidetzak ordeztu eta eskualdatzea.

a) Kreditu eragiketaren partaidetzak ordeztu eta eskualdatzen badira eragiketaren gainontzeko saldoaren % 5 gaintu gabe, atzerrikoek finantzazioan duten partaidetza maila aldatzeke, eta eragiketaren zertarakoan aldakuntzarik ekarri gabe, entitate mailegariak egingo duen gauza bakarra gertatu diren aldaketak hobaria eman duen organoari urtero jakinaraztea izango da.

b) Aurreko letran adierazitako baldintzak betetzen ez badira, entitate jaulkitzaileak nahitaez eskatu beharko du bere egunean emanak izan diren hobariak konbalidatzea.

7. Berfinantzazio eragiketak.

a) Hona hemen hasieratik aitortuak dituzten hobariak galdu gabe berfinantzatu daitezkeen eragiketak, beti ere xedapen honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte:

1. Atzerriko merkatuan hitzartutako maileguak eta merkatu horretan jaulkitako jesapenak.

2. Barruko merkatuan jaulkitako jesapenak.

b) Berfinantzazio eragiketak hobarituak izan daitezen, honako baldintza hauek ezinbestekoak izango dira:

1. Ez gaintzea inoiz hasierako finantza eragiketaren gehieneko epea.

2. Berfinantzazio eragiketaren zenbatekoa ez izatea eragiketa horren egunean ordaindu gabe dagoen eta epemugara iritsi ez den zenbatekoa baino handiagoa.

Eragiketak atzerriko monetan egiten direnean eta erabilitako dibisa aldatzea eskatzen dutenean, aplikatuko den dibisa-trukea berfinantzazio eragiketaren egunean dagoena izango da.

c) Ez ohizko kasu bezala, eragiketak nazioarteko merkatuan egiten direnean, aurreko b).1 parrafoan aipatzen den epea luzatzea baimendu daiteke baldin eta berfinantzazio eragiketa, interes eta bermei dagokienez, baldintza hobeagoetan egiten bada.

- d) Hobaria ez zaie inoiz interesak berfinantzatzeko eragiketei aplikatuko.
- e) Berfinantzazio eragiketak hobaritzeko eskaera entitate mailegariak aurkeztu beharko du xedapen honetan ezarritakoari jarraituz.

8. Eskaera.

a) Xedapen honetan aipatzen diren eragiketak hobaritzeko eskaera Zerga Administrazioari zuzenduko zaio hurrengo dokumentuak erantsita:

1. Memoria bat, mailegu edo jesapenen fondoekin egin beharreko inbertsioak adieraziko dituen, horien kostuari buruzko aurrekontua zehaztuko duena, eta non egingo diren, noiz eta gutxi gora-behera zein epetan burutuko diren azalduko duena.

2. Inbertsio horiek finantzatzeko plana. Beharrezko finantzazioa eskuratzeko, zein egunetan espero den, aldi bakarrean edo aldi desberdinetan, barruko zein kanpoko finantza iturrietara jotzea adierazi beharko da bertan.

3. Mailegu kontratuaren edo erabakiaren kopia. Jesapenetan, jaulkipena onartu duen Batzar Nagusiaren aktaren ziurtapena aurkeztuko da edo, bestela, Administrazio Kontseiluaren erabakia, Batzar Nagusiak bere egunean hartutako erabakia ordezkotzaz betearazten duena.

Kontratu proposamen bat aurkezten denean, behin-betiko kontratuaren kopia ere bidali beharko da berau formalizatutakoan.

4. Maileguaren edo jesapenaren amortizazio taula.

5. Erabilitako kreditu zubiak eta berauen iraupena.

6. Mailegu-emaille eta mailegu-hartzaileen arteko lotura maila edo honen eza.

b) Eskaerari eragiketaren memoria ekonomiko-finantzarioa erantsiko zaio.

9. Ebazpena.

a) Zerga Administrazioaren ebazpena aldekoa bada, honako datu hauek zehaztu beharko dira bertan:

1. Emandako hobariaren portzentaia.

2. Hobaritzen den eragiketaren zenbateko osoa.

3. Memorian aipatu diren inbertsioak aurrera eramateko gehieneko epea.

4. Aurreikusten diren finantza eragiketen egutegia eta baldintzak, aurreko 2 apartatuan aipatu den zenbatekoa inoiz gaingitu gabe.

5. Egoki jotzen diren bestelako baldintzak.

b) Aurreko zenbakian aipatu den ebazpenak behin-behineko izaera izango du hurrengo izapide hauek betetzen ez diren artean:

1. Administrazioak baimena ematea, bidezko den moduan, finantza eragiketa burutzeko hala exijitzen bada.

2. Zerga Ikuskatzailtzak egiaztatzea, inbertsioak egiteko epea behin amaituta, sozietateak inbertsio horiek burutu dituela eta hobariak emanak izateko behar ziren baldintzak bete dituela. Zerga Ikuskatzailtzak, nolanahi ere, edozein unetan egin ahal izango ditu beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapenak hobarituak izan diren inbertsioen jarraipen egokia ezartzeko.

Kontratu proposamen batean oinarrituta ematen den baimenak ere behin-behineko izaera izango du behin-betiko kontratua jaso denetik hasi eta hamabost eguneko epean berresten ez den artean.

c) Behin-behineko erabakia hilabeteko epean hartu beharko da, eta hau eskaera gainontzeko datu eta agiriekin batera aurkeztu eta hurrengo egunetik hasita, edo Zerga Administrazioaren errekerimenduz hutsuneak zuzentzen diren unetik aurrera hasiko da kontatzen.

d) Ebazpenean inbertsioak egiteko finkatzen den epea nahikoa ez denean, enpresak, hura amaitu baino hilabete bat lehenago gutxienez, epea behin bakarrik luzatzeko eskatu ahal izango du, eta eskaera egiteko arrazoiak azaldu beharko ditu orduan. Zerga Administrazioak ohizko epea amaitu baino lehen jakinaraziko dio sozietateari bidezkoa den ebazpena. Hala egin ezean, ebazpena aldekoka izan dela ulertuko da.

Hamaikagarren xedapen iragankorra. Kontabilitate Plan Orokorra lehen aldiz aplikatzeagatik beharrezko diren kontabilitate doiketen zerga erregimena.³⁰

1. Erreserba partidetara egindako kargu eta abonuak, hurrenez hurren, gastu edo sarreratzat hartzen badira azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Kontabilitate Plan Orokorra lehen aldiz aplikatzeagatik edo, bestela, enpresa txiki eta ertainen Kontabilitate Plan Orokorra eta mikroenpresentzako kontabilitate irizpideak, azaroaren 16ko 1515/2007 Errege Dekretuan finkatutakoak, lehen aldiz aplikatzeagatik, kargu eta abonu horiek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehen zergaldiko oinarri ezargarrian integratuko dira zergaren foru arauak eta foru dekretu honek ezarritakoari jarraikiz.

Ondorio horietarako, ondare garbian gertatzen diren gutxipenak eta gehikuntzak, Merkataritza Kodearen 36. artikuluko 2. apartatuan deskribatutakoak, hartuko dira hurrenez hurren, gastu eta sarreratzat. Hortaz, ondare propioko tresnei buruzko partidari baja ematea ez da gastutzat hartuko.

2. Aurreko apartatuan jasotako erreserbetarako kargu eta ordainketa horiek zer ikusia dutenean gastuekin edo data hori baino lehen hasitako zergaldietan aplikatzen ziren kontabilitate printzipio eta arauetara jarraituz sortu eta kontabilizatutako sarrerekin, kargu eta ordainketa horiek ez dute ondorio fiskalik izango, betiere zergaldi horietako oinarri ezargarrian integratu badira.

³⁰ Xedapen iragankor hau Abenduaren 23ko 85/2008 Foru Dekretuak gehitu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua amortizazioen, enplegu sorrerako kenkariaren eta kontabilitate plan berriak lehen aldiz aplikatzeko doiketen zerga erregimenaren alorrean aldatzen du, Aldaketa abenduaren 31an jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2008-12-31ko GAO).

Erreserba kontuotarako kargu eta ordainketa horiek gastu edo sarrera horiek kontabilitateko irizpideen arabera sortzapenaren ondorioz berriro kontabilizatzen diren zergaldi berean integratuko dira oinarri ezargarrian. Irizpide horiek ezarrita daude Kontabilitate Plan Orokor berrian (azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretua), eta Enpresa Txiki eta Ertainen Kontabilitateko Plan Orokorrean eta mikroenpresentzako kontabilitateko irizpide zehatzetan (azaroaren 16ko 1.515/2007 Errege Dekretua).

Aitzitik, aktiboaren ondare elementuen balio galeraren ondorioz zuzentzen diren gastuekin zerikusia duten erreserba kontuak ordaintzen direnean, erreserba kontuotarako ordainketak ondare elementu horien eskualdaketa egiten den edo narriatzen direlako galtzen diren zergaldiko oinarri ezargarrian integratuko dira.

Aurreko paragrafoan aipatutako erreserba konturako ordainketa bat baldin badator zergaren foru arauaren 12. artikuluko 8. apartatuan aipatutako diferentziarekin, ordainketa hori oinarri ezargarrian integratuko da soilik aktiboa eskualdatzen bada edo narriaduraren ondoriozko galeraren arrazoa diferentzia hori bada.

3. Aurreko apartatuan aipatzen diren kasuetan, zergapekoak Ogasuneko eta Finantzetako diputatuaren foru aginduz ezartzen diren betebeharrak bete beharko ditu. Beraien bidez, zergaldi bakoitzean, aurreko 2. apartatuan ezarritakoa aplikatu zaien erreserba konturako kargu eta ordainketen berri eman beharko du. Zergaldi horretako oinarri ezargarrian integratutako diru zenbatekoak eta hurrengo zergaldietan integratu beharreko diru zenbatekoak ere jakitera eman beharko ditu.

4. Aurreko bi apartatuetan xedatutakoa aplikatuko da, salbu eta zergapekoak erabakitzen badu aurreko 1. apartatuan aipatu diren erreserba kontuotarako kargu eta ordainketen saldo garbia, positiboa edo negatiboa, oinarri ezargarrian integratzea. Kasu horretan, xedapen iragankor honen hurrengo apartatuan aurreikusitakoa aplikatu ahal izango du.

5. Zergapekoak 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren lehen bost zergaldietako bakoitzari dagokion oinarri ezargarrian integratu dezake, zati berdinetan, erreserba kontuotarako kargu eta ordainketen saldo garbia, positiboa edo negatiboa, haiek aurreko 2. eta 4. apartatuetan ezarritakoaren arabera zerga ondorioak dituztenean.

6. Xedapen iragankor honen 1.etik 4.era bitarteko apartatuetan ezarritakoa doiketei aplikatuko zaie haien kontrapartida erreserba partida bat denean eta bi arrazoi hauen ondorioz egiten direnean: Kontabilitate Plan Orokorra edo Enpresa Txiki eta Ertainen Kontabilitate Plan Orokorra aplikatzeagatik, eta mikroenpresek aplikatzekoak ziren berariazko irizpideak alde batera uzteagatik, hori guztia azaroaren 4ko 1 Errege Dekretuaren xedapen gehigarri bakarrean eta azaroaren 16ko 1.514/2007 Errege Dekretuaren lehen eta bigarren xedapen gehigarrietan ezarritako moduan.

Hamabigarren xedapen iragankorra. Ondare elementuen balio zuzenketa jakin batzuen erregimen iragankorra.³¹

1. Zergaren foru arauaren 12. artikuluko 8. apartatuan aipatzen diren kasuetan, baloreak 2008ko urtarrilaren 1a baino lehenago hasitako zergaldi batean eskuratu badira, zergapekoak xedapen horretan aurreikusitakoa aplikatu ahal izango du, hala egitekotan, balore haien jatorrizko eskuraketa-balioaren gainean (12. artikuluko 8. apartatuan aipatzen den diferentziarekin bat etorri behar da aipatu balioa).

12. artikuluko 8. apartatu horretan xedatutakoarekin bat etorritik ateratako diru zenbatekoak eta apartatu horretan araututako diferentziaren balio-galeratik eratorritako balio-zuzenketen zenbatekoa batuta, emaitza ezin da, inola ere, diferentzia horren jatorrizko zenbatekoa baino handiagoa izan.

Espainiar lurraldean egoitza ez daukaten entitateei dagozkien baloreen kasuan, aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, kontuan izan behar da zergaren foru arauaren 12. artikuluko 8. apartatuan ezarritakoarekin bat etorritik ateratzen diren diru zenbatekoak, 2008ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako ekitaldietarako indarrean dagoen idazkuntzan.

2. Zergaren foru arauaren 12. artikuluko 9. eta 10. apartatueta aipatzen diren kasuetan, baloreak 2008ko urtarrilaren 1a baino lehenago hasitako zergaldi batean eskuratu badira, zergapekoak aipatu xedapenetan jasotakoa aplikatu ahal izango du, hala egitekotan, aktiboen jatorrizko eskuraketa balioaren gainean.

Aipatutako xedapenetan jasotakoaren arabera atera diren diru zenbatekoak eta zergaren foru arauaren 12. artikuluko 9. eta 10. apartatueta aipatzen diren ukiezinen balioaren zuzenketen zenbatekoa batuta, emaitza ezin daiteke izan, inola ere, ukiezin horien jatorrizko eskuraketa balioa baino handiagoa.

Hamahirugarren xedapen iragankorra. Aparteko konponketengatik eta ustiapen ekonomikoak utzi izanaren gastuengatik egindako horniduren erregimen iragankorra.³²

1. Foru Dekretu honen 4. eta 5. artikuluetan xedatutakoa, 2008ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako ekitaldietarako indarrean dagoen idazkuntzaren arabera, data horren aurretik onesten diren planei aplikatu behar zaie, baita artikuluko horietan finkatutako epearen barruan eskatzen diren planei, nahiz eta onespena geroago egin.

Plan horien ondorioz sortutako gastuak haiek ezarritakoaren arabera dagozkien zergaldietako oinarri ezargarrian integratuko dira; ez du ondorio fiskalik izango Kontabilitateko Plan Orokorraren lehenbiziko aplikazioaren ondorioz egiten den

³¹ Xedapen iragankor hau Abenduaren 23ko 85/2008 Foru Dekretuak gehitu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua amortizazioen, enplegu sorrerako kenkariaren eta kontabilitate plan berriak lehen aldiz aplikatzeko doiketen zerga erregimenaren alorrean aldatzen du, Aldaketa abenduaren 31an jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2008-12-31ko GAO).

³² Xedapen iragankor hau Abenduaren 23ko 85/2008 Foru Dekretuak gehitu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua amortizazioen, enplegu sorrerako kenkariaren eta kontabilitate plan berriak lehen aldiz aplikatzeko doiketen zerga erregimenaren alorrean aldatzen du, Aldaketa abenduaren 31an jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2008-12-31ko GAO).

erreserbetarako ordainketak, baldin eta zerikusia badu 2008ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako zergaldietako oinarri ezargarrian kontabilizatu eta integratu ziren gastu horiekin.

2. Aurreko apartatuan azaldutako tratamendu bera jasoko dute zergaren foru arauaren 13. artikulua 2. apartatuko c) hizkian (2008ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako ekitaldietarako indarrean dagoen idazkeran) ezarritako kasuetan egindako zuzkidurek, nahiz eta plan berezi bat onartzea ez eskatu harik eta hurrengo konponketa handia egin arte.

3. 2008ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako zergaldietan kontabilizatzen diren gastuak, aparteko konponketak egitea edo aldi baterako ustiapen ekonomikoak uztea ordaintzeko badira, Zerga Administrazioak onetsitako plan baten barruan ez egoteagatik edo aurreko 2. apartatuak aipatzen dituen kasuen barruan ez egoteagatik ez badira kengarriak, konponketak egiten diren edo ustiapena uzten den egunetik aurrera hasitako zergaldietako oinarri ezargarrian integratuko dira.

Hamalagarren xedapen iragankorra. Aseguru entitateen kontabilitate arau berriak lehen aldiz aplikatzeagatik beharrezko diren kontabilitate doiketen zerga erregimena.³³

1. Kontabilitate arau berrietara egokitzeko onartzen diren irizpide berriak aplikatzeagatik aseguru entitateek egin behar dituzten doiketei aplikatuko zaie foru dekretu honen hamaikagarren xedapen iragankorrean ezarritakoa. Bertan esandakoak doiketa horiek egin behar diren ekitaldiari dagokion zergaldiko oinarri ezargarrian izango ditu ondorioak.

2. Erreserbetarako ordainketa egonkortze horniduraren bajagatik egin bada, haren zenbatekoa ez da integratuko oinarri ezargarrian.

3. Foru dekretu honek hamaikagarren xedapen iragankorraren 5. apartatuan ezarritakoa aplikaziozkoa izango zaie xedapen iragankor honetan aipatutako aseguru entitateen kontabilitateko arau berriak lehen aldiz aplikatzearen ondorioz kontabilitate arloan egin beharreko doiketei.

Doiketa horiek egin behar diren ekitaldiko zergaldiko oinarri ezargarrian, zati berdinetan, eta zergaldi horren ondoko lau zergaldietan egingo da integrazioa.

4. Zergaren foru arauak 15.1 artikuluan kontabilitate birbalarizazioei buruz ezarritakoa ondasun higiezin birbalarizazioari aplikatu zaio, haiek kontabilitate marko berrira aldatzeko datan duten arrazoizko balioaren arabera birbalarizatzen direnean.

AMAIERAKO XEDAPENA

³³ Xedapen iragankor hau Abenduaren 23ko 85/2008 Foru Dekretuak gehitu du. Aipatu Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua amortizazioen, enplegu sorrerako kenkariaren eta kontabilitate plan berriak lehen aldiz aplikatzeko doiketen zerga erregimenaren alorrean aldatzen du, Aldaketa abenduaren 31an jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2008-12-31ko GAO).

Lehena. Indarrean sartzea.

1. Foru Dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.
2. Foru Dekretu honetan jasotako arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aplikagarri duten zergaldiei aplikatuko zaizkie.
3. Aurreko apartatua xedatutakoa xedatuta ere, atxikitzeko obligazioari buruzko arauak 1997ko apirilaren 25etik aurrerako atxikipen kasuei aplikatuko zaizkie.

Bigarrena. Foru diputatuaren ahalmenak.

Ogasun eta Finantzetako foru diputatuari ahalmena ematen zaio:

Zerga honen aitorpen eredia onartu eta aurkezpen tokiak eta moduak finkatzeko.

b) Aitorpen modalitate erraztuak edo bereziak, talde fiskalen aitorpen bateratua barne, erabiltzea onartzeko.

c) Aitorpenak ordenagailuz edo bitarteko telematikoz zuzenean irakur daitezkeen aitorpenak aurkezteko baimena ematea eta, bidezkoa denean, zerga honen aitorpenak euskarri horietan noiz aurkeztu behar diren zehaztea.

d) Aitorpenarekin batera aurkeztu beharreko dokumentu edo frogagiriak erabakitzeko.

e) Informazio eredia onartzea, hain zuzen interes ekonomikoko talde espainiar edo europarrek, enpresen aldi baterako batasunek eta ondare sozietateek aurkeztu behar dutena.

f) Zergaren Foru Arauak eta foru dekretu honetan ezarritako zerga aitorpenak aurkezteko epea zabaltzea, arrazoi teknikoetan oinarrituta, aitorpena bide telematikoz aurkezten denean.

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru dekretuak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *Otsailaren 3ko 7/1998 FORU DEKRETUA, hainbat artikulua aldatzen dituen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduetan nahiz Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, Mugaldeko Langileen Erregistroa eta zentsu aitorpenak arautzen dituzten foru dekretuetan.(1998-02-06ko GAO).*

- 5. artikulua 7. artikulua aldatzen du.

- 6. artikulua 62. artikulua aldatzen ditu.
 - 7. artikulua XVI. Kapitula gehitzen du.
- *Urtarrilaren 19ko 3/1999 FORU DEKRETUA, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan zenbait konturako ordainketa arautzekoa, sozietateen gaineko zergaren erregelamendua atxikipenei eta konturako sarrerei dagokionez aldatzekoa eta, azkenik, egoiliarrek atzerrian lortutako errenten konturako ordainketak erregulatzekoa. (1999-01-27ko GAO).*
 - 25. artikulua XV. kapitula aldatu du.
 - *Martxoaren 2ko 25/1999 FORU DEKRETUA, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 24ko 8/1998 foru araua garatzen duena jardura ekonomikoetatik datozen etekinen zenbait aspekturi dagokionez. (1999-03-11ko GAO)*
 - Xedapen indargabetzaile bakarrak lehen xedapen gehigarria indargabetu du.
 - *Maiatzaren 11ko 49/1999 FORU DEKRETUA, Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua onartzen duena. (1999-05-24ko GAO)*
 - Lehen xedapen indargabetzailearen a) hizkiak, XVI: kapituluaren eta bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa indargabetu du.
 - *Otsailaren 28ko 6/2000 FORU DEKRETUA, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua garatzen duten zenbait foru dekretutan, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen foru dekretuan eta Ez Egoiliarren Errenta Zergaren Erregelamendua onartzen duen foru dekretuan dieta eta konturako ordainketei buruzko artikulua jakin batzuk aldatzen dituena. (2000-3-8ko GAO).*
 - 4. artikulua 54. artikuluan s), t) eta u) parrafoak gehitu eta 55. artikuluan 6. apartatua eta 59. artikulua aldatzen ditu.
 - *Uztailaren 4ko 64/2000 FORU DEKRETUA, inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak eskualdatuz edo itzuliz lortutako ondare irabazien gaineko atxikipen tasa eta errentan edo azpierrean emandako ondasun higiezinaren etekinen gainekoa aldatzen dituena. (2000-07-12ko GAO)*
 - 2. artikulua 59. artikuluko 2. eta 3. apartatuak aldatzen ditu.

- *Irailaren 11ko 57/2001 FORU DEKRETUA, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zerga eta Sozietateen gaineko Zerga garatzen dituzten erregelamenduen zenbait artikuluko aldatzen dituen.*
 - 3. artikulua, 59.4 artikulua eta 61.1eko bigarren apartatua aldatzen ditu.

- *Abenduaren 18ko 69/2001 FORU DEKRETUA, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen duena.*
 - 1. Artikuluak X. Kapitulua aldatzen du; 2. Artikuluak, XII. Kapituluko eta 47. Artikuluko izenburuak aldatzen ditu; azkenik bere 3. Artikuluak, 35. Artikuluko 1. atala, 40. Artikuluko 3. atala, 41. artikuluko 2. atala eta 54. Artikuluko i) eta r) letrak aldatzen ditu.

- *Abenduaren 10eko 66/2002 FORU DEKRETUA, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen dituen, 2002ko urtarrilak 1etik aurrerako ondorioekin (2002-12-17ko GAO).*
 - 21, 22, 24, 40 eta 47 artikulua aldatzen ditu.
 - XII. Kapitulua eta 53. artikulua izenburuak aldatzen ditu.
 - 53. artikuluko 4. apartatu berri bat gehitzen dio.
 - 54. artikulua h) eta n) letrak aldatzen ditu.
 - Amaierako bigarren xedapenaren b) letra aldatzen du.
 - VII. kapituluak, 25. eta 26. artikulua barne dituela, 41. artikulua eta hirugarren xedapen iragankorra indargabetzen ditu.

- *Abenduaren 17ko 68/2002 FORU DEKRETUA, ondoko foru dekretuak aldatzen dituen atxikipenen eta konturako sarreraren aitortzenak eta urteko laburpenak aurkezteko epeari dagokionez: abenduaren 18ko 68/2001 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoa; maiatzaren 11ko 49/1999 Foru Dekretua, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoa; eta ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoa. (2002-12-31ko GAO).*
 - 61 artikulua aldatu du.

- *Abenduaren 27ko 70/2002 FORU DEKRETUA, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzeko abenduaren 18ko 68/2001 Foru Dekretua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzeko ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen dituen, atxikipenen eta konturako sarreraren arloan.(2002-12-31ko GAO).*
 - 54 artikuluari v) letra gehitu dio.
 - 59 artikulua aldatu du.

- *Martxoaren 18ko 13/2003 FORU DEKRETUA, ondoko dekretu hauek aldatzen dituen lan etekinei eta irabazi asmorik gabeko zenbait entitateri aplikagarri zaizkien atxikipenei eta konturako sarrerei dagokienez: abenduaren 18ko 68/2001 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoa, eta ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzkoa. (2003-03-27ko GAO).*
 - 2. artikulua 54. artikuluari w) letra gehitu dio.

- *Abenduaren 22ko 106/2003 FORU DEKRETUA, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzko ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen duena (GAO 2003-12-31).*
 - Honako prezeptu hauek gehitu ditu: III.bis Kapitula; 6.bis artikulua; 2.apartatua 33.artikuluari; 3.apartatua 40.artikuluari; 8.apartatua 43.artikuluari; XII.bis Kapitula; 47.bis artikulua; x) letra 54.artikuluari eta f) letra Amaierako Bigarren Xedapenari.
 - Eta beste hauek aldatu ditu: XII Kapitula; 54.artikuluaren i) letra; 54.artikuluaren ñ) letra; 54.artikuluaren v) letra; Amaierako Bigarren Xedapenaren c) letra eta Amaierako Bigarren Xedapenaren e) letra.

- *Abenduaren 21eko 99/2004 FORU DEKRETUA, aldatzen dituen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, Ondarearen gaineko Zergarena eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena. (2004-12-30eko GAO).*
 - Bere 3. Artikuluak honako prezeptuak aldatu ditu: 33. Artikulua, 54. Artikuluaren e) t) w) eta x) letrak eta 55. Artikuluaren 6 apartatua; eta honako hauek gehitu ditu: 33bis artikulua eta 55. Artikuluaren 7 zenbakia.

- *Abuztuaren 2ko 35/2006 FORU DEKRETUA, honako erregelamenduak aldatzen dituen: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena,*

Sozietateen gaineko Zergarena, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena eta fakturatzeko obligazioena (GAO 2006-08-18).

- Bere 2. artikulua hurrengo aldaketak egin ditu:
 - 54. artikulua t) letra aldatu du.
 - 54. artikulua y) letra gehitu dio.
 - 55. artikulua 6. apartatua aldatu du.
 - Bigarren xedapen gehigarria gehitu dio.
- *Urtarrilaren 9ko 2/2007 FORU DEKRETUA, Pertsona Fisikoen Errentaren, Sozietateen eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergen Erregelamenduak aldatzen dituena, mendetasun kenkariaren arloan nahiz atxikipenaren eta konturako sarreraren tasen arloan, eta 2007ko ekitaldiko eguneratze koefizientea finkatzen dituena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak 47.2 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako (2007-01-12ko GAO)*
 - 4. artikulua 59. artikulua aldatu du.
- *Abenduaren 23ko 85/2008 Foru Dekretua, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua amortizazioen, enplegu sorrerako kenkariaren eta kontabilitate plan berriak lehen aldiz aplikatzeko doiketen zerga erregimenaren alorrean aldatzen duena (2008-12-31ko GAO).*
 - - 1. artikulua 1. artikulua aldatu du.
 - 2. artikulua 4. eta 5. artikulua indargabetu ditu.
 - 3. artikulua 35. artikulua aldatu du.
 - 4. artikulua 11. xedapen iragankorra gehitu du.
 - 5. artikulua 12. xedapen iragankorra gehitu du.
 - 6. artikulua 13. xedapen iragankorra gehitu du.
 - 7. artikulua 14. xedapen iragankorra gehitu du.
- *Uztailaren 28ko 26/2009 FORU DEKRETUA, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen duena (2009-08-11ko GAO).*

- 1. artikulua II. kapitula aldatu du.
 - 2. artikulua III. kapitula aldatu du.
 - 3. artikulua III bis kapitula aldatu du.
 - 4. artikulua IV. kapitula aldatu du.
 - 5. artikulua V. kapitula aldatu du.
 - 6. artikulua VI. kapitula aldatu du.
 - 7. artikulua VII. kapitula aldatu du.
 - 8. artikulua VIII. kapitula aldatu du.
 - 9. artikulua 40. artikulua indargabetu du.
 - 10. artikulua X. kapituluaren izenburua eta 43. artikulua aldatu ditu.
 - 11. artikulua XII. kapituluaren izenburua eta 47 bis artikulua aldatu eta 47 ter artikulua gehitu du.
 - 12. artikulua 57. artikuluari 7. apartatu bat gehitu dio.
- *40/2009 FORU DEKRETUA, abenduaren 23koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatu eta Errenta Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2010ean aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen dituena.*
 - Bere 2. artikulua 59. artikulua aldatu du.
- *12/2010 FORU DEKRETUA, maiatzaren 18koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen abenduaren 18ko 13/2007 Foru Dekretua eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen dituena. (BOG 2010-05-21)*
 - Bere 2. artikulua 32. artikulua aldatu du eta 54. artikuluari z) letra bat gehitu dio.
- *Azaroaren 23ko 32/2010 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen dituena. (BOG 2010-12-1)*
 - Bere 2. artikulua bakarrik 54. artikulua y) letra aldatu du.

- *Azaroaren 23ko 33/2010 Foru Dekretua, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua aldatzen duena eragiketa lotuak dokumentatzeko obligazioei dagokienez. (BOG 2010-12-1)*
 - Bere artikulua bakarrik 9. artikulua, 11. artikulua 3. apartatua eta 38. artikulua 2. apartatua aldatu du, honen 3. 4. eta 5. apartatuak zenbakia aldatu dutelarik.

- *39/2010 FORU DEKRETUA, Abenduaren 23koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren gaineko Zergaren Erregelamenduak aldatu eta Pertsona Fisikoen Errenta gaineko Zergaren ondare irabazi eta galerak kalkulatzeko 2011n aplikatuko diren eguneratze koefizienteak onartzen dituena (2010-12-29ko GAO).*
 - Bere 2. artikulua 54. artikuluari z bis) letra gehitu dio.

- *15/2011 FORU DEKRETUA, maiatzaren 24koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren erregelamenduak aldatzen dituena (2011-05-30eko GAO).*
 - Bere 2. artikulua xedapen gehigarri lehena erantsi dio.